

ilunpetik argitara



EMAKUME LANGILEAK IRUDITAN

Hernani 1939-1975

Maialen Apezetxea Lujanbio / Mikel Ozaita Azpiroz



ilunpetik argitara

EMAKUME LANGILEAK IRUDITAN
Hernani 1939-1975

Maialen Apezetxea Lujanbio / Mikel Ozaita Azpiroz

Hitzaurrea

Jakina da historian murgiltzea denboran bidaiatzea dela, atzera begira jartzea denbora makinan sartuta. Ikuspuntu horretatik, eskuartean duzun liburu hau bidaia agentziek eskaintzen dituzten katalogo gisa ere irudika dezakezu. Hernanin kokatuta, herria utzi gabe, iraganera doan ibilbidea eskaintzen digu liburu honek.

Hernaniko iragana ezagutzeko gonbitea egiten digute egileek, baina bidaia agentzien katalogoen ideiaz baliaturik, esan daiteke, kasu honetan, proposamen ez-ohikoarekin egingo dugula topo. Izan ere, arrazoi ezberdinengatik, bestelako bidaia batez hitz egin dezakegu, ez baitira betiko monumentuak bisitatu, ezta betiko ikusgarriak ere; proposamen honen protagonistak ez dira *bisitatu gabe geratu ezin diren horiek*. Halere, hemen daudenak ere badira; hemen daudenak denbora makinan sarturik ikusiko dugun errealitate horren parte dira.

Maiuskulaz idazten den Historia txikiz idatzitako hamaika istoriok ahalbidetzen dute, gehienetan hala aitortzen ez bada ere. Zintzoak bagina, Gure Historia ez ezik, gure istorioak ere ezagutu beharko genituzke, denek, letra larriz zein xehez idatzitakoek, osatzen baitute iragana; egungo egoera zein etorkizuna eraikitze ezinbesteko baliabide dira.

Monumentuak, estatuak, etxe dotoreak, jauregiak... izaten dira turisten helburu eta helmuga, herri horren historiako hainbat pasarteren erakusle. Elementu horiek aitzakia izanda, gida turistikoek iraganeko pasarteak ekartzen dituzte gogora, herri edo hiri horren gertaera historikoak behin eta berriz oroitaraziz. Turista profesionalak eskuratutako planoaren gainean nahitaez bisitatu beharreko guneak ezabatzen joango dira, banan-banan, borobilez zein X handi batez, *bat gutxiago!* edo *beste bat eginda!* pentsatuz.

Liburu honek eskaintzen duen bidaia, ordea, oso bestelakoa da, hain zuzen ere, bidaia ezberdin baterako gida litzateke. Ez du ezer ordezkatzeko, dagoena osatu eta aberastu baizik, baina badu ausardia, badu ikuspegi original bat eta baita hainbat erronka ere. Egileek esploratzaileen gisara jardun dira eta hortik egiten diote irakurleari gonbita.

Arkeologia lanetan ere ibili dira; artxiboak, dokumentu ofizialak... alde batera utzi, eta frankismo garaian Hernanin zegoen bizimoduan eta egunerokotasunean murgilduz. Horretarako, asko sakondu behar da, estalita geratu diren bizimoduak, egoerak, bizipenak, kontakizunak, pasadizoak... aztertu behar baitira. Hauek, gehienetan, ez dira idatziz jaso; ez daude herriko kroniketan. Oroimenak gorde ditu eta oroimenari galdetu behar zaio zuzenean horien berri izateko. Eta itzali baino lehen egin behar da. Hori da egileek egin dutena: herritarrak elkarriketatu eta beren kontakizunak jaso. Memoriaren arkeologia egin eta gero, testigantzak jaso eta ikusgai jarri dituzte erakustoki den liburu honetan.

Herriko bizitza, eta bereziki frankismo garaiko bizimodua, dugu ibilbide testu honetan, eta, gutxitan gertatzen den moduan, emakumeak dira nagusiki horretan erreferentzi eta mugarri. Beren begiradaz baliatu dira egileak herriko errealitateaz eta garapenaz jabetzeko, eta modu honetan, ikusezinak diren hainbat arlo, ekintza edo jardun mugarri bihurtzen dira. Hernaniko emakumeen oroimenek eta testigantzek monumentu berriak sortu dituzte bidaiari ausartak asebetetzeko. Bizitzari aurre egiten ahalegintzen diren ekimenak dira hauek, eta xumeak badira ere, frankismoa bezalako garai gogorrean egin izanak, bihurtzen ditu, bereziki, azpimarragarri.

Testigantzak izan dituzte bidelagun egileek, baina, batez ere, irudiez baliatu dira beren azterlana egiteko. Horrek originaltasuna eta berezitasuna ematen dio lan honi. Bizitzako arlo ikusezin eta xume horiek, errutinak, iraganeko ohiturak eta bizimodua(k) erakutsi nahi izan dituzte argazkien bitartez.

Emakumeei euren bizipenen inguruan galdetzeko, memoria grafikoa da abiapuntu, baita, ondoren, diskurtso edo istorio osatu eta mamitsua eskaini ahal izateko ere. Irudien kontsumoa eta kontsumismoa bultzatzen den aroan, irudien gaineko begirada geldoa proposatzen da, iraganak utzitako arrastoak bildu eta aztertze asmoz.

Emakumeen bizitzak eta testigantzak, beren bizimodua eta errutinak (lana bere zentzu zabalean oinarri izanda), eta emakumeek argazkietan utzitako arrastoak izan dira testu honetarako langaiak. Lan sakona eta mamitsua egin dute egileek. Azkenean, liburu hau, egindakoaren lagin bat da, laburtua eta egokitua, herritarrei zabaltzeko eta partekatzeko. Turismo agentziek egiten duten antzera, testu honek bidai baterako gonbidapena izan nahi du, baina aitortza ere egin nahi izan zaie emakumeei, emakumeen lanari eta horren erakusle diren irudiei. Hemen bildutakoa Hernaniko ondarea ere badenez, mugarri gisa uler daiteke, eta herriko planoan agertu beharko luke kanpokoen, baina, batez ere, bertakoen gozamenerako.

Eta bukatzeko, bestelako aitorpen bat egin nahiko nuke, izan ere, liburu honek irakasle bati egin dakioken oparirik ederrena biltzen du: zure ikasle ohien eskutik jasotako irakaspena; ikasleak irakasle bilakatuta. Zorionak Maialen eta Mikel! Zorionak Hernani eta bertako emakume langileak.


Jone M. Hernández García

Aurkibidea

1.	SARRERA	13
1.1.	Testu honen abiapuntua eta helburuak.....	13
1.2.	Egindako lanaren kronika laburra	14
1.3.	Zer aurkituko du irakurleak testu honetan?	15
1.3.1.	Argazkiak.....	15
1.3.2.	Testigantzak.....	16
1.3.3.	Begirada zehatz bat	17
2.	BIZITZEA TOKATU ZITZAIENA...	19
2.1.	Frankismoa (1939-1975)	19
2.1.1.	Frankismoaren lehen etapa (1939-1959): emakumeak "etxeko aingeruak"	22
2.1.2.	Frankismoaren bigarren etapa (1960-1975): aldaketetarako bideak irekitzen	24
2.2.	Frankismoa Euskal Herrian eta Hernanin.....	27
2.2.1.	Errepresioa eta Miseria. Altxamendu Faxista eta gerra ondorena.....	28
2.2.2.	Industrializazioaren garapena eta ondorioak	30
2.2.2.1.	Migrazio mugimenduak eta horiei loturiko gertakariak	32
2.2.2.2.	Baserriaren gainbehera	37
2.2.3.	Frankismoaren langile lkusezinak	38
3.	BIZITZARI AURRE EGIN BEHARRA. GARAIKO TESTUINGURUA PROTAGONISTEN BIZIPENETATIK	43
3.1.	Guda eta miseria	44
3.2.	Frankismoak bultzatutako kontrola eta errepresioa.....	52
3.3.	Industrializazioaren "Boom"-a.....	54

4.	LAN MUNDUA HERNANIN: IRUDIAK ETA EMAKUMEEN BIZIPENAK	59
4.1.	INDUSTRIA.....	60
4.1.1.	Hamaiketako orduan soka saltora jolasten.....	62
4.1.2.	Gogorra eta epemuga jakinarekin	65
4.1.3.	Langile Borroka	73
4.1.4.	Hezkuntza mugatua	77
4.1.5.	Lan bikoitza, bi aldiz gutxietsia	79
4.2.	BASERRIA	85
4.2.1.	Baserriko lan banaketa	88
4.2.2.	“Larre motxian hezitutakoak”.....	90
4.2.3.	Baserriko produktuak merkaturatzea	92
4.2.4.	Lan, lan eta lan, aisialdirako tarterik gabe!	99
4.2.5.	Ezkonduta eta gero; hobeto!.....	105
4.3.	ETXEA	112
4.3.1.	Txiki txikitatik	114
4.3.2.	“Lana ez zen” lan nekeza	125
4.3.3.	Haurtxo txikia negarrez dago, ama emaiotzu titia... ..	135
4.3.4.	Sarearen garrantzia	140
4.4.	MERKATARITZA.....	150
4.4.1.	Eskola utzi eta etxekoei laguntzen hasi.....	156
4.4.2.	Ordutegirik gabe	163
4.4.3.	Umeak edukita ere segi!	169
4.4.4.	Kanpotik eta barrutik, lanak ezin bukatu	173
4.5.	OSTALARITZA.....	178
4.5.1.	Etxeko alabak barraren beste aldean	180
4.5.2.	Aita gaiztoa tabernan dago, pikaro jokalaria	187
4.5.3.	Amantalaren atzean gordetzen dena	198
4.5.4.	Aldaba jo eta batetik bestera	205

5.	ONDORIOAK	209
6.	AMAIERA ETA ESKERRAK	215
7.	ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA	218





"Nik ez det lanik egin eta..."

Hauxe da emakume langileen bizipenak jasotzera joan garenean jaso dugun erantzuna. Errealitatea ordea bestelakoa da, ikerketa lan hau horren erakusgarri.

Izerdi tantaz tanta, lan eta lan aritu diren emakume guztientzat. Beren malko, irribarre, indar... eta izerdiz gaude hemen, eta aurrera goaz.

Langile nekaezin eta ikusezin guztientzat!

*Maialen Apezetxea Lujanbio
eta Mikel Ozaita Azpiroz*

HERNANI, 2016KO OTSAILA

1. SARRERA

1.1. TESTU HONEN ABIAPUNTUA ETA HELBURUAK

Ikerketa honen abiaburua Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak bultzatutako ikerketa beka izan da. Hain zuzen ere, lan hau, Hernaniko Udalak sustaturiko ikerketa beken hirugarren lana da; oraingo honetan emakumeek lan munduan izan duten ekarpena jaso nahi izan da.

Hori dela eta, esku artean duzuen ikerketa honen bidez, 1939-1975 urte bitarteko Hernaniko emakumeek egindako lan ezberdinen testigantza bildu nahi izan da, ahoz eta irudiz; emakumeei eurei, ahotsa emanez eta Hernaniko historia osatu nahian. Izan ere, egindako hainbat ikerketa lanetan, eta herriko memorian, emakumeak oro har, bigarren mailakotzat hartuak izan dira eta beraz, euren parte-hartzea ezkutatua geratu da. Ikerketa honek, egoera horri buelta eman eta emakumeek herriari, kasu honetan Hernaniri, egindako ekarpenari argia eman nahi izan zaio.

Laburki, egindako ikerlanaren helburuak hauek izan dira:

- Hernaniko emakume langileek egindako lanak argazki bidez jaso, sailkatu eta ezagutaraztea.
- Argazki horiez baliatuz, hauen atzean ezkututzen den errealitatea ezagutaraztea.
- Hernaniko historia osatzea; emakumeek bizitako errealitatea emakumeen ikuspegitik jasoaz.
- Emakumeei ahotsa ematea, euren bizipenak oinarri hartuz.
- Emakumeek lan arloari dagokionez bizitutako subordinazioa azalaraztea eta egoera hori eragiten zituzten elementuak ezagutzea.

1.2. EGINDAKO LANAREN KRONIKA LABURRA

Ikerketa honen ardatz nagusia irudi grafikoak dira, lan esparru ezberdinetako argazkiak alegia. Hauek lortzeko bi bide jarraitu dira. Batzuetan, kontaktu batzuen bitartez argazkiekin topo egin da. Hauek, emakume konkretu batzuegana eraman dute. Beste batzuetan, pertsonak identifikatu dira, esparru batzuetan lan egin zutela jakin eta berengana jo da elkarrizketa egin eta argazkien bila.

Bi bideak jorratu arren, ez da batere lan erraza izan. Frankismoa deritzan garaia izan da aztergai, gerra baten ondorenaren diktadura aldia. Gerra oste guztiak bezala, egoera larria izan zen. Egoera horretan beraz, ez zen batere ohikoa egun gertatzen den moduan, norberak argazki kamera bat izatea, hori luxua zen. Argazkilari profesionalak izan baziren, baina guztiek ez zuten horretarako aukerarik. Hau guztia dela eta, ez zen batere ohikoa argazkiak ateratzea, are gutxiago lan esparruetan. Garai horretan gehienbat ospakizun bereziak gogoan izateko ateratzen ziren argazkiak, ez egunerokotasunean, ez lan egoeretan.

Hernaniko artxibora ere egin da bisita baina bertan ez dugu aurkitu ikergai izan den garaiko emakumeen argazkirik. Hau horrela, Hernaniko Udalarekin batera deialdi publiko bat egin zen argazkiak eskuratzeko asmoz. Oso argazki gutxi jaso arren, gehienak baliogarriak izan dira, argazki horien atzean ezkutuan zeuden testigantza ezberdinak jasotzeko aukera eman dutelako.

Bestalde, lan esparru ezberdinetan jardun zuten emakumeak identifikatzeko, hernaniar emakume baten laguntza berezia izan da. Emakume hau jaiotzez hernaniarra eta oso herrikoia izateaz gain, argazki zaharrak asko gustatzen zaizkio eta hainbatetan jarri izan ditu ikusgai lan egiten duen tabernan erakusketa moduan. Horrez gain, herriko jende asko ezagutzen du, eta harreman handia du adinean aurrera doazen emakumeekin. Berak ireki ditu elkarrizketatuak izan diren emakume askorengana iristeko bideak.

Denera 19 elkarrizketa egin dira. Guztiak emakumeei egin zaizkie. Halaber, elkarrizketa hauetan parte hartu duten emakumeen izenak ez dira errealak, asmatutako izenak baizik, euren anonimotasuna errespetatze aldera. Izan ere, elkarrizketa batzuetan hainbat gai delikatu egon dira, eta askotan esan dute “esan deten hori ez jarri e?” eta horrelakoak. Hori dela eta, nahiago izan da benetako izenak ez erabiltzea elkarrizketetatik ateratako testigantzetan. Argazkietan aldiz, argia da hori ezin dela egin, eta beraz, hemen benetako izen-abizenekin ageri dira emakumeak; euren baimenez, noski.

Elkarrizketez gain, eztabaida talde edo taldekako elkarrizketa bat egin da. Bertan hamabost bat gizon-emakumek hartu dute parte, adinez nagusiak denak ere, eta baserri ingurukoak.

Elkarrizketa guztiak bereziak izan dira bere horretan, eta hemendik eskertu nahi da etxeko ateak ireki dituztenen prestutasuna euren bizi-tzak kontatzeagatik eta euren familia albumetan *muturra* sartzen uzteagatik.

Azkenik, argazki eta elkarrizketen bitartez lortutako informazioa borobiltzeko asmoz iturri ezberdinetara jo da: datu demografikoak, historia dokumentuak, datu estatistikoak... , eta bereziki Hernaniko historiaren inguruan idatzitako hainbat lanetara jo izan da, zeinetan emakumeen ahotsa entzuteko parada izan baita, orain urte batzuk horrelako beka batean argitaratutako lana esaterako, “Ahotsak”.

Bilaketa eta bilketa horren emaitza ikerketa luze eta sakonago batean bildu bazen ere (Hernaniko Artxiboan, Udal Liburutegian eta Berdintasun Arloan jaso dagoena), Jone Miren Hernández García-ren laguntzaz, berau laburtu eta egokitu da, argitalpen dibulгатibo gisara. . Horren gainean, azkenengo ohar bat. Bibliografia eta elkarrizketa gehienak gazteleraz jaso badira ere, ikerketa euskaraz egitea deliberatu da, hautu pertsonalarengatik eta euskara normalizatze bidean, ikerketa alorrean ere, ekarpena egin nahi izan delako. Halere, bibliografiako erreferentzia eta elkarrizketatuen pasarte ugari jatorrizko bertsioan bildu dira, hitzen esana eta esateko modua errespetatzeko asmoz. Barkatu horrek endredorik sortzen badu.

1.3. ZER AURKITUKO DU IRAKURLEAK TESTU HONETAN?

1.3.1. Argazkiak

Argazkiek funtzio asko izan ditzakete. Ikerketetan, argazkia ikerketaren osagarri izan daiteke edota ikerketaren oinarri. Orohar, jendarteak, oroimena elikatuko duen gordailu gisa darabil, bizitako momentuak oroitarazteko elementu gisa. Beste batzuetan aldiz, argazki hori jendar-

teak partekatuko duen sinbolo bilaka daiteke edota garai bat irudikatzen duen sinbolo partekatua. Irudi batek ezkutatuta dagoen errealitatea azalerazi dezake eta jendartea mugitzeko elementu transformatzailea izan daiteke. Argazkiak memoria bizirik mantentzeko erabiltzen ditu gizarteak. Argazkiak bizitako errealitate zatikatua gogorarazteko edota ilustratzeko dokumentu grafikoak dira. Norbanakoaren oroitzapenak gogorarazteaz gain, argazkiak testuinguru bati itsatsiak daudenez, jendartearen oroitzapenen gogorazleak izan daitezke.

Arrazoi hauengatik guztiengatik, lan honek argazkiak erdigunean jarri nahi izan ditu, memoria historikoa berreskuratzeko modu bat izan daitekeelako, kasu honetan Hernaniko emakumeen memoria historikoa.

Lortutako argazkietan ere, ez da errealitate guztia agertuko eta argazkiek zer ezkutatzen duten ikertzeak ikerketaren beste helburu bat izan beharko luke. Argazkietako protagonistak zein diren, zein agertzen den bigarren maila batean eta zein ez den agertzen kontuan hartu behar da. Esanda geratu den moduan, normalean eta garai bateko argazkietan bereziki (askoz gutxiago ateratzen zirelako), ospakizunak eta une bereziak gogoan izateko intentzioarekin atera izan dira eta laneko argazkiak aldiz ez direla izan oso ohikoak aurreikusi daiteke. Izan ere, gaur egun argazkiak ateratzea “denon eskura” badago ere, laneko argazkiak izatea ez da oso ohikoa. Ikertu den garaian gainera, argazkiak ateratzea gutxi batzuen esku zegoen, boteredunen esku batez ere. Boteredunek beren boterea legitimatzeko erabiliko dituzte argazkiak gainera. Beraz, errazagoa izango da, fabrika baten irekiera ekitaldiko argazkiak lortzea, fabrika bateko ohiko jarduneko argazkiak lortzea baino. Ildo beretik pentsa daiteke emakumeak lan esparruan agertzen diren argazkiak gizonezkoenak baino urriagoak izango direla. Argazkiak egiteko baliabideak gizonen esku zeuden orokorrean. Ondorioz, argazkietan emakumeen *ikusezintasun bikoitza* egongo dela agerikoa da, bata langilea izateagatik eta bestea emakumea izateagatik.

1.3.2. Testigantzak

Aurretik aipatu den moduan, norbanakoaren, familiaren, jendartearen edota nazioaren memoria transmititzeko berebiziko dokumentuak izan daitezke garaiko argazkiak, oroimen piztaile eta bizi izandakoaren ilustratzaile; garaiko testigantza eta ikerketen muin edota osagarri moduan.

Argazkiok ordea, testuinguruaren baitan kokatu beharko dira -errealitate zatikatu bat adierazten dutela jakitun-, eta garaiko balio sistema eta teknologiaren baitan ulertu beharko dira. Bizi izan zutenek oroitu dezakete bere baitan, baina bizi izan ez zutenek, testuingurua eta protagonisten bizipenak aintzat hartu beharko dituzte.

Memoria horretara iristeko eta memoria hori argitara emateko garrantzitsua da bildutako argazkien inguruan testigantzak jasotzea. Arike-ta hau argigarria izan badaiteke ere, batzuetan mugatua gertatuko da. Jakina da memoria selektiboa dela. Oroitzapen jakin batzuk ezkuta-tu egingo dira, lotsa, beldurra, intimitatea babestea etabar tarteko eta ahanzturari bidea emango zaio. Gainera, kontuan hartu beharko da, bizipen edota argazki batzuk soilik azaleratu nahiko direla edota oroitzapen edo argazki batzuk ez direla azaleraziko testigantza emango duenarentzat garrantzitsuak ez direlako. Gerta liteke ere, garai hartako gertaera ohikoak jakintzat ematea eta ilunpean geratzea. Beraz, errealitate eta egia guztia argitzea ezinezkoa izango da eta muga hori kontuan izan beharko da.

Edonola ere, ikerlariari dagokio, hutsune horiek identifikatu eta galdera egokiekin informatzaileei argazki eta bizipen horiek azaleratzea, baina baita ere, argazkien bidez agerian geratzen dena aztertzea, ezagutzea eta ezagutaraztea dokumentu grafiko hori memoriaren transmisio elementu izan daitekeelako. Azken urteetan memoria historikoak jendartean piztu duen interesak balio izan du argazkiek duten balio publiko eta soziala aldarrikatzeko. Irudiak eremu pribatua gainditu eta denbora nahiz espazio baten testigu bilakatzen dira. Horregatik da interesgarria argazkiei galdetzea eta argazkiei buruz galdetzea. Horregatik, argazkiekin batera, galderen aurrean topatutako hainbat erantzun bildu dira testu honetan irudiz osatutako kronika burutzeko asmoz.

1.3.3. Begirada zehatz bat

Ikerketa egiteko abiapuntua Gizarte eta Kultur Antropologia izan da. Antropologiak jendartea eta giza kulturak aztertzen ditu, hauek deskribatuz, azalduz, analizatuz eta interpretatuz eta honen bidez giza talde ezberdinen izaerak, sinesmenak, ohiturak, bizitza soziala, jardun ekonomikoak, politikoak eta erlijioa bezalako alorrak azaltzea du xede. Horretarako, etnografia du bere tresna garrantzitsuena, protagonisten ahotsari lekua emanaz. Diziplina honek adar eta lan arlo ezberdinak biltzen ditu bere baitan eta aniztasun horren barruan ikerketa hau Antropologia Feministaren eta Antropologia Bisualaren baitan kokatzen da.

Antropologia Feministak genero harremanak ikertzen ditu, jendarteko harreman hierarkizatuak deskribatuz eta hauek aldatzeko ekarpenak eginez. Beraz, ikuspegi politiko jakin bat hartzen du ikerketa honek. Gainera, garaiko testuinguru soziopolitikoak kontuan hartuz, frankismoaren diktadura faxistak hierarkizazio hau naturalizatu nahi izan zuen bere mekanismo guztiak erabiliz. Horrexegatik, ikuspegi feministarekin historia ofiziala birrindu nahi da historia soziala idatziz.

Antropologia Bisuala, izenak dioen moduan, antropologiaren eta irudiaren uztarketan datza. Irudiaren bidez errepresentazio sozialak eta kulturalak transmititzea du xede. Kasu honetan, garai hartako Hernaniko emakume langileen argazkiak bildu dira eta horiek erabiliko dira oinarri etnografiko gisa.

Ikerketa honetan lantzen den gai zehatza lana da. Lana ikuspegi zabal eta feminista batetik ulertzen da; hau da, esfortzu fisiko eta psikologikoa eskatzen duen jarduera jarraitu gisa. Izan ere, lana lan ordaindu gisa hartzen bada, hots, enpleguari soilik erreferentzia eginaz, emakumeei atxikitu izan zaizkien (eta oraindik ere atxikitzen zaizkien) lan gutxietsi eta ikusezinak, zaintza kasu, ez dira kontuan hartzen, nahiz eta lan hauek biziraupenerako eta sistema kapitalista patriarkalaren jarraipenerako ezinbestekoak diren; are gehiago, sostengua dira. Oraindik ere, etxeko lan hauek ez dira guztiz lana kontsideratzen, balorazio sozial gutxikoak izaten jarraitzen dute eta emakumeen esku geratzen dira batik bat; eta ez jendartearen erantzukizun modura. Sexuaren arabera lan banaketak indarrean jarraitzen du, gaur gaurkoz.

Hau guztia dela eta, beharrezkotzat jotzen da "lana" kontzeptu beraren hausnarketa egitea, eta lana modu zabalago eta konplexuago batean ulertzea. Hots, lana lan ordaindutik haratago kokatu behar da, merkatu ekonomikoaren produkzio soilaz haratago; produkzioa eta erreprodukzioa elkarreraginean dauden sistema beraren bi aldeak bezala. Lana aberastasuna produzitzera bideratutako giza esfortzua bada, aberastasun kontzeptu hau bere esanahi zabalenean ulertu beharko litzateke; giza aberastasuna, aberastasun materiala, kulturala, artistikoa, emozioen aberastasuna...

Horrexegatik, ikerketa honetan lan alor ezberdinak aukeratzean lanaren ikuspegi zabala hartu da ardatz. Horren isla dira testu honetan biltzen diren lan arlo, enplegu eta eginbehar ezberdinak, industria, merkataritza, ostalaritza loturikoak baina, baita ere, baserria eta etxeari loturikoak. Emakumeek denetan parte hartu baitute, denetan ekarpena eginez.

2. BIZITZEA TOKATU ZITZAIENA...

2.1. FRANKISMOA (1939-1975)

1936ko altxamendu faxista II. Errepublikaren baitan ematen ari ziren aurre-rapauso guztiak eten zituen. II. Errepublika lorpen handiko garaia izan zen emakumeentzat, jendartean, politikan eta hainbat esparrutan beren lekua lortzen ari baitziren pixkanaka.

Ezin daiteke esan, Errepublika garaian egoera guztiz positiboa zenik, eta emakumeen eskubideen aldeko aldarria indartsu zegoenik, baina egoera soziopolitiko berriak aukera ematen zuen jendarte berri baterako oinarriak ezartzeko; esperantza ugari zegoen bertan jarria. Hala ere, aukera berri hauen kontra agertzen ziren, besteak beste, tradizioaren pisua, hezkuntza, jendartean sexuen araberako ezberdintzea, eliza kontserbadorearen eragina, eta alderdi progresistenen interes falta. Itxaropen aldi honek ibilbide motza izan zuen baina; 1936. urtean Espainiako Gerra Zibila hasi zen; hemen ere emakumeek hainbat eginkizunetan hartu zuten parte.

1939. urtean bukatu zen gerra, bando nazionalaren garaipenarekin eta Francoren erregimen diktatoriala hasi zen. Hemen hasi eta 1975. urtera arte iraun zuen. Denbora horri deitzen zaio Frankismoa. Frankok estatu berri bat eraiki zuen, guztiz estruktura hierarkizatua zuena; bere zutabe nagusiak nazionalindikalismoa eta nazionalkatolizismoa izanik.

Erregimen berri honek errepresio bortitza erabili zuen eta aurreko garaian lortutako eskubide politiko eta indibidualak ezabatu zituen. Diktaduraren errepresioak emakumeek hartuta zuten emantzipaziorako bidea itxi zuen; desagertu egin zituen eremu publikotik eta euren ahotsa isilarazi. Errepublikak onarturiko lege aurrerakoi guztiak bertan behera geratu ziren eta 1889ko Kode Zibila berrezarri zuen. Horrez gain, lan eremuko hainbat lege onartu ziren, emakumeak lan merkatutik urruntzeko helburuz, ezkontza eta amatasunaren aldeko pizgarriekin batera. Lan merkatuarekin zuen harremanaz gain, sexuen arteko harremanak ere eraldatu zituen honek guztiak. Errepresioa bortitza izan zen esparru guztietan. Aipatutakoez gainera, garrantzitsua, euskara eta euskal kulturak jasandakoa ere. Laburbilduz, esan daiteke, Frankismoak atzerapausoa suposatu zuela zentzu eta arlo guztietan. Eta honetan izugarrizko pisua izan zuen eliza katolikoak; erregimenarekin batera bizitzako arlo guztietan bere doktrina inposatzeari ekin baitzion, moralaren eta jainkoaren izenean.

Errepublika garaian emakumeak bozkatzeko itxaroten, Hernaniko Biteri eskola aurrean, 1933.

Iturria: Kutxa Fototeka.

Bozkatzerako garaian, emakumeak alde batetik eta gizonek bestetik egiten zuten.



Frankismoaren barruan bi etapa bereiz daitezke: lehen etapa 1939-1959 urte bitartekoa gutxi gora-behera eta bigarren etapa 1960-75 artekoa. Lan honetan, gehienbat lehen etapa honetan jarriko da indar-gunea, garai honetan ezarri baitzituen Frankismoak bere diktadura ezaugarritu zuten oinarriak. Esan dezakegu, lehen etapan, erregimenak genero politiken hari ideologikoa mantendu zuela; bigarrenetik aurrera aldiz, gauzak pixkanaka aldatzen hasi ziren, gehienbat ekonomia irekitzeak ekarritako ondorioei esker.

2.1.1. Frankismoaren lehen etapa (1939-1959): emakumeak “etxeko aingeruak”.

Francoren erregimenarentzat emakumea azpitik zegoen izakia zen, ez jendarte ez politikan, lekuri ez zuena, eta beraz, etxekoandre eta ama izatera bideratua zegoena. Ideia hau tradizionalismo katolikoan eta biologian oinarritzen zen. Emakumeak etxeko zereginetara mugatu eta gizonen menpe egon behar zuen (lehenengo aita eta ondoren senarraren menpe), etxetik kanpo ezin zuen lanik egin, eta bizitza publikoan ezin zuen parte hartu. Biologia oinarri hartuta, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak agerian jarri eta emakumeak ama izatera mugatu behar zuela defendatzen zen. Helburu honek, emakumea alor ekonomiko, sozial eta juridikoan diskriminatuta egotea justifikatzen zuen.

Faxismoak emakumea “arrazaren tenplu” kontsideratzen zuen, haurrak ekarri eta hauek erregimenaren baloreen arabera heztea eta sozializatzea izanik bere ardura nagusia. Gainera, etxetik kanpo lan egitea estatuari eta aberriari traizioa egitea zen; ulertzen baitzen ezinezkoa zela etxetik kanpo lan eginda, etxe barruko funtzioak ondo betetzea.

Idea hauek berretsiz, Frankismoak emakume idealaren eredua garatu zuen; nazionalismoaren printzipioetan oinarrituta, eta diskurtso medikoa erabiliz. Aipatu moduan, II. Errepublikak emakumearen eredu aldaketak ekarri zituen eta beraz, emakume eta gizonen bete beharreko paper eta rolak zalantzan jarri. Honek ekarri zezakeenaren beldur, diktadura Frankistak “emakume idealaren eredua” bultzatu zuen eta ondorio larriak eragin zituen sexuen arteko harremanetan. Eredu hau, emazte eta ama on eta eredugarri izatean zegoen oinarrituta, etxeko aingerua edo *ángel del hogar* deritzanean. Katolizismoak pisu handia izan zuen emakume kristauen osaketa honetan; morala eta emakume dezentearen inguruan irakurketa zorrotza egin zuen, eta baita mugak ezarri ere. Balore sistema jakin bat bultzatzen zen gai ezberdinen inguruan: etxe-ko lanak, janzkera... Hala ere, aipatu behar da ideologia eta eredu honek ez zuela eragin maila berbera izan jendarte klase guztietan.

Lan pedagogiko honetan garrantzi handia izan zuen propagandak, emakumeentzako aldizkariak, batez ere, klase ertainekoei zuzenduak izaten ziren eta hainbat gai “femenino” lantzen ziren bertan: etxerako aholkuak, seme alaben heziketa, moda, emakumeen portaera zu-

zena, edertasuna... Aldizkari hauek erabili zituen erregimenak, besteak beste, ezarri nahi zituen emakume eta gizon rola zabaltzeko. Emakumearen ideal honetan eragin nabarmena izan zuen 1934an sortutako "Sección Femenina" delako erakundeak. Hau emakume frankisten erakunde ofizial bakarra izan zen.

Erakunde honek emakumearen lekua etxea zela defendatzen zuen; eta senarra eta haurrak zaindu ahal izateko eta emakume perfektua izatera iritsi ahal izateko saiakera bizia egin zuen. Horretarako Gizarte zerbitzua (servicio social) delakoa egitea derrigortu zuten, ezkongabeak edo alargunak ziren 35 urtetik beherako emakumeentzat. Halere, 50eko hamarkadatik aurrera, erakundea pixkanaka indarra galtzen hasi zen; eta botere hau eliza eta talde katolikoetara pasatu zen.

Frankoren diktadurak langileen bizi baldintzen okertzea ekarri zuen; lan baldintzetan atzerakada nabarmena gertatu zen eta langileen eskubideak ordezkatzeko zituzten erakunde politiko eta sindikatuak aurkako errepresio bortitza indarrean jarri zen. Langileen zapalkuntza bermatzen zuten arauak jarri ziren indarrean, interes kolektiboak defendatzea galarazten zutenak. Emakumeak lan merkatuan parte hartzea ekiditen saiatu zen erregimena; horretarako hainbat lege eta arau onartu ziren. Horien helburua emakumeak etxeko jardueretara mugatzea zen; are gehiago emakumea ezkondua bazegoen. Esate baterako, 1942tik aurrera lanaren inguruko araudiek "Reglamentaciones de Trabajo" deiturikoei, ezkontzekoan emakume langileek euren postua utzi behar zutela ezartzen zuten, aurrez ezarritako dote baten trukean. Estatuaren menpe zeuden enpresek, esaterako, emakumeak idatzi bat sinatzera behartzen zituzten eta ezkontutakoan lanari uko egitea beste aukerarik ez zuten. Nabarmentzekoa da halaber, emakume eta gizonen arteko soldata ezberdintasuna hainbat legetan jasotzen zela. Ezin aipatu gabe utzi 1946ko legea, familia laguntzari zegokiona, zeinak emakume ezkonduaren lana zigortzen baitzuen, aparteko diru kopuru edo plus familiarra kentzearekin, suposatzen baitzen emakumeak amari zegozkion lanetan (etxean) jardun behar zuela.

Erregimenarentzat oso garrantzitsua zen emakumea etxean egotea. Lan merkatuan jardutea feminitatearen eta amatasunaren aurkako jarrera zela argudiatzen zen. Halere, etxetik kanpo lan egiteko jarritako traba guztien gainetik, emakume ugari izan ziren, etxeaz gain, lan merkatuara jo zutenak, legeak zioenaren aurka; familiako biziraupenerako beharrezkoa baitzuten, batez ere, klase ertain eta baxuko familiek. Bestalde, ohikoak ziren etxean egitekoak ziren lanak ("trabajos a domicilio" delakoak). Lan hauek gehienbat emakumeek egiten zituzten soldata eskasaren truke. Jarduera hauek erregimenak ontzat ematen zituen, baita lanaldi erdiko jardunak ere, ulertzen baitzen bi lan mota hauek etxeko eginbeharrekin bateragarriak zirela. Beraz, Frankismoak bultzatutako familia nuklear eredu hori errealitatea baino, erregimenak lortu nahi zuen eredu ideala izan zen, errealitatetik urrun.

Nekazal giroan emakume eta neska gazteak landa eremuko lan guztiez arduratzea ohikoa zen. Garai honetan gainera, herri eta hirietan lantegi asko sortzearekin batera, familietako gizon askok baserriko lana utzi eta lantegietara jo zuten. Emakumeak baserriko arduradun nagusi bilakatu ziren, etxeko gaztetxoek laguntzarekin. Hiri guneetan gailentzen zen lana aldiz, neskamearena zen, (jostunak, *plantxadorak*, *labanderak*), baita fabriketako ere, nahiz eta gizonek baino askoz ere gutxiago kobratu eta inolako ardurarik ez zuten behe postuetan jardun. Oso emakume gutxi iristen ziren unibertsitatean, ez zuen zentzurik, estatuak emakumeei hainbat lanbidetan aritzea debekatu baitzien. Soilik tradizionalak emakumeei lotutako lanbideetarako formazioa ahalbidetzen zitzaizkien: irakaskuntza, erizaintza, puerikultura... Letretako ikasketak goi mailako emakumeei soilik ahalbidetzen zitzaizkien, beren senarrei atseginarazteko asmoz.

Horrez gain, aipatu beharra dago erregimenaren hasieratik generoaren arabera lan ezberdinak ezarri zirela eta ondorioz, "emakumeen karrerak" edo "emakume lanbideak" terminoak erabiltzen ziren. Determinismo biologikoak eta erregimenak sustatzen zituzten generoen arteko ezberdintasunek emakumeentzako egokiagoak ziren lanbide hauek justifikatzen zituzten. 1973. urtera arte emakumeek ez zuten lortu lanbide guztietan jarduteko eskubidea (Falcon, 1981).

Argi eta garbi ikusten da, Frankismoaren aburuz, nork izan behar zuen etxera ogia ekarri behar zuena. Emakumeek etxetik kanpo lan egin bazuten, behin eta berriz errepikatzen zen etxeko ekonomiari "laguntzatxo" bat eskaintzeko zela, baina lan produktiboa gizonak egiten zuela. Aipatzekoa da lana eta emakumearen alor hau estrategia moduan erabili izan dela denboran eta leku ezberdinetan. Komeni izan denean, emakumeek lanbide ezberdinetan jardun baitute (gerra garaitan esaterako); eta beste garai batzuetan, gerra ondorenean, edota krisi ekonomiko garaietan, emakumeak lanetik bota edo uztera behartu zituzten, "etxera bueltatzeko" propagandaren laguntzaz.

Emakumeen lan eremua baldintzatzearekin batera, seme-alabak izatera bultzatzeko mota guztietako neurriak ere martxan jarri ziren: haurrak izateagatik diru laguntzak, antisorgailuen erabileraren debekua, abortoaren debekua, adulterioa zigortzeko irizpideak...

2.1.2. Frankismoaren bigarren etapa (1960-1975): aldaketetarako bideak irekitzen

Frankismoaren bigarren etapa honetan, gauzak pixkanaka aldatzen hasi ziren eta emakumeen egoera hobetzen. Erregimenak ekonomia arloan ezarritako autarkiarekin amaitzea erabaki zuen, eta honek liberalizazio prozesu bat eragin zuen arlo guztietan. Ekonomia arloko aldaketekin batera, hainbat aldaketa soziopolitiko garatuz joan ziren paraleluki. Horrela, 50. hamarkada bukaeran, emakumeen inguruko legedia eta errealitatearen arteko ezberdintasuna nabarmena zen. Pixkanaka hainbat ahots entzuten hasi ziren, lege aldaketak eskatzeko,

baita Frankismo barruan ere. Garai honetan dagoeneko emakumeak ez ziren gizonen azpitik kokatzen; ezberdin baizik. Emakumeak arlo profesionalera eta alor publikora txertatzearen beharraz hitz egiten hasi zen. Hori bai, lanbide eta ikasketa jakin batzuetara bideratzen saiatu ziren. Autarkiaren ondoren, erregimenak bizi zuen garaiak, eta herrialdearen irudi moderno bat emateko beharrak, aldaketa legalak eta eraldaketak ekarri zituen, emakumeei ere eragin zielarik. Legearen onarpenarekin, teoriarik, emakumeek gizonen eskubide berak zituzten lanbide baten jarduerarako eta jarduera politikorako, baina mugak oraindik ere handiak ziren. Adibidez, karrera judizial batera sartzeko galarazpena, lanpostu batean jarduteko edota soldata kobratzeko, aita edo senarraren baimenak bere horretan mantentzen baitziren.

Hezkuntzari dagokionez, 1960. hamarkadatik aurrera, pixkanaka haziz joan zen emakumeen presentzia unibertsitate ikasketetan eta hainbat lanpostutan (kualifikazio eskasekoak gehienak). Erregimenaren politika ere aldatuz joan zen, analfabetismoa murriztera bideratu zelararik. Hala ere, mutilen formazioari neskenari baino garrantzi gehiago ematen zitzaion bai hezkuntza formalean baita familia barnean ere.

Oro har, Frankismoaren azken aldi honetan emakumeak askatasun handiagoz bizitzen hasi ziren, debekuak leunduz joan ziren eta espazio publikoa gehiago erabiltzen hasi ziren, baita beraien jarrerak, janzkera modua... ere, nahiz eta emandako aldaketa asko, azalekoak izan.

Amatasunaren arloan ere aldaketak eman ziren, jada amatasuna ez zen betebeharrak bezala inposatzen. Erregimenaren ikuspegi aldaketa honek ekonomiarekin izan zuen zerikusia. Espainiaren politika ekonomikoa industriaren garapenean zentratu zen. Hori lortzeko langile kopurua areagotu beharra zegoen eta gizonezkoen esku lanarekin ez zen nahikoa, gehiago behar zen, beraz, emakume langileen kopurua handitu beharra zegoen. Emakumeei erraztasunak jartzearen, haurtzaindegi eta zahar etxeak eraikitzen hasi ziren. Etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeen kopurua igo bazen ere, Europakoarekin alderatuz, baxua izaten jarraitzen zuen. Gainera, gehienak gaizki ordaindutako eta espezializatu gabeko lanpostuetan jardun zuten. Hala ere presentzia nabarmen igo zen, industrian eta zerbitzuen sektorean gehienbat.

Propaganda arloan ere nabaritu ziren aldaketa hauek; emazte-ama onaren ereduak nagusi izaten jarraitu bazuen ere, pixkanaka gai ezberdinak lantzen hasi ziren: musika, moda, edertasuna, lanbideak... Hamarkada hauetan, kontsumismoa ere zabaltzen hasi zen jendartearen, eta beraz, emakumeen soldata ongi baino hobeto zetorren familiako ekonomiarentzat. Immigrazioak eta turismoak ere ohiturak aldatzearen eragin zuten herritarren artean eta aldaketak bultzarazi maila politikoan.

Gainera, bigarren garai honetan aipatzekoa da, greba orokorretan emakumeek jokatu zuten papera, bereziki Asturias, Katalunia eta Euskal Herrian. Urte hauetan zehar eman ziren mugimendu sozialen aldarrikapenetan geroz eta parte hartze handiagoa izan zuten: lan baldintza hobeak lortzeko borrokan, bizitzaren garestitzearen aurkakoak, preso politikoan aldeko borrokan...

Emakumeen aldarrikapen propio eta borroka tresna modura Movimiento Democrático de Mujeres (MDM) sortu zen, lehen emakumeen mugimendu autonomoa garatzen saiatu zena. Elizak eta "Sección Femenina" delakoak sortutako emakume irudiaren kontra egin zuen, gai sozial eta politikoetan sentsibilizatuz.

Euskal Herriari dagokionez, hegoaldean, egoera politikoa dela medio, mugimendu feministak ez zuen garapen antolaturik eduki 1975. urtera arte. Urte honetatik aurrea oso indartsu ekin zion emakumeen eskubideen aldarriari, herrialde ezberdinetan asanbladak sortuz. Ezaguna da Basauriko 11 emakumeen epaiketa (1979), abortu askearen aldeko borrokan aitzindari. Bestalde, 1977an Euskadiko I. Topaketa Feministak egin ziren.

Ipar Euskal Herrian aldiz, ideia feministen agerpena lehenago eman zen, Frantziako mugimendu feminista erreferentzia izanik. Maila teorikoan nahiko garatua zegoen nazio eta klase askapenerako ereduaren barnean, errotutako ikuspuntu feminista hasi ziren bultzatzen. Lehenagotik funtzionatu arren, Euskal Emazteak Beren Askatasunaren Alde-ko kideak 1976an hasi ziren EEBAA siglak erabiltzen. Ezker Abertzalearen barnean eratu zen lehen talde burujabea izan zen. Bere helburua, nazio eta gizarte askapenerako borroka eduki ez patriarkalaz hornitzea zen.

Frankismoko 40 urte hauen eragina oso handia izan da jendartean, Europako beste herrialdeak aurrera pausu garrantzitsuak ematen zizuten bitartean, erregimen Frankistak aldaketa oro galarazi baitzuen; eta atzerakada nabarmena eragin zuen bizitzako esparru guztietan.

2.2. FRANKISMOA EUSKAL HERRIAN ETA HERNANIN



*Falangistak, guardia zibilak eta bando nazionaleko kideak Hernanin desfilatzen, San Juan Bautista elizan izandako ekitaldi erlijiosoa bukatu ostean, 1936an.
Iturria: Kutxa Fototeka.*

Hernaniko testuingurua Euskal Herriko testuinguru sozialarekin doa loturik ezinbestean, Hernaniko errealtate soziala bakarra bada ere, partekatua baita. Horregatik, 1939-1975 arteko aldiari "Altxamendu Faxistak" eta ondorengo "Diktadura Frankistak" berebiziko garrantzia izango dute Hernaniko testuinguru sozialean, ideologiaren inposaketak eta herritarren jazarpenak Hernaniko bizitza erabat baldintzatu baitzuten. Ezin ahaztu gaur egungo Hernani, garai hartako Hernaniren oinordeko dela eta gaur egungo errealtate soziala ulertzeko, ezinbestean, garai hura aintzat hartu beharko da.

Gauzak horrela, 1939-1975 aldi honetan, Hernanik eta Euskal Herriak, Frankoren diktadura jasan behar izan zuen honetan, sekulako aldaketa soziala bizitu zuen Hernanik, ordura arteko aldaketa handienetarikoa seguruenik. Testuinguru soziala deskribatzea eta ulertzea ezinbestekoa da hortaz.

2.2.1. Errepresioa eta Miseria. Altxamendu Faxista eta gerra ondorena.

II. Errepublikaren baitako Gerra aurreko Hernani hartan, 6.600 herritar inguru bizi ziren. Donostiatik gertu izatea eta Urumea ibaia eta trena bertatik pasatzea ere kontuan hartzeko eragileak ziren. Baziren fabrika ugari, nahiz eta 1929ko nazioarteko "Crack"-ak eragin nabarmena izan Hernanin bertan. Era berean, baserriek indar handia zuten, auzoetan bilduz. "Kaxkoak" berriz, herrigune izaera betetzen zuen. Auzoetan euskara indartsu zegoen, baina ordurako "Kaxkoan" gaztelarak espazioak eta funtzioak irabaziak zituen (Auzo eskoletan euskaraz irakasten zen eta gaztelarez herrigunean, esaterako).

Errepublika garaian ideologia berriek indarra hartu zuten; errepublikarrak eta ezkertiarak (sozialistak, komunistak eta anarkistak) edota abertzaleak batik batik. Era berean, erlijio katolikoak eta elizak indar handia zuten eta igandetako mezak betebeharreko errito soziala izaten jarraitzen zuen. Hauek, bi txandatan izaten ziren, goizean pobreena eta eguerdian aberatsena, Meza Nagusia, klase banaketaren erakusle. Bestelako ohitura erlijiosoak ere oso presente zeuden, doluarena esaterako. Halere, Hernanin, inguruko herrietan baina indar gutxiago zuen Elizak; Tilosetako dantzaldiak 1930an hasi ziren eta "al agarrau" dantza zitekeen, Urnietan ez bezala.

Azkenean, 1936ko uztailaren gerra piztu zenean, Hego Euskal Herria bitan banaturik geratu zen. Araba eta Nafarroa frankismoa nagusi zen aldean geratu ziren hasieratik, eta bi hilabete geroago altxatutakoek Gipuzkoaren zati handia hartu zuten.

Izugarritzko jazarpena zegoen gerra galdu zuten errepublikar eta abertzaleen aurka. Hernani izan zen fusilamendu gehien pairatu zituen Euskal Herriko herrietako bat eta presoak Ondarretako kartzelatik atera eta Hernanin fusilatzen zituzten "cuesta de la muerte" delakoan.

Fusilamenduez gain, etxe eta baserrietako harrapaketak, etxeak bereganatzeak eta beste hainbat jazarpen jasan behar izan zituzten herriarrek. Horietako asko gainera, bizilagunen "txibatazoengatik" burutu ziren. Kontrol soziala eta herritarren arteko konfidantza eta ondorioz, kohesioa, erabat birrinduta geratu ziren.

Emakumeek ordea, errepresio bikoitza jasan behar izan zuten, jazarpena eta errepresioa areagotu zen, emakume izateagatik soilik (Barrutiabengoa; Elias; Gonzalez; Rodriguez, 2004: 21).

Bortxaketak jasateaz gain, "emakumeei ilea moztea eta, ondoren, herri osoaren aurrean erakustea zen eraso latzenetako bat. Baita errizino olioan edan beharra, dosi handietan; beren ideologiaren aurkako ikurrak eman beharra; eta beren jarrera politikoaren aurkako oihu eta aldarrikapenak egin beharra ere".

Errepresio gogorrari ihesi, hainbat pertsona eta familia erbesteratu ziren. Gerra ondorengo lehenengo urte haietan, Hernanik populazioaren laurden bat galdu zuen, gerra aurreko 6.600 biztanle izatetik 4.800 biztanle izatera pasa zen. Erbesteraturiko asko gizonezkoak izan ziren eta emakumeen esku geratu ziren gizonezkoei atxikitzen zitzaizkien ardurak. *Behin gerra amaiturik, emakumeek bakarrik zuzendutako etxeak asko ikusten ziren; oso gertaera orokorra zen hori, ez salbuespena* (Barrutiabengoa et al., 2004: 22). Erbestetik bueltatu zirenak, seinalatuak eta markatuak izan ziren hainbat urtez. Segurtasun eza beraz zabaldua zegoen, oinarri oinarritzkoa zen beharra. Segurtasun ezaren erantzule indarkeria monopolioa zutenak ziren, izua zabaldu zuten Guardia Civil-ena hain zuten. Egaña tabernan esaterako, bertan bezeroak euskaraz entzuten bazituzten "Cara al Sol" kantu frankista kantatzera behartzen zituzten edota Francoren irudia jartzera.

Gudak miseria ekarri zuen bere baitan, miseria gorria. Gosea zabaldu zen batez ere kalean, baserrietan nolabait produkzio propioari esker gosea gutxiago atzeman baitzen. "Kaxkoan" ere baratza zutenek goserik ez zuten pasa, nahiz eta ekoizpenaren zati bat agintariei eman behar izan (normalean ekoizpenaren zati bat gordetzen zen ahalik eta gutxien emateko). Frankistek "arrazionamendua" ipini zuten abian eta produktu batzuei bidea itxi eta beste batzuk mugatu zituzten. "Arrazionamenduak" 1952. urtera arte iraun zuen. Egoera horrek, oinarritzko produktuen eskasia ekarri zuen eta familiek hornitzeko ezkutuko merkatuaz baliatu behar izan zuten, nahiz eta horrela aurkitutako produktuak askoz ere garestiagoak izan. Gerraostean, populazioaren bizi maila asko jaitsi zen eta produktuen garestitzeak miseria areagotu zuen. Praktikan, 1954. urtera arte ez zen gerra aurreko bizi mailara iritsi. Soldadak ere, gobernuak kontrolatzen zituen. Langile mugimendua jazarri, sindikatuak debekatu eta langileak "Sindikatu Bertikalaren" bitartez kontrolatzen zituen erregimen Frankistak. Edozein protesta edota greba, sedizio militartzat jotzen zen. Beraz, langileek ekonomian eragiteko ahalmena galdu zuten, soldaten eta salneurrien arteko

muga ikaragarri handitu eta bizimodua izugarri garestitu zen. Gainera, apenas zegoen lanik. Miseriak eta soldata baxuek, merkatu bikoitz bat bultzatu zuten eta merkatu horretan emakumeak izan ziren protagonista nagusi (errekaderak, apopilotza, zelofan poltsak egitea, jostun lanak etab. Hernanin esaterako).

Lehenago esan den bezala, emakumeek II. Errepublikan lortutako eskubideak erregimen Frankistak bertan behera utzi zituen. Jarrera kontserbatzailea eta feminismoaren aurkakoa zuen eta emakumeen menpekotasuna bultzatzeko "familia eredu tradizionala" sustatu zuen. Aurretik aipatu den moduan, "Sección Femenina" eta Eliza katolikoaren laguntzaz, Frankismoak emakumeak otzantasunera eta kastitatera bultzatzen zituen, sexu harremanak ugalketa biologikorako soilik ahalbidetuz, beti ere ezkontzaren barruan. *Ezkontza emetasun ideala eskuratzeko bide bilakatu zen, eta amatasuna arrakastaren eta onspen sozialaren adierazle* (Barrutiabengoa et al., 2004: 74).

Ordura arte herri giro "politta" izan zen Hernanin, baina gerra hasi eta nazionalen eskuetan geratu zelarik, herriko giro guztia desagertu egin zen (Barrutiabengoa et al., 2004: 19). Erabateko aldaketa pairatu zuen Hernanik. Pentsamendu bakarra eta jazarpen ekonomikoa, kultura-l, identitarioa, langileena, generozkoa eta ideologikoa ezarri zen; ordura arte bizitutakoa deuseztatu, eta faxisten sistema nagusitu zen. Gainera, frankistek beren erregimena zurkaizteko hezkuntza sistema eraldatu zuten. Espainiaren laudorioa eta Euskal Herriaren ukazioa bultzatu zen. Horretarako, metodo zorrotzak eta zigor fisiko nahiz umiliagarriak burutzen ziren, hala nola (Apaolaza, 2003: 134/137):

"Ilaran bandera espolaren aurrean "cara al sol" kantatzera behartzen zituzten, makilarekin jo, ezkerreko eskua lotu, eskuinarekin idazten ikas zezaten... (...) familia askotan etxean bekatu zena, eskolan goraiatu egiten zen".

Jendarte kontrola bultzatzeko beraz, ondo antolaturiko sistema bat jarri zuten faxistek, Falangistek, beren xede taldeen baitan antolaturik: "Sección Femenina" eta "Sindikatu Bertikala" kasu, Eliza Katolikoa, Guardia Zibila, Administrazio publikoa etab. Eta gogorrena izan zitekeena, herritarren arteko kontrola "txibatazoekin" bermaturik.

2.2.2. Industrializazioaren garapena eta ondorioak

Hernanin, XIX. mendearen lehenengo erdian nekazaritza zen nagusi. Esaterako, 1857. urtean, populazioaren %56a nekazaritza eta arrantzara emanak zeudela adierazten du orduko zentsuak. Baina XIX. mendearen bigarren erditik aurrera Hernani, nekazal herri izatetik industria herri izatera pasa zen; hots, lehenengo sektorea populazio aktiboaren jarduera nagusia izatetik, ia bazterrekoa izatera pasa zen soilik

mende batean. Aldaketa hau, ordea, modu gorabeheratsu batean garatu zen; Euskal Herriko, espainiar Estatuko eta nazioarteko merkatuaren testuingurupean.

Hernaniren industria garapenean hainbat faktorek eragin zuten; hala nola, geografikoki ondo kokatua egoteak, Donostiatik gertu izateak, trenbide sare garrantzitsua izateak eta Urumea ibaitik gertu egoteak. II. guda karlistak ordea, Hernaniko industria garapena baldintzatu zuen; izan ere, herri liberala zen eta zuzenean pairatu behar izan zituen gudaren ondorioak. XIX. mende bukaeran aldiz, Hernaniko industria berrindartzen hasi zen, modu hidraulikoan ateratako argi indarra zabaldu zenean. 1900. urtean garatu zen benetan Hernaniko industria; fundizio lantegiak, almidoi fabrikak, larrugintzak, adreilu fabrikak, pospolo fabrikak etabar osatzen zuten Hernaniko fabriken egitura.

Guda aurreko Hernani hartan paper fabrikek garrantzi handia zuten, batez ere "Papelera Mendia" (120 langile) eta "Biyak Bat" (75 langile) dira aipatzekoak. Bestelako hainbat fabrika ere bazeuden; hala nola, "Remy" (almidoi fabrika, 90 langile), "Santiago Carrero, Fábrica de tejidos del Pirineo" (puntu lanak, 30 langile), "Montes y Cia" (larru onduak, 35 langile), "Fundiciones del Norte" (74 langile), "Aristegui" gaur egungo AMR (adreiluak), "Cerámicas de Hernani" (45 langile) eta "Cerámicas San Miguel". 1904. urtean, 400 langilek osatzen zuten Hernaniko industria egitura eta 1920. urtean berriz 600 langileetara iritsi zen, 16 urtetan %50eko hazkundea izan zuelarik, sekulakoa.

Euskal Herrian garatzen ari zen industriak, 1929ko nazioarteko "Crack"-aren ondoren jaso zuen lehenengo danbatekoa 1931 urte inguruan. Ondoren, gerra lehertu zenean bigarren danbatekoa jaso zuen eta 50. hamarkadara arte ez zen suspertzen hasi; nahiz eta Hernanin lehen-txeago hasi berpizten. Hernaniko industriak ere bilakaera berbera jasan zuen. Guda aurretik abian zeuden fabrika askok ateak itxi zituzten eta guda amaitu eta geroxeago arte, ez zen berriz ere indartu Hernaniko industria ehuna.

Guda ondoren, Frankismoak "autarkia" bultzatu zuen, non mugak itxi zituen "barneko ekonomia" bultzatzeko asmoarekin. Euskal Herrian "autarkiak" ez zuen onurarik ekarri eta gainera Bizkaia eta Gipuzkoa "probintzia traidoreak" zirenez, Frankismoak ez zituen bere garapen proiektuetan sartu guda ondorengo lehenengo urte haietan. Halere, industria sektoreak eutsi eta garapen txiki bat izan zuen.

1941. urtean "Zikuñaga" (250 langile) eta 1944. urtean "Papelera del Norte" (100 langile) lantegiak sortu ziren Urumea ibaiaren ertzean. Geroxeago, kimika alorreko "Policloro S.A." (90 langile), 1947. urtean, eta "Electroquímica de Hernani" (60 langile) 1949. urtean, abiatu ziren. 50. hamarkadan, paper industriak bere garapenarekin jarraitu zuen, "Danak Bat", 1950. urtean, eta "Transpakar S.A." (40 langile), 1952. urtean, sortu ziren. Halere, industria garapenaren goia 1953an jo zen "Orbegozo y Cia" metalgintzako fabrika sortu zenean (Hernaniko fabrika handiena izatera iritsi zen 1.000 langilerekin). Orbegozoren inguruan berau elikatuko zuten industria txikiak sortu ziren. 1954. urtetik aurrera fabrika berriak sortu beharrean, zeudenak indartzen hasi ziren.

1950. urtetik aurrera, espainiar Estatuko ekonomiak aldaketak izan zituen. 1959. urteko liberalizazioaren eraginez, atzerriko inbertsioak erakarri eta kredituak ahalbidetuz, industria izugarri bizkortu zen, garapen aldi bati bidea emanez.

1973. urteaz geroztik, petrolioaren prezioa igotzeak nazioarteko krisia ekarri zuen. Jakinik Euskal Herria munduko herrialde industrializatuenetako bat zela eta krisiak batez ere industrian eragin zuela, egoera dramatiko bizi izan zen. Enpresa handi batzuk desagertu egin ziren eta beste askok langileria murriztu zuten. Gainera, garapen industrialak ez zenez egoki egin, oinarritzko zerbitzuetan hutsune nabarmenak izan ziren, krisialdia benetan latza izan zelarik.

Industrializazioak sekulako aldaketak ekarri zituen arlo ezberdinetan atzeman zitezkeenak. Alde batetik, jarduera ekonomikoan, hiri antolamenduan, garraiobideen hobekuntzan eta demografian azaleratu ziren; eta jendarte harremanetan, familia ereduaren, balio eta sinesmenetan, genero harremanetan, hizkuntzan, aisialdian etabar, bestetik. Aldaketa hauetako batzuk ondorengo puntuetan aurkeztuko dira, jakinik Frankismoak bultzatutako jendarte ereduarekin behinik behin uztartu behar direla.

2.2.2.1. Migrazio mugimenduak eta horiei loturiko gertakariak



*Erdigunea, fabrikak eta
Florida auzoa atzealdean, 1972.
Iturria: euskomedia.org*

Migrazio mugimenduak historia bera bezain zaharrak dira. Gizakiak, betidanik migratu du askotariko arrazoiak tarteko; baina batik bat, gudetatik alde egiteko eta arrazoi ekonomikoengatik migratu izan da. Askotariko arrazoiok kontuan hartu behar dira, ikuspegi murrizak alboratuz. Euskal Herria ere, migrazioen historia honetan herri hartzailea eta emalea izan da, munduko herri gehienak bezalatsu. Kontuan hartu behar da askotan pertsonok migrazioa beste biderik ez dutela izan eta Bertolt Brecht-ek zihoen moduan, *behartuta migratzen duena ez da etorkin bat, erbesteratu bat baizik*. Garrantzitsua da beraz, garai hartako migrazio prozesuen historia aintzat hartzea, gaur eguneko migrazio prozesuak ulertzen lagun baitezakete eta garai hartan egindakoak edo ez egindakoetatik ikas baitaiteke.



*Hernaniko airetikoko ikuspegi, 1962.
Kaxkoa eta auzo berriak
Iturria: euskomedia.org*

1939tik 1975era arteko tartean Hernanik izugarritzko demografia aldaketak bizi izan zituen. Lehenik eta behin, gerra lehertu zenean hernaniarren laurden batek alde egin behar izan zuen. Izan ere, aurretik aipatu den moduan gerra aurreko 6.600 biztanleetatik 4.800 biztanleetara igaro zen. Erbestera, familia osoak, emakume eta gizonek joan behar izan zuten, azken hauek gehiago segur aski. Guda amaitu eta berrindustrializazioa abiatu zenean, Hernanik izugarritzko aldaketa demografikoa bizi izan zuen, migrazio mugimenduek eragindakoa neurri handi batean. Biztanleriaren bilakaerari erreparatzen badiogu, 50. hamarkadatik aurrera Hernanik sekulako hazkunde demografikoa bizi izan zuela argi ikus daiteke, askok “boom” demografiko moduan izendatu dutena:

HAMARKADA	BIZTANLEAK
1900	3.372
1910	4.326
1920	5.405
1930	6.282
1940	7.093
1950	8.577
1960	13.080
1970	23.388
1980	30.272

(Gonzalez, 2004: 6)

Industrializazioak immigrazio prozesua bultzatu zuela esaten denean ezin da modu hertsian interpretatu. Izan ere, industriak berak ordura arte indar gutxi zituzten bestelako jardura ekonomikoak indartu zituen, lana industrian haratago sortuaz. Era berean, espainiar Estatuko migratzaile asko gudako galtzaileak ziren, herri nekazarietakoak eta miseria nagusitu zenean bizi hobe baten bila abiatu ziren lana zegoen lurralde industrializatueta, “al norte”-ra, Euskal Herrira, esaterako.

JATORRIA	1962		1975	
Hernani	4.950	%47,7	5.141	%27,6
Gipuzkoa	2.172	%20,9	6.688	%35,8
Euskal Herriko beste lurraldeak	811	%7,8	1.079	%5,8
Espainiar Estatutik	2.440	%23,6	5.743	%30,8
Orotara	10.373	%100	28.651	%100

(Etxeberria, 1983: 31)

1962 eta 1975ean Hernaniko biztanleen jatorriari erreparatzen badiogu, gerra aurreko barne eta kanpo migrazio prozesuak indartu eta eraldatu zirela argi ikusiko da. Izan ere, barne migrazioari dagokionez, landatik hirirako migrazio prozesu bat eman zen; batez ere Gipuzkoa bertatik eta Nafarroa Garaiko iparraldetik (1962. urtean “Euskal Herriko beste lurraldeetako” %76). Espainiar Estatutik etorritako pertsonen 1962 eta 1975. urteetan, populazioaren %23,6a eta %30,8a osatzen zuten, hurrenez hurren, oso altua; identitate, kultura eta hizkuntza ezberdinak zituen beste nazio batera etortzeko, jakinik ez zela inolako harrerarik egin eta “Una grande y libreko” beste lurralde batzuetara zetozela “probintzia traidoreak” izanagatik.

Migratzaile hauek, Euskal Herrian eta Hernanin eskulan beharra zegoelako etorri ziren (guda tarteko jaiotza tasa asko txikitu zenez, eskulan premia zegoen industriaren beharrak asetzeko). Ia gehienak gazteak eta guraso izateko adin tartean zeuden, gerora demografiaren hazkundean ere eragin zuena. Espainiar Estatuko probintzia ia guztietatik etorri baziren Hernanira, 1962an populazioaren %23,6 horretatik gehienak, “Kastilla Zaharretik” (%27,8), Andaluziatik (%22,8), Extremaduratik (%22,4) eta Leondik (%8,9) etorriak ziren. Aipatzekoa da, hurrengo urteetan ere, Hernanin bizi zirenen familia eta lagunartekoak ere etorri zirela, gertukoek irekitako migrazio bide gertukoek eta harrera sare informalez baliatuz (hala nola, lana eta etxebizitza bilatuz).

Hasierako urte haietan, bi komunitateen arteko harremanak askotarikoak izan ziren. Oro har, ez zen gatazka nabarmenik sortu baina komunitateen arteko mesfidantza handia zen, elkar ezagutza nahiko urria zen eta. Euskaldunen artean espainiarrei, “belarrimotxak”, “txurrianoak”, “hezur beltzak”, “koreanoak” etabar deitzea ohikoa zen eta euskaldunei, “caseros” deitzea ere ohikoa zen. Oro har, komunitate bakoitzak bere bizitza egin zuen, harreman pertsonalak ugariak izan baziren ere. Horren erakusle, hasiera batean jendarte mailan gaizki ikusia izanagatik, bi komunitateen artean osatutako bikote sentimental mistoak.

Emakumeen migrazio prozesuak ere, orain arte *gizonezkoen migrazio prozesuen laguntzaile gisa, bere familiaren baitan* (Gorospe, 2006: 422) aztertu izan dira; eta ez beren interes propiodun pertsona gisa. Migrazioaren ikuspegi androzentrista hori, sistemak bultzaturiko rolen banaketak indartu du, “gizonezkoek eginiko lan produktiboa” hobetsiz (nahiz eta emakumeek lan produktiboa egin) eta emakumeen “lan erreproduktiboa” ezkutatuz. Begoña Gorospe berak, Hernanira espainiar Estatuko herrietatik etorritako emakumeen bizipenak bildu zituenean (1945 eta 1980 artean etorri zirenenak), askotariko arrazoiak azalerazi zituen. Hauetako bat, beren familiak zabalduetako kanalez baliatu zen, familiako kide ezberdinekin etorri eta fabrika lan eginez familia osatu arte. Beste baten kasuan, familiartekoak Hernanin bizi, bisitan etorri eta bertan gelditu zen “kasualitatez”. Beste batek, Badajozko nekazaritza lana utzi eta Hernanin “apopiloak” etxean hartuz lan egin zuen senarra Alemanian zuen bitartean. Beste batzuk, familiartekoak Hernanin zituztelako etorri ziren eta “etxeko lanetan” nahiz etxetik kanpo lan egin zuten (nahiz eta gerora lan horrek jubilaziorako eskubiderik eman ez). Gorospek bilduriko bizipenetan, emakume langile guztiak nekazaritza guneetatik etorriak ziren, batzuk beren senarrarekin, beste batzuk berriz bakarrik; beraiek nahi zutelako edo halabeharrez, eta ondoren familia osatu. Beraz, arrazoi ekonomikoez gain, bestelako faktoreek ere eragin zuten migrazio mugimenduetan, orokortasunak ekidin behar direlarik. Era berean guztiek lan egin zuten, bai etxeko lanetan, merkatu beltzean edota enplegu batean. Izan ere, herri langile bateko emakume langileak izan ziren. Azkenik, eta elkarbizitzari aipamena eginez, azpimarratu behar da Gorosperen ikerketako emakume gehienek harreman sozial indibidualak mantendu bazituzten ere, elkarte bizitzan parte hartu zutenak oso gutxi izan zirela (Gorospe, 2006: 420).

“Si he tenido y he sentido el rechazo por la diferencia cultural con alguna gente. Lo de adaptarse aquí cuesta, si no coges una cuadrilla como los gallegos es un poco difícil. Sí, nos ha costado un poco, quizás te sientes un poco inadapto, a lo mejor hemos sido nosotros que no nos hemos acercado”.

Industrializazioak eragindako barne eta kanpo migrazioak, Hernaniren aldaketa urbanistikoa eragin zuen, Hernani bera eraldatu zen langile au-
zoak sortuz. Etxebizitzaren premia nabarmena zegoen eta honi erantzuteko “molde berriko” etxebizitza ugari eraiki ziren modu ez planifikatuan.

Alokairurako edota erosteko etxebizitzaren eskaria hain zen handia eta eskaintza hain txikia, prezioak handitzea eragin zuela eta familia batek beretzat soilik etxebizitza bat izatea zaildu zuen. Ohikoa zen familien artean etxebizitzak partekatzea edo apopilo bizitzea, etxebizitza batean jende asko bizi zelarik. Ez da fenomeno berria beraz “patera etxeena”, honek dakartzan zailtasun guztiekin (Gonzalez, 2004: 8):

“Aquí vivíamos, ¿cuántas familias?, por lo menos seis familias. En esta casa seis familias. En una habitación dos camas y ahí se metían todos; los niños en una cama y nosotros en otra, el pequeño se metía con nosotros, o sea, muy justo todo”.



Etxeberri auzoa, 1971
Iturria: euskomedia.org

Hernani beraz, nekazar herri bat izatetik langile herri bat izatera igaro zen; aldaketa demografiko eta urbanistiko itzelak bizitu zituen. Guda osteko testuinguru batean, Frankismoa indarrean eta migrazio prozesu handi bat eman zela aintzat hartzen bada, hernaniar guztiek (bertan bizi ziren guztiek) bizia aurrera ateratzeko zailtasun handiak izan zituztela bistakoa da. Eskertzekoa beraz, horrelako testuinguru zail batean gaur eguneko Hernani eraikitzea.

2.2.2.2. Baserriaren gainbehera

Datu ofizialen arabera (emakumeen lanak ezkututzen diren datu horietan), Hernanin 1860. urtean lehenengo sektorean langileen %56,6a ari zen, 1962. urtean %7,8a eta 1975. urtean berriz %1,8a. Gainbehera beraz, begi bistakoa da. Idealizazioa baserri eredu jakin baten baitan eraiki zen baina errealtateak tupust egiten du berriro ere; ideala baserria jabetzan izatea bazen ere, errealtatean asko maizterrak ziren; familia zabaleko baserriak baziren eredu, bestelako errealtateak ere baziren, *batik bat, familia nuklearrak eta guraso bakarreko familiak* (Barrutiabengoa et al., 2004: 24). Euskal matriarkatuaren teorien gainetik, maiorazkoa ia beti seme zaharrenari zegokion, eta sexuen araberako lan banaketa asimetrikoa zen nagusi. Emakumea baserrira ezkontzean familiari eta ustiapenari erabateko dedikazioa eskaintzen zion. Baserria "lan lotu" gisa hartu izan da, animalien zaintza tarteko eta aisialdia mugatua zuen (Etxezarreta, 1977: 168):

"La mujer del caserío no tiene tiempo libre, ni fiestas, ni diversiones, ni posibilidades de relación, más que en el ámbito del auzoa. No hablemos de las posibilidades de promoción cultural, lectura, espectáculos, etc. Su participación en la vida urbana es prácticamente nula en contraposición de la de su marido y sus hijos. En definitiva está condenada al ostracismo".

Gizonezkoek ordea bazuten aisialdirako aukera gehiago, "ferira" joatea, pelota partiduak eta apustuak, herrira jaitea etabar ohikoak ziren gizonezkoen artean. Honela, Etxezarretak berak baserriaren gainbeheraren arrazoietakoa bat, emakumeek baserrira ezkontzeko ukapenari, baserrian bizitzearen ukapenari egotzi zion. Baserritar gizonezkoa "mutilzahar" izatera kondenatua omen zegoen eta ondorioz baserriaren biziraupena ezbaian (Etxezarreta, 1977). Izan ere, baserrien biziraupenean emakumeek berebiziko garrantzia izan zuten, gerra eta gerra ondorena lekuko (Barrutiabengoa et al., 2004: 28):

"Egitzazue kargu Hernanin baserriak mantendu direla emakumeei esker, eta Hernanin baserria zaindu duen pertsona emakumea da, porque gizonak gerrara atera behar du, eta ez bada ateratzen, alde beharra dauka, porque, claro, sindikatua zegoelako, ba zegoelako, eta sindikatu gabe bazegoen, nazionalista zelako, eta alde beharra zeukaten. Beraz, baserria zeinen esku gelditzen da, emakumeen tartean. Beraz, emakumeak egin du etxea mantendu, familia hazi eta hezi, eta gainera lanak egin". Eustaki.

Baserriaren lehenengo eraldaketa, biziraupeneko ekonomiatik baserri intentsiborako aldaketan eman zen. Horretarako, baserria merkatura zabaldu zen, *errentagarritasun eta produktibitate gutxiko produktuak baztertuak izango zirelarik* (Gonzalez, 2004: 3). Bigarren aldaketa, 1960ko industrializazio prozesuaren azkartzeak eta honen eskulanaren premiak, industriaren eta baserriaren arteko lehia piztu zuen. Praktikan, industriaren eta baserriaren arteko soldata ezberdintasunek eta aurretik aipaturiko baserrien dimentsio eta orografiak baserriaren birmoldaketa zaildu zuen eta hauetako ustiapen ugari bideragarritasun ezera bultzatu zen. Baserri askotan hortaz, etxeko ekonomiaren ardatza kanpoko enpleguek hartu zuten eta baserria autokontsumorako produkziara mugatu zen. Hernanin gerora, sagardoaren eta sagardotegien “booma” etorri zen, “beste heltze batzuetako burruntzalia”.

2.2.3. Frankismoaren langile ikusezinak

Esanda dago: soilik “etxeko lanez” arduratutako emakumea bultzatu zuen Frankismoak, hori zen “eredu”. Gizonezkoa izango zen familiara “etxerako ogia” ekarriko zuena; emakumeak aldiz etxean geratu behar zuen, etxeko lanetan. Emakumeak etxetik kanpo lan egitea ezohiko jarduera gisa bultzatu zen. Errealitatean ordea emakumeek era guztietako lanak (produktibo, erreproduktibo eta zaintzakoak) egin behar izan zituzten bizirauteko. Frankismoak bultzataiko “eredua” gezur bat zen; baina emakumeak burututako lanak estaltzeko eta emakumeen zapalkuntza areagotzeko balio zuen, besteak beste. Izan ere, lan hauetako asko ekonomia ofizialetik kanpo egin behar izan zituzten, merkatu beltzean; beren lana segurtasun ezaz (modu ilegal edo alegalean) eta are eta modu prekarioagoan eginez, modu isilean.

Errolda ofizialetan emakumeek egindako lana ikusezina izan zen. 1975eko datuen arabera, Hernaniko emakumeen %87,8 “lanik gabekoak” ziren. Ofizialki lan egiten zutenen artean berriz honako datuak bildu izan dira:

LAN KATEGORIAK	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
Empresaburuak / Autonomoak	416	%7,8	97	%6,4
Profesional liberalak	80	%1,5	52	%3,4
Langile industrialak	4.717	%88,4	1.365	%90,0
Nekazariak	123	%2,3	3	%0,2
Orotara	5.336	%100	1.517	%100

(Etxeberria, 1983: 39)

Datu hauei beste aldetik begiratuz, emakumeen lanen %87,8a "ez-lan" gisa hartu dela ikusten da, hots, iceberg-aren zati handiena ura azpian geratzen da ezkutuan. Ezkondu ondorengo emakumeek egindako lanak "sus labores" gisara kontsideratzen ziren; "beren lan edo jarduera" gisa. Beraz, beraiek bete beharreko jarduerak ziren; jarduera propioak. Izendapenek ideologia sortzen dute eta izendapen honen atzean aurkituko ditugu emakumeek egindako lan "legal" guztiak; "naturalak" eta "betebeharrekoak". Bestela esanda, ikusezinak eta menpekoak.

Etxeko ekonomiari "laguntzeko" isilpean egiten ziren eta isilpean ordaintzen ziren hainbat lan baziren Hernanin bertan. Ohikoa zen emakumeek zelofan poltsak edota jostun lanak etxean egitea. Etxea eremu pribatu gisa hartzen zen, bertan eginiko lanek ez zuten ekonomia ofizialean eraginik; baina bai ekonomia errealean. Modu alegalean egindako lan hauek, etxearen pribatutasunaz baliatzen ziren. Emakumeek ez zuten lan eskubiderik, ez ordutegirik. Eta lan hauek etxeko lanekin partekatu behar izaten zituzten; "lan esklabo" lantoki klandestinoan (Barrutiabengoa et al., 2004: 105):

"Arantxak "esklabo" hitza erabiltzen du urte askoan egin zuen lana definitzeko. Berak adierazi zigun ordutegi finkorik gabeko lana zela berea, edozein unetan deitzen zioten dendatik beste hamar albornoiz josteko esanez. Gaez, asteburuetan, egin behar izaten zuen lan. Denbora gutxi izaten zuen beretzat eta bere familiarentzat".

Apopilotza familia aurrera ateratzeko beste estrategia bat izan zen. Lan honek ere etxea zuen lantoki eta emakumea protagonista. Apopilotzaren jarduera izugarri handitu zen Hernanin, izan ere, migrazio mugimendu handia tarteko, eskaria handia zen eta eskaintza txikia. Etxebizitzak asko garestitu ziren eta familiak aurrera ateratzeko zailtasun handiak zeuden. Etxean egiten ziren beste lanekin ere zerikusi handia izan zuen jendea apopilo hartzeak; lan lotua zen eta etxeko lanekin uztartzeko aukera eskaintzen zuen (Gorospe, 2006:419):

"Tenemos que tener en cuenta que estas mujeres además realizaban todos los trabajos necesarios para mantener a su familia y pupilos, como cocinar, limpiar la ropa y la casa, mantenerlos sanos física y psicológicamente etc., y este trabajo, aunque hasta tiempos muy recientes ni siquiera ha sido contabilizado económicamente, tenía y tiene valor monetario".

Jendartearen iruditerian jendea apopilo hartzea, etxeko ekonomian "laguntzeko" lan gisa hartzen bazen ere, gastuak estaltzeko oinarritzko diru sarrerak ekartzen zituen, gizonak etxera ekarritako diru ekarpena baino altuagoa izan zitekeena.

Frankismoak emakumeak "etxeko lanak" egitera bideratu zituen, beste hainbat bitartekorekin batera, hezkuntza sistemaren bidez. "Eskola Nazionala" sexuen banaketa zegoen indarrean. Zazpi urtetik aurrera neskek eta mutilak gela ezberdinetan bereizten ziren, neskek mais-trarekin eta mutilak maisuarekin ikasten zuten, 14 urte bete arte. Familia eredua eta rol banaketa "tradizionala" eta atzerakoa bultzatzen zen; emakumeei "emakumezkoen ofizioak" irakasten zitzaizkien, hala nola, jostungintza, ile-apainketa, saltzaile, haurren zaintza etaabar, bestelako ofizioak salbuetsiz. Arratsaldeetan, neskek josten ikasten zuten "Talleres de costura" delakoetan (Aranburu, 2003: 57):

"Neskentzat zaila izaten zen hamalau urte arte eskolan jarraitzea. Familien beharren arabera, hamahiru edo hamalau urterako utzi behar izaten zuten eskola eta lanean hasi: neskame, enkarguetan, haur zaintzen, fabriketan..."

Beraz, langile familietako emakumeek oinarritzko ikaskuntza jasotzen zuten, 2. mailako ofizioak ikasiz, hots, "emakumeei zegozkienak".

Gizonezkoentzat aldiz, Hernanin 1947-48 "Escuela Profesional Obrera Carmelo Labaca" sortu zuen izen bereko apaizak, inguruko enpresarien laguntzarekin. Bertan mekanika irakasten hasi ziren. 1959. urtera arte ez ziren emakumezkoak onartu, delineaizioan salbu. Geroago, 1963. urtean, kimika espezialitatea jarri zuten eta emakumezkoek ere ikasi ahal zuten. Ondorioz, inguruko industriarako gizonezkoak formatu ziren emakumezkoen lan kualifikatuetara sarrera salbuetsiz edota mugatuz.



Biteriko Eskolak.

Iturria: euskomedia.org

Gizonezkoek beraz ikasle onak baziren, langile klaseko familietakoak izanagatik ikasten jarraitzeko aukera zuten; emakumezkoak aldiz "pribilegio" horretara salbuetsita zeuden. 1975. urtera arte emakumezkoek oro har, ezin izan zuten bigarren eta goi hezkuntzan ikasi, orduan hasi ziren gizonezkoentzat "esklusiboki" ziren lan kualifikatuetan lan egiten, modu apalean bazen ere. Halere, sexuen arteko lanen banaketa zurrana eta zorrotza zen, gizonezkoek lan kualifikatuena egiten zituzten, botere guneetan gizonezkoak soilik egonik. Emakumezkoek aldiz, prestigio gutxiko lanak eta ondorioz soldata txikiagoa jasotzen zuten. Sozialki ere, emakumeak fabriketan lan egitea ez zegoen ongi ikusia; zailtasunak beraz agerikoak ziren.

Emakumeak, oro har, hasiera batean ehun lantegietan hasi ziren lanean. Hernanin, XX. mende hasieran "Morencos" eta "Santiago Carrero" ehun lantegiak zeuden. Bertan, langileen gehiengoa emakumeek osatzen zuten baina ardurapeko lanpostuak gizonezkoek betetzen zituzten. Nolabait, feminizaturiko jarduerak ziren lantegien baitan, baina halere, botere guneetatik salbuetsita. Jostundegiak ere ugari ziren Hernanin, josten irakasteaz gain, jostun lanak egiten ziren. Ia jostun guztiak emakumezkoak ziren eta jostunen artean baziren espezialitate ezberdinak; galtzagileak, kapelugileak, kortseterak, brodatzaileak eta beste. Beraz, jostun lanak emakumeei atxikitzen zitzaizkien eta emakume guztiek ikasten zuten josten "etxeko andre onak" izan zitezten.

Gerora, emakumeak beste fabriketan hasi ziren lanean pixkanaka-pixkanaka, "gizonezkoen eremua" izateak zekarren zailtasunekin. Industrian lan egiten zuten emakumeek, emakume "idealaren" irudia apurtzen zuten eta kontrako jarrerak pairatu behar izan zituzten.

Baserriko lanak baserriaren gainbeherarekin batera urritu ziren. Adibidez, 1975. urteko datu ofizialetan Hernanin soilik hiru emakume baserritar zeudela ageri da eta gizonezkoak aldiz 123. Datu hauek sinesgaitzak dirudite. Emakume baserritarrak 1975. urtean bertan ere, gizonezkoak baino gehiago izango ziren segur aski. Izan ere, gizonezko gehiago fabriketara joan zirenez emakumezkoak baserrietan geratu zirela begi bistakoa da, baserria "gobernatzeko". Baserriko jarduera produktiboak bi generoen eskulana baliatu izan du. Sexuen lan banaketa eman bazen ere, lan batzuetan bien lana beharrezkoa izan zen. Merkaturatzeari dagokionez ere, sexuen arteko rolen banaketa ematen zen; gizonezkoek "animalia handiak" merkaturatuko zituzten eta emakumezkoek berriz "animalia txikiak" eta eguneroko produktuak; barazkiak eta esnea, esaterako. Animalia handiak saltzea ezohikoa zen. Esnea eta barazkiak merkaturatzeak, berriz, egunerokotasunarekin lotura handiagoa zuen. Lan jarraituagoa zen, epe labur batean saltzen ez baziren produktuak galdu egiten ziren eta. Merkaturatuko lan hauekin, diru sarrera garrantzitsuak eskuratzen zituzten baserriko ekonomiari zegokionez. Produktuak hiru modutara merkaturatu zitezkeen: azokan salduz, etxez etxe edo herriko dendetan salduz eta errekaderei produktuak saltzeko utziz (Barrutiabengoa et al., 2004: 48).

"Hernanin bi azoka gune zuden, bakoitzak bere ezaugarriak zituela: Plaza Berrikoa ganaduarentzako zen, eta Atzietas kalean zuen feriak jarraipena, baserriko gainerako produktuen (barazkien, fruten, oilaskoen, txerrien...) salmentak gunean. Banaketa horretan garbi ikusten da sexuen arteko bereizketa. Plaza Berrin gizonezkoak aritzen ziren; Atzietasen, berriz, emakumezkoak. Badirudi tradizioz animaliak merkaturatzea gizonen betebeharra izan dela, eta merkatu hori gizonentzat gordeta zegoen, eta bestea, emakumeentzat".

Hernani, Donostiatik hain gertu egonik, Donostiaren hornitzaile zen. Bertako merkatuetan Hernaniko emakume ugari zuten postua produktu freskoak saltzeko. Esne saltzaileak ere ugari ziren, askok etxez etxe saltzen zuten gainera. Donostiara joateko tranbia erabiltzen zuten gehienek, eta beren maiztasun eta ordutegietara moldatu behar zuten. Tranbia edo "tximist gurdia" 1903tik 1958ra aritu zen martxan. Produktuak merkatuan saltzeak, lan eskerga eta denbora ugari eskatzen zuen; produktuak bildu eta atondu, baserritik tranbiara kargatuta joan (kilometro batzuetako bidea askorentzat), azokan saltzen egon eta atzera bueltako bidea.

Hirugarren sektoreko, hots, zerbitzueta, lan eta negozio askotan emakumezkoak nagusi ziren. Lan hauek ondo ikusiak zeuden emakumezkoentzat, "lan duinak" ziren. Hernaniko Kaxkoko kale Nagusian eta Andre kalean negozio ugari zeuden. Baziren emakumezkoek lan egiten zuten dendak ("komestible" edo janari dendak etab.), gizonzkoenak (burdindegia esaterako) eta senar emazteak kudeatzen zituztenak (okindegiak; gizonak ogia egin, emakumeak saldu, esaterako). Beste behin ere, sexuen arabera lanen banaketa argi ikusten da.

Frankismoak ezarritako "arrazionamendua" tarteko, oinarritzko produktuen eskasia zegoen. Arrazionamenduko produktuak ez ziren egunerokotasunean eskuragarri izaten gainera. Bando bidez jakinarazten zen eta familia bakoitzak kopuru jakin bat izaten zuen kartila bidez kontrolatzen zena (bi zeuden, bata haragiarentzako eta bestea beste produktu guztientzat). Produktuen eskasia eta Frankismoak bultzatutako autarkia tarteko, "merkatu beltza" indartu zen. Familiak, emakumeek batez ere, elikatu ahal izateko "merkatu beltzera" produktuan eskuratzea joan beste aukerarik ez zuten. "Auxilio Sociala" ere bazegoen, "Seccion Femeninak" kontrolatzen zuena, baina hau karitatearen baitan zegoen eraikia eta hornigaien beharra oso zabaldu zegoen herritarren artean.

"Merkatu Beltza" edo legez kanpoko merkatuak indar handia hartu zuen gerra osteko testuinguru hartan, betidanik egon bazen ere. "Merkatu Beltzerako" bi jardura ezberdin zeuden, produktuen kantitatea eta sexuen banaketa tarteko; kontrabandoa eta estraperlo txikia. Kontrabandoa, kopuru handietan ematen zen eta gizonzkoenak zegoen batez ere, eta estraperloa berriz, kopuru txikietan ematen zen eta emakumezkoenak zegoen gehienbat. Estraperloan emakumezkoenak gorputza izaten zen garraiorako eta produktuak ezkutatzeko bitartekoa. Izan ere, legez kanpoko jardura bat zen; ezkutakoa, isila eta arriskutsua. Arriskuak ekiditeko, *Hernaniko emakumeek harreman sare solidarioa eraiki zuten estraperloak zekarren arriskua saihesteko* (Barrutiabengoa et al., 2004: 60).

Lerroetan Hernaniko emakumeek eginiko lan eta langintza ugari bildu dira, jakinik beste asko aipatu gabe geratu direla. Lanok isilarazitakoak izan dira asko, aintzat hartu ez direnak, emakumezkoek egindako "ez-lanak". Gainera, "etxeko lanak" emakumezkoek egin dituztenez beste lanekin partekatuta behar izan dituzte eta horrela, amaiezinezko lan jarduna egin behar izan dute; lan lotua eta "esklabua". Askok ez dute aisialdirako tarterik izan, etxera lotuak egon dira, familiara, lana "besteentzako" eginez. Langile nekaezinak, langile ikusezinak, emakumeak.

3. BIZITZARI AURRE EGIN BEHARRA. GARAICO TESTUINGURUA PROTAGONISTEN BIZIPENETATIK

Atal honek, orain arte jasotako testuinguruari, elkarrizketatu diren emakumeen bizipenak gehitu dizkio. Honela, protagonistek garaiko testuingurua nola bizi izan zuten ezagutu ahal izango da, euren hitz eta espresioekin. Modu honetan, eta labur bada ere, Hernaniko emakumeek epe zail horretan bizi behar izan zuten giroa eta egoera irudikatzeko saiakera egin da. Gainera, jarraian azaltzen diren oroimenak eta kontakizunak ilustratzeko, argazki gutxi batzuk txertatu dira errealitate horren erakusle.

3.1. GUDA ETA MISERIA

"Que triste, neska, gerra tristia den. Banco Guipuzcoano iten aizian ta harea juten ginan ixkutatzea" (Ixabel)

"Con siete años vino la guerra...nos fuimos a Francia. Allí estuvimos dos años y bueno nos toco de todo. Hicimos travesías en barco de aquí pallí; primero a Francia, luego volvimos a Bilbao, porque mi aita estaba en Bilbao ejerciendo... Luego ya nos volvimos a Hernani" (Loli)

"Salías a la calle y todo estaba roto. El tío de... tenía una tienda de revistas y todo por el suelo. Entonces si que robaban. Salías a la calle y todo estaba.... Balantxa ¿esa tienda? Tenía un comercio, "La favorita" se llamaba, un comercio, impresionante. Esos tuvieron que escapar de Hernani" (Paula)

Hernanik sekulako errepresioa jasan zuen guda eta Fankismoaren lehenengo aldian. Hernani izan zen Euskal Herrian fusilamendu gehien egon zen herrietako bat eta beste askok erbestea ezagutu zuten. Errepresio izugarria jasan behar izan zuten hernaniar askok, oraindik orain barrutik bizi dutena:

"Padecimos horrores... Yo recuerdo que lo pasamos muy mal, fuimos a Francia, anduvimos en un barco, me acuerdo cuando cayó la bomba donde vivíamos en la plaza, donde vivía Maritxu... Ella estaba en brazos de su madre, que cosa... a mí no se me olvida aquello nunca, vi la mantilla llena de sangre... Yo nací en la casa de los curas.... Y la casa de al lado, donde está la mercería, estaba en esqueleto y allí nos refugiábamos cuando la guerra, ¡Ahí...! Y pasábamos atrás, me acuerdo mi madre tirando colchones, colchas y todas las ropas con cuerdas a Goiz Eguzki. Yo hasta hace muy pocos años no podía oír los aviones, tenía aquello metido, claro yo era una niña... Yo me acuerdo la Guardia Civil paseando por la plaza, todo aquello me recuerda de muy niña lo pasamos muy mal. Y luego ya ni te cuento, en la postguerra, mas hambre que perro..." (Loli)

Familia asko txikituta geratu ziren, hildakoak, erbesteratuak... familia berean batzuk alde batekoekin gudara, besteak beste aldekoekin...

"Mi padre era republicano y por eso estuvo en la cárcel. El día que iba a salir, una denuncia tonta que hubo...y, estuvo dos años y medio más en la cárcel. Estuvo primero en Ondarreta, luego le mandaron desterrado Villafranca, catorce meses, y como allí vivía la hermana de mi padre muy bien. Y luego le mandaron a Berga, allí podía hacer de cartero, pero no podía venir aquí en cinco años, desterrado. Entonces mi madre tenía un hermano en Madrid..., y vino aquí a trabajar de cartero a Hernani. Así que la guerra la pasamos gracias a mi madre que trabajó de interina por todos los sitios, luego mi hermano se fue a la mili, era el único sueldo que había" (Loli)

"Gero gerra etorri zan, en el treinta y seis, ta anaiak eaman zituzten: hiruak, Felix ta Manuel con Franco eta Juanito con los rojos" (Ixabel)

Francoren aldera gizonezkoak bakarrik eramaten zituzten. Baziren emakume gudariak ordea:

"¿A la guerra las mujeres? ¡No! A desfilas si, con la falange, y las... Jesús, reketes con la boina roja, emakumiak, bai" (Ixabel)

Emakumeek Erresistentziaren alde lan eskerga egin zuten, Bartzelonako Euskal Etxeko argazki hauek lekuko. Emakume euskaldunek (tar-tean hernaniarrek) soldaduentzat gudarako jantziak egin zituzten. Argazki hauek gaurdaino iristea arriskutsua izango zen bere garaian, Frankismoaren jo punturako froga ezin hobea izan zitezkeen eta.



Emakume euskaldun talde bat lanean Bartzelonako euskal pisuan soldaduentzako arropak egiten, tartean Guadalupe Altolagirre Camarero hernaniarra, 1936-37 inguruan.

*Bost emakume ageri dira gogor
lanean. Batzuk tela zatiak mozten
eta beste batzuk josten. Mahai
azpian dauden tela soberakin
pila kontuan hartzekoa da, lan
eskerbaren erakusle.*





Frankistek beren ideologia zabaltzeko bitarteko guztiak erabili zituzten, propaganda, errepresioa, hezkuntza, eliza, legeria... Gudaren ondorio fisikoez gain, errepresio psikologikoa ere nabarmena zen; guda galdu zutenak etnikoki eta ideologikoki zapalduak izan ziren:

"Esas pobres se tuvieron que marchar porque igual se hubieran matau ¡fijate!. Decían que eran muy rojas. ¿Cada uno no es libre de ser lo que uno quiera? Bueno pues se marcharon y luego vinieron aquí a Hernani. Aquí insultándoles. Y estoy viendo yo, están muertas pero, iros, iros, iros de aquí. ¡Fuera! ¡Fuera! ¡Iros de aquí! Que espectáculos. Que espectáculos que daban. Pues eso, cosas de esas que ahora ya que terminas y dices: yo no quisiera ver alguna cosa así. Porque te mueres del susto ya" (Paula)

Errepublikarra edota abertzalea izatea urte luzez jasan behar izan zuten gerra galdu zutenek; erbestetik Hernanira bueltatu zirenean ere bizitza gogorra izan zuten, seinalatuak ziren eta bizitza berri bat hasteko izugarritzko zailtasunak izan zituzten. Bertan geratu zirenak ere ala moduz, guda galdu zutenek miseria gorria pairatu behar izan zuten. Kaxkoan etxe ugarik baratza zuten eta horrek nolabait gosetik babes-ten zituen. Beste etxe askotan berriz ez zuten baratzik eta gosea pasa zuten:

"Txarra da e, la postguerra muy mala. Nik ez nun gosia pasa baño jende askok bai. Guk ez! Guk terrenua bagenun" (Ixabel)

Errepresioa ordea arlo intimoetaraino iristen zen, arlo identitarioa ere jazarriz. Erregimen Faxistak euskara debekatu zuenez, "Kaxkoan" euskaraz hitz egiteko aukera bakarra etxea zen. Halere errepresioa jasangaitza zen:

"Etxian bai. Nik dakitena, ... aitai. Errexena erderaz itea, baño aita nabaritzen genunian eskalleratan bera... jartze giñan firme (...) Geo haste zan emangoizuet propina etxea sartze zeatenen, hitzeitte bazute euskeraz. Ta ordun hasi giñan, hasi giñan pixkat bat eta gero anaya ebai" (Paula)

"Galarazia, galarazia, ¡Franco no dejaba hablar! Baño ze pasatzezan? Aittona ta merendatzen egoten zianian ta, se tenían que callar, estaban hablando en vasco y se les cortaba el pelo; neskei moztu ilia, ta gero kalian buelta, jendiak ikusteko!" (Ixabel)

"Porque aquí te obligaban a muchas cosas. Algunas veces le obligaron a mi padre ponerse el traje de la falange y desfilar en el pueblo. Luego ya he visto algunas, que han andau de aquí para allá. Aquí andaban en las manifestaciones, vestidas de falangistas. Pero esas eran por convicción. Porque muchas se arriman al carro que más, no es ideología si no al carro que pueda. De esas cosas me acuerdo pero me acuerdo como estoy viendo fijate" (Paula)



Garaiko Plaza Españan falangista baten hileta elizkizuna. Falangistak gorpuaren aurretik martxan doaz, aurretik haurrak fusilak eskuan dituztela eta atzetik Falangista talde bat keinu faxista eginez. Herriko abadea eta familia artekoak ere ageri dira. Ezohiko gertaera da, herritarrak balkoitik edota leihotik begira ageri baitira, 1938 urtea.

Hainbestearainokoa izan zen errepresioa ordea, familia askotan beren berezko hizkuntza alboratu zutela:

“Mi generación no sabe euskera, es una realidad que yo he vivido. Mi padre cuando querían discutir lo hacían en euskera. (...) No es casualidad, es que toda la estructura nuestra nos lo han dado en castellano. Entonces yo no he aprendido el euskera. En mi generación sí hay gente que sabe hablar en euskera, porque sus padres se han puesto eoskorra y han aprendido, pero mi padre estuvo en la cárcel bastante tiempo, aquí de la guerra no se ha hablado absolutamente nada. Entonces había que ir a la escuela, era en castellano absolutamente, yo he cantado “Cara al sol” en la escuela. Yo he visto en casa fotos de mi hermano vestido de falangista, mi padre en la cárcel y mi madre ha trabajado en auxilio social para poder comer. Y ha ido de noche a las vías del tren a robar el carbón que se caía de los trenes para poder calentar el fuego. La situación de subsistencia ha sido muy fuerte en mi familia. (...) Yo no he sentido esa sensación de echar en cara a mis padres no saber euskera. Porque bastante ya tuvieron con sobrevivir”
(Maite)

Errepresioa ez zen guda garaira mugatu, ondorengo urteetan pertsona jakin batzuk ez ohiko errepresioa pairatu behar izan zuten. Delitua egin aurretik, badaezpadako neurriak ezartzen zitzaizkien, diktadura baten lekuko, sorgin ehizaren modukoa:

“Había aquí días muy determinados que la gente, había unas personas determinadas que le metían en la cárcel. Cuando venía el día de la República, o cuando iba a venir Franco. Las movidas de Franco eran muy espectaculares, venían con la Guardia Mora, se ponían en medio Ayete, y bueno en aquellas fechas ibas a Donosti y no se te ocurriría ir la víspera de la salve, porque yo no sé cómo se lo montaban pero te atrapaban en la parte vieja y ¡no te dejaban salir!” (Maite)

Frankismoak bere boterea mantentzeko jendartearen kontrol osoa bilatu zuen. Pentsamendu bakarra bultzatu zuen bizitzako arlo guztiak harrapatzen zituen.

3.2. FRANKISMOAK BULTZATUTAKO KONTROLA ETA ERREPRESIOA

Gerra eta miseria Frankismoak utzitako arrasto ikusgarriena lirateke, baina, honetaz gain, erregimenak ikusgaitzak ziren bestelako ondorio batzuk ere ekarri zituen: kontrola, beldurra, balioen inposaketa... Alienaziorako eta pentsamendu bakarrerako hezkuntza sistema oinarri bazen ere, berekin batera hainbat errepresio, propaganda, lege, sinesmen, kontrol... neurri martxan zituen Frankismoak. Gorriak edota abertzaleak zirenei erbestea edota espetxea (Saturrarango emakumeena kasu) egokitu zitzairen eta bestelako neurri errepresiboak erabili zituzten; adibidez ile mozketak emakumeei. Eliza ofizialaren laguntza ere ezinbestekoa izan zen diskurtso mailan nahiz jendarte kontrola ahalbidetzeko. Beste hainbat arlotan ere alienazio bideak abiatu zituen, azken batean, diktadura batek hori bultzatzen du bere helburuak lortzeko: pentsamendu bakarra eta jendarte kontrola. Genero sistemei dagokienez, jendartearen iruditeria jakin bat txertatzea lortu zen, besteak beste, emakumearen sexualitatea kontrolatzeko.

"Yo con diecinueve años le agarré del brazo al que sería mi marido, me vio mi hermano, me dio semejante bofetón que no se me olvidará en la vida. Claro que te dabas un beso, pero tenías que ir hasta las carreteras... Si hablarían las carreteras... Yo ahora veo demasiada libertad" (Loli)

"Ezta pentsature! A un año le di el primer beso, había mucho respeto, u... oain bezela? Ez, ez!" (Ixabel)

"Yo llegué virgen al altar. Había mucho respeto holako gauzetako, bai" (Ixabel)

"Garai hartan ezkondu iten zan. Umiak ezkondu gabe? Ezta pentsatu re! Lehenengo umia ensegida etorri zan, veintitres de mayo ezkondu ginan ta nueve de febrero lehenengua" (Ixabel)

"(Mezetara igandean...) Bueno, bueno. Obligatorio, obligatorio. Ta gainea nere ama zan más liberal baino nere izeba bat zan, semia eukitze zun amordazau. Bezperak, mezeta. Ta nik esatet baino, ¿cómo?, ¿cómo es posible?. Vispe-

ras, visperas ¿pa qué? Además ahora, como está la iglesia después de tanto tiempo. A nada que hayas visto mundo, a nada que sepas de donde venimos, los años que tiene la iglesia. Pues entonces los de antes que no había iglesia, ¿donde están? Es que te pones a pensar un poco” (Paula)

“Ta ezkontuta no permitían mujeres, entonces nos parecía mal pero ahora entiendo, que el niño se ha puesto malo, ¿pues no vas a la fabrica!” (Ixabel)

Azken batean emakumeak bigarren mailako herritarrak ziren, ez zituzten gizonezkoen eskubide berak; ez arlo politiko, ez sozialean. Beren bizi eredua aurretiaz erabakia zuen Frankismoak; menpeko izan, euskara alboratu, ezkontu, umeak eduki eta “etxeko aingeru” izan.

“Estabamos prelimitadas a ser la mujer de... Ese era el engranaje, y bueno en muchísimos años eras la señora de... O sea todavía existe eso, si la señora de...” (Maite)

Hori zen eredua baina izugarrizko errepresio eta kontrol neurriekin ere, jendarteak eta emakumeek, sistemari aurre egin zioten; etxean behinik behin euskara mantenduz, etxetik kanpora lan eginez, umeak ezkontzatik kanpo izanez, estraperloan arituz, langile mugimenduan parte hartuz, klandestinoki borrokatuz...

“Unas trabajaban fuera, no tanto como ahora pero si, algunas en las fabricas..., otras trabajaban dentro de casa: hacían labores, cosían para fuera, se cosía mucho en Hernani, había muchas modistas, también se hacía mucho punto, chaquetitas” (Loli)

“Mujeres solteras con hijos... No era bien visto, eran muy señaladas también, la que tenía una hija soltera, ¡Jesús María! Y había muchas e como siempre; no tanta libertad como ahora” (Loli)

“Baño ordun e bazian fabriketa juten zian emakumiak. Barriyu hartan, hor goiko auzuan, baño haik fama txarra izaten zuten” (Ereñotzuarrak)

3.3. INDUSTRIALIZAZIOAREN “BOOM”-A

Aurretik aipatu den moduan, Frankismoa Euskal Herriko hainbat zonaldeetan ezagututako garapen industrial bortitzerako eszenatokia ere izan zen. Toki horietan zegoen bizimodua guztiz eraldatu zen eta, horrekin batera, pertsonen arteko harremanak eta komunitatearen izaera. Hernani horren adibide bat da.

“A Lizarraga se le llamaba Catanga, pero yo creo que era más por el concepto de casas baratas que por el concepto del inmigrante. Esas casas se hicieron cuando hubo un boom industrial” (Maite)

Hernanin eta Euskal Herrian oro har “boom” industrial eta demografikoa eman zen guda ondorena igaro eta urte batzuetara. “Zikuñaga” 1941. urtean inauguratu zen, 1944. urtean “Papelera del Norte” eta geroago etorri ziren, “Policloro”, “Electroquímica de Hernani”, “Danak Bat” eta “Transpakar”. Halere, benetako “boom”-a 1953. urtean gertatu zen “Orbegozo” fabrika metalurgikoa abiatu zenean, non 1.000 langile izatera iritsi zen.

“Es entonces cuando abrieron las fabricas, mira Orbegozo también cuánto tiempo lleva; se decía: cuando Orbegozo coge catarro, Hernani con pulmonía. Claro, era una de las fabricas fuerte, suponía...” (Loli)

“La industria era muy grande, estaba la papelera de Zikuñaga, la papelera del Norte, la papelera de, Biyak bat estaba Orbegozo, Orbegozo ha llegado a tener ¡hasta seiscientos trabajadores! Etxeberri es posterior. Etxeberri es del año setenta y cinco. Vino el boom y se empezó a construirse muy desmesuradamente” (Maite)

“Kantitatia zeuden hemen, ateatze zinan fabrika batetik hasarretuta ta sartzen zinan beriala beste batian” (Ixabel)

Industriaren “boom”-ak ordea bestelakoak ekarri zituen, “boom” demografikoak. Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko beste lurraldeetatik eta Espainiar Estatuko lurraldeetatik milaka langile etorri ziren Hernanira. Erabat eraldatu zen Hernani, jada baserri ingurunea eta Kaxkoa soilik zituen Hernani guztiz eraldatu zen. Urumearen hertza fabrika ezberdinek okupatu zuten eta Kaxkoan eta landa inguruan berriz hainbat langile auzo eraiki ziren. Aurretik ordea, etxebizitza falta handia zegoen eta familia ugari elkarrekin bizi behar izan zuten; lehenago esan den moduan apopilotza oso zabaldurik zegoen:

“Kondizio gogorrak. Eske oi bizi in ber da el beste etxi batian ta sukaldia. Eske nola ingo zituzten gazak, jana ta dana.. ta etxiak etzaren preparatuk oain bezela urakin ta... Oain ura berua, ura hotza. Oain dao, no se puede imaginar Hernani lo que era” (Paula)

“Aquí ha venido mucha gente de fuera, (Manuel) entró a trabajar a Zikuñaga, vino con el padre primero, él tendría ya más de catorce años, y nos lo traen a la sección nuestra. Venía el padre con el hijo mayor se instalaba y luego venía la madre con el resto de la familia. No te creas que lo han tenido fácil. Aquí se han habilitado ganbarotes para que la gente viviera, yo he conocido aquí en la calle mayor en una ganbara divididas las habitaciones por colchas, para individualizar habitaciones. Eso lo he conocido yo y he nacido en el cuarenta y tres.(...) Aquí han vivido familias enteras en una habitación. En una habitación con hornilla o con derecho a cocina, y la gente de aquí que también sus medios económicos eran muy pobres, compartir piso, imagínate con críos por medio y compartiendo un piso. Se vivía así. Los de aquí yo creo que menos, yo en mi casa pupilos desde luego no he conocido” (Maite)

“Aurrenean, nik ezautu nun aurrena etorri zian extremadurakuak baino eske haik zakaten herrin asko eta honea etorri ta hemen con derecho a cocina. Hor Kale Nagusin, le llamabamos el Arca de Noel. Hor (Antonio) hoik etorri zian horrea. Ta hor atzian sin higiene y sin nada. Que meterte en un sitio así y hartarte a trabajar. Qué hambre y que desesperaus tenían que estar en su tierra para venir así. Leno lan gogorrenak ite zituzten trenian etortze zianak, a hacer la vía. Esos eran los que hacían los peores trabajos. Esos lo que han pasau.. Como esos con derecho a cocina y viviendo así nosotros no hemos conocido nada de eso. Fijate tu que luego todos se hicieron con pisos. Antes si se hacían casas. Alguno quería casarse y había casas para todo txiritxi. Baño hoik hasi zian erosten. Baño ola bizita e, ola bizita” (Paula)

"El boom tubo también porque en estas casas al hacer la instalación telefónica venían bastantes telefonistas, entonces aquí había bastantes pensiones, ya te digo compartir techo con derecho a cocina era lo habitual. Eso tenía dos conceptos. Uno te quedabas viviendo con gente que venía de fuera y la gente de aquí se hacía con un dinero, era un medio de ganar dinero. Porque entonces se trabajaba doce horas en la fábrica pero tampoco daba para mucho" (Maite)

Immigrante haiek guda galdutakoak ziren nagusiki. Ezerezetik hasi behar izan zuten askok, gertuko familia babesik gabe, hasieran, beste lurralde batean, beste kultura batean, zailtasun handiekin. Era berean, faktore ekonomikoaz gain, beste faktore batuzk ere kontuan hartu behar dira. Adibidez, Hernanin sekulako aldaketa demografikoa eman zen. Urte gutxitan Hernani laukoiztu egin zen. Espainiar Estatutik etorritakoek 1962. urtean %23,6a osatzen zuten eta 1975. urtean berriz %30,8a. Sekulakoa. Bi komunitate linguistiko, bi identitate ezberdin zeuden Frankismopeko Hernani hartan:

"Sí que es verdad que ellos tenían el concepto de ahorro que yo no tenía, eso sí que es verdad. Era una empresa que era muy duro para hombres que para mujeres, y yo recuerdo que igual llevaban un bocata de tocino que llevaban del pueblo de una matanza. Te daba pena pues porque tenían que compartir casa y no podían calentar. Luego ellos el concepto de ahorro lo han tenido tan sumamente claro que se han hecho con la casa del pueblo y la casa de aquí" (Maite)

"Yo no creo que se hayan sentido discriminados, no en mi entorno y eso que he trabajado con muchos, pues si en Zikuñaga éramos treinta tres, diecinueve serían inmigrantes. Han crecido en Zikuñaga como yo, han sido sancionadas como yo, hemos sido premiadas como yo, o sea te quiero decir que no ha sido diferencia, la diferencia ha sido que igual tú tenías un pariente en el caserío y te facilitaba la verdura. Pero incluso ellos que normalmente era gente de campo el que venía aquí a la empresa, pues enseguida se hacían con terreno pequeño y hacían su huerta" (Maite)

"El hecho de emigrar es para ahorrar, para mandar. Porque la situación que han dejado allí es mucho peor. (...) Ellos venían aquí con el concepto que esto es España. Entonces vienen pensando que vienen a España. Pero el problema

que lo has vivido lo he vivido yo. Y tú no tiene piso, pero yo tampoco. Yo hasta no ir a Etxeberri hemos estado de alquiler, aquí arriba pagábamos tres mil pelas de renta. Entonces te quiero decir que esa necesidad que ellos tenían yo también! (...) También es verdad que la gente de aquí no hemos tenido ese sentimiento de tener que ahorrar, hombre de guardar un poco si, para hoy o mañana. Sí que es verdad que nuestros padres pasaron la guerra, pasaron mucha necesidad y lo primero era llenar la tripa. Había una angustia para que comiéramos terrible" (Maite)

Beraz, ia herritar denek zuten beharra, guztiak ziren langile klasekoak. Guztiek egin behar izan zuten gogor lan. Halere, etorri zirenak ez ziren izan ongi etorriak, hasieran batik bat, azken batean guda irabazi zuten Espainiar kulturaren "ordezkari" ziren eta:

"Si muchos, asko. Macarrosos, todos los castellanos aquí "mi tierra buena tierra" decían pero venían aquí y luego traían a los padres y a toda la familia... Hoi egia da, el mayor atraso, los castellanos todos aquí" (Ixabel)

"Yo normalmente siempre he trabajado con inmigrantes. Porque la inmigración entonces aquí fue muy fuerte. La forma de venir de los inmigrantes movía a cualquiera, yo con catorce años y la mayoría de la sección nuestra era mujer inmigrante. Había mujer de aquí pero la mayoría era inmigrante. Normalmente venía el padre con el hijo mayor, o con la hija mayor y cuando ya ellos tenían trabajo traían a todo el equipo. Solía ser muy numeroso por lo general. Entonces lo que yo recuerdo de aquella época, la gente de aquí ha admitido muy bien a la gente inmigrante. Otra cosa es, ellos como se han sentido. Pero yo no tengo ese recuerdo, de lo que dice la gente... <<Sí porque se les trataba de churrianos>> ;No es verdad! Pero lo mismo que la gente dice que se les trataba de churrianos, ellos también vinieron con la idea de que esto es España y habla cristiano" (Maite)

Gerora, elkar ezagutzak kultura ezberdinetakoak izanagatik ere, laguntasun harremanak sortu izan ditu; auzoan eta fabriketan esaterako:

"Ta jende asko etorri zan lanea... jolin... belarrimotxak. (...) Venían de sus tierras y luego traían a la mujer, a sus hijos y a toda la familia(...) Había gente maja, había de todo como ahora" (Ixabel)

"En mi entorno no creo que se sientan discriminados. Igual discriminados más que por nosotros por su pueblo, porque tuvieron que dejar todo, lo mucho que tenían y lo poco que tenían para venir aquí, pero no nos echéis la culpa de una situación de antes de venir a aquí. Es la sensación que yo tengo" (Maite)

"Yo no creo que se les haya tratado tan mal, hay quien se ha integrado, hay quien no se ha integrado, hay quien ahora después de jubilado se ha ido a su pueblo. Pero yo creo que las mismas similitudes que he tenido yo los han tenido ellos" (Maite)

Gorospek egindako ikerketan (Gorospe, 2006) herriko ekintzetan parte hartzeko zailtasunak izan zituztela aipatzen zuten emakume migra-tzaileek berak. Lan honetan bildutako hainbat lekukotasunetan ere pertzepzio bera ageri da baina bertakoen ikuspuntutik:

"Participaban menos en el pueblo. Date cuenta que ya venían, con ese concepto de ahorro y les aislaba mucho. Venían a trabajar, a conseguir dinero y a mandar a casa. Había que mandar a casa. Porque los que venían aquí eran dos pero habían dejado a seis en casa. O sea el concepto de aislar, de no participar o de no integrarse, que ahora se usa mucho esa palabra, estaban muy restringidos. No iban al cine. No participaban en el txikiteo no, era indispensable. En ese sentido no se relacionaban con la gente de aquí" (Maite)

4. LAN MUNDUA HERNANIN: IRUDIAK ETA EMAKUMEEN BIZIPENAK

Atal hau osatzeko informazio ezberdinak erabili dira. Horien artean garrantzitsuenak irudi grafikoak eta protagonisten bizipenak izan dira. Lan honen ekarpena, elementu hauek harilkatzea izan da. Jasotako materialak hobeto antolatzeko eta azaltzeko esparru ezberdinetan banatzea erabaki da, beti ere esparru bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz: Baserria, Etxea, Ostalaritza, Merkataritza eta Industria. Lan eremu hauek aukeratzeko orduan halaber, kontuan hartu dira Hernaniko herriaren ezaugarriak. Izan ere, Hernani komertzio eta ostalaritza askoko herria izan da eta, beraz, garrantzitsua zirudien emakumeek bertan egiten zituzten lanen ezagutzak handitzea. Horrez gain, landa eremuak ere garrantzi handia izan zuen herrian, bertako produktuak herrian edota Donostian saltzeko ohitura handia baitzen. Zer esanik ez industriari dagokionez. Hernanin industria asko zegoen ikertutako garaian, eta hauetariko askotan emakumeek lan asko egin zuten. Azkenik, etxearen alorra hartu da ikergai baita ere. Maiz, etxean egindako lanak ez dira lan moduan kontsideratu, soilik enplegua hartu izan da aztergai. Ikerlan honetan etxean egindako lanak ere, lan eremu moduan kontsideratu dira; jakinik emakume guztiek emakume izateagatik soilik lan hauek burutu behar izan zituztela.

industria



4.1. INDUSTRIA

Industriako lana gizonezkoei atxikitzen baldin bazitzaien ere, guda aurretik eta ondoren emakumeek industrian lan eskerga egin dute. Aztertzen ari den epe honetan, Hernanin eta Euskal Herrian oro har, sekulako garapen industrialak eman zen. Garapen industrial honek eskulana behar zuen eta Hernanik jasotako immigrazio tasa handiaz gain, emakumeak hutsune hori betetzeko kontratatu ziren. Emakumeen, gizonezkoen lantegiez gain, lantegi mistoak aurkitzen ziren. Ikusiko denez, sexuan oinarrituriko lan banaketa ematen zen, Frankismoak bultzaturiko arrazoi biologistei jarraiki. Emakumeek soldata baxuagoak jasotzen zituzten eta lan baldintza kaskarragoak zituzten. Orokorrean, euren lanak prestigio gutxiago zuen. Gainera, aurretik ikusi den moduan, hezkuntza sistematik ere sistematikoki kanporaturik zeuden, ez zuten garapen profesionalerako aukerarik izaten eta beraz, nagusiki lan kualifikatu gabeak egiten zituzten.

“Las condiciones no eran iguales para hombres y para mujeres en la fábrica, para nada: trabajo específico de la mujer, trabajo específico del hombre. Electricistas, mecánicos, todos esos se contemplaban absolutamente de hombres, las máquinas absolutamente de hombres, y mujeres más o menos (...). O sea otra categoría, tenía otro prestigio el trabajo de los hombres.... Y hoy en día, posterior que he trabajado en la limpieza, todavía” (Maite)

Halere, Frankismo garaiko azken zatian, aldaketa nabarmenak eman ziren. Langile klasea oro har eta emakume langileak zehazki, antolatzen eta borrokatzen hasi ziren. Aldaketa nabarmenak eman ziren, emakumeen zapalkuntzaz jabetu eta eskubide berdintasuna aldarrikatu baitzuten. Orduko borrokak egun lortutako eskubideen oinarrian daude.

4.1.1. Hamaiketako orduan soka saltora jolasten

"La familia necesitaba dinero pero hambre no pasamos. Teníamos una madre que nos hacía unas cazuelitas más buenas... No, no, hambre no hemos pasado, hombre no había los caprichos que hay ahora" (Carolina)

"Esa chavala de trece años había empezado a currar, ¡joe! pues era por la necesidad de casa porque era la mayor de la familia y tenía a cinco o seis por detrás" (Maite)

Gerra ondorengo urte haietan, ikusi denez, eskasia eta beharra oso nabaria zen familietan. Askok hutsetik hasi behar izan zuten eta fabriketan hasteko aukera ez zen alboan uzteko modukoa, nahiz eta lanean hasten ziren asko haurrak izan:

"Aitak fabrikan iten zun lana, almidoian fabrikan ta aita hil zanian (1937), nik hasi behar izandu nun hamazazpi urte nitula. Hogeita hamahiru urtearte ibili nintzan fabrikan, ezkondu arte. Ez zituzten emakume ezkonduak admittitzen fabrikan" (Ixabel)

"Nere aita hil zanian, ne ama juntzan fabrika lan eske netzako, ta hartu ziaten" (Ixabel)

"Con trece años empecé en la galletera, íbamos a cantar y nos dicen, ¿quereis venir a trabajar? ¡Jolín que sí!, al día siguiente a trabajar... Estuve poco tiempo, luego nos fuimos a coser a Carrero, nos gustaba más" (Carolina)

"En aquel entonces todas íbamos a trabajar, contenta, llevábamos un jornal y ella estaba en casa (ama). Éramos cinco y yo soy la tercera. Ya mi hermano empezó a trabajar en la calle mayor de panadero, empezó a hacer pan de noche. Y empezamos a trabajar todos desde pequeñitos, hombres y mujeres, todos trabajaban igual, hay no había diferencia. Trabajaba la juventud muy joven, dejabas la escuela ¡Así sin más!" (Carolina)

"Ya a los trece empecé a trabajar, porque mi madre tenía solo un sueldo, la de ella. Mi hermano tenía que ir a la mili ya y... entonces me fui a trabajar allí, arriba de la sociedad Santa Barbara, fabrica muy conocida en Hernani, de un alemán, todavía sigue la villa. Allí trabajé diez años, cuando ya pasaron ocho empecé a aprender de peluquera"
(Loli)

Emakumeei gremio jakin batzuetako lanak atxikitzen zitzaizkien, ikusi denez jostungintza tailerretan emakumeak ziren nagusi (botere gu-
neetan gizonetzkoak) guda aurretik eta guda ondorenean ere tailer mota horietan emakumeak lanean jarraitu zuten. Paper fabriketan ere
berdin.

*"En Carrero igual, prácticamente había dos hombres para arreglar las máquinas o puesta en punto de las máqui-
nas, pero en realidad el taller era de mujeres. En Kuraie que se hacían ganchillos antzeko parecido, o sea te quiero
decir que había específicamente de mujeres y otros de hombres. Orbegozo pues ya te he dicho, las oficinistas serían
mujeres"* (Maite)

*"Estaba Carrero, que era específicamente de mujeres, ahí hacían jersey de punto, estaba Kuraie...Y la mayoría eran
papeleras. Y la mayoría de las mujeres trabajábamos en papeleras...estaba Biyak bat, estábamos nosotras, la pa-
pelera del Norte..."* (Maite)

*"Éramos muchos trabajadores, había abajo las maquinas, arriba donde cosíamos, también hacia un almacén don-
de hacían la plancha y ya lo guardaban, estaba muy bien"* (Carolina)

Urtea: 1947

Lekua: Tolosako Oriabe inprentaren kanpoaldea.

Ageri direnen izenak:

Carmen Clemente Lozares hernaniarra (eskuinean makurtuta), besteren artean.

Deskribapena: Tolosako inprenta, kanpoaldean emakume langileak.

Interpretazioa: Emakume guztiak lantegiko arroparekin ageri dira eta beren artean laguntasuna dagoela sumatzen da elkar eutsita ageri baitira asko. Aipatzekoa da bi neska oso gazteak direla (14 urte inguru) eta helduagoek eusten dietela, helduagoek babesten zituztela interpreta daiteke. Lankideen arteko argazki bat da.



4.1.2. Gogorra eta epemuga jakinarekin

"Que las mujeres se fueran a trabajar fuera de casa, ¡era una cosa normal! La que no trabajaba era porque era una gandula, o porque quería pasar hambre" (Carolina)

Ikusi denez emakumeak oso azkar hasten ziren fabrikan lanean, familian beharra zegoelako batik bat eta asko familiarteko batek fabrika horretan lan egiten zuelako. Ohikoa zen garai hartan langileak ezagunen bidez kontratatzea.

"Yo he trabajado siempre en dos fábricas, en Zikuñaga y Gomaiteix. Gomaiteix fue una consecuencia, el trabajo de Gomaiteix fue una consecuencia de una huelga que hicimos en Zikuñaga...yo con catorce años me coloqué ahí, en Zikuñaga. Estuvimos trabajando del año cincuenta y siete al sesenta y siete... entonces lo normal también, trabajar en la empresa donde trabaja el padre... mis hermanos también" (Maite)

"Mi madre me metió en la fabrica porque es que no había, nos hacía falta, y a ella le conocían por mediación de mi padre que era cartero, pues entonces me cogió, porque era muy jovencita yo cuando empecé a trabajar. Me gustara o no yo iba contenta, ya te digo a planchar, a planchar mantillas, en la fabrica me adoraban e, ¡de verdad! Tendré ahí guardado de buena conducta un papel, que si quería volver... porque a mí me ponían en todos los puestos, hacía de todo... hasta limpiar la oficina, pero me ponía bombones la señora, me quería mucho. Me mandaban a San Sebastián a llevar en el tranvía las mantillas" (Loli)

Esanda dago: fabrikaren arabera, batzuk "emakumeen fabrikak" ziren eta beste batzuk berriz "gizonen fabrikak". Esan nahi da, batzuetan emakumeei atxikitzen zitzaizkien lanak egiten zirela eta gehiengoa emakumezkoak zirela eta beste batzuetan alderantziz. Azken batean, "emakumeen fabrikak" edo "gizonenak" izateak eragina izan zezakeen lan giroari zegokionez. Izan ere, oro har emakumeak fabriketan lan egitea gaizki ikusia zegoen erregimenak bultzatzen zuen iruditegian eta gutxiengo izatea kontrako giro batean eragin negatiboa izan zuen. Eta horren baitan neurri batean, Frankismoak emakumeak ezkondu eta gero fabrikan lan egitearen debekua aplikatzen zen. Emakumeak ezkondu eta gero fabriketan lan egiteko debekuak 1962. urtera arte iraun zuen.

"Baino casadas no admitían... Ezkondu nintzan ta kitto!" (Ixabel)

"En Gomaitez ahí trabajé ya poco tiempo, un par de años o así, porque entonces existía una norma que... hasta el año creo setenta y seis o así no fue vamos a decir quitada, sino que la mujer que se casaba recibía un dote, pero tenía que dejar el trabajo. Hombre, ese dote en aquellos tiempos venía bien porque entonces con ese dote posiblemente hacías el viaje de novios. Porque bueno, si, la mujer normalmente dejaba de trabajar cuando se casaba" (Maite)

Soldata apalagoak izatea, guztiz naturalizatua zegoen orduko jendartean, emakumeek berek ere onartzen zuten. Eskubide gutxiago zituzten, bigarren mailako langileak ziren.

"Porque ahí había una clara distinción de prestigio de los hombres y en lo de las mujeres un poco menospreciadas... en el salario... pero a mí lo grave de la situación de entonces me parece que era que lo asumíamos con toda naturalidad. Si, era una cosa muy natural, normal. Ni te lo planteabas igual que tú tenías el mismo derecho que... No, que va, que va, a mí no se me ocurría pensar" (Maite)

Lana izugarri gogorra zen, orduko iruditeriak emakumeak lan fisikoak egiteko prestaturik ez zeudela zioen arren, emakumeek lan oso fisikoak egiten zituzten. Lan ordu amaiezinak ziren, 12 ordura artekoak:

"El trabajo era, se hacían guantes, bolsas de goma. El trabajo allí era muy duro porque no sé si conocéis pero los guantes son moldes, eran de mármol los moldes y para hacer el guante el molde de mármol se sumerge en el látex, que es muy cremoso el látex, se sumerge en el látex y luego pasa a unos hornos de muchísimo calor y la mujer... Ese borde redondo lo trabajaba la mujer. Pero lo tenía que hacer con el molde muy caliente... La mujer era más bruta, se endurece mucho con este tipo de trabajo... yo maduré allí" (Maite)

*"Nosotras íbamos a las seis de la mañana y a veces la jornada era de doce horas. Entonces, en la fábrica el hamai-
ketako era a las ocho, eta geo a las dos salíamos a comer y a las dos y media estábamos otra vez currando. Cuando era la jornada de doce horas" (Maite)*



*"Zeuden bi neska zaharras hermanas
más mayores, ta gu ginan gaztiak
pajaros en la cabeza; iji ta aja..."
(Ixabel)*

Urtea: 1940-1945

Lekua: Remy almidoi fabrikaren
kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Carmen
Etxezarreta Genua, Manoli Olano Garaiar,
Inaxi Ruiz (Pastero) eta Benita.

Deskribapena: Remy almidoi fabrika
kanpoaldean.

Interpretazioa: Lantegiko emakumeak
pausaturik ageri dira argazkirako.
Lantegiko lau emakumeak direla argitu
dute elkarrizketetan. Aipatzekoa da,
halaber, gainean daramaten jantzia,
soineko zuri eta buruko zapia.

Urtea: 1940-1945

Lekua: Remy almidoi fabrikaren kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Carmen Etxezarreta Genua, Manoli Olano Garaiar, Xilberio Ezeiza, Inaxi Ruiz (Pastero) eta Benita.

Deskribapena: Remy almidoi fabrika kanpoaldean ageri dira bertako lau emakume eta gizonezko langilea. Emakume batek txakur bat du eskuetan.

Interpretazioa: Pausaturik ageri dira argazkirako, irribarretsu. Emakumeak hemen ere lantegiko jantziekin ageri dira, eta buruan zapiak. Gizonak txapela darama buruan eta aldiz, ez dago zuriz jantzita.



"Trabajabamos también con los hombres e, solteros, casaus, castellanos, denetatik zeon..."
(Ixabel)



*"Baño casadas no admitían...
Ezkundu nintzan ta kitto!"
(Ixabel)*

Urtea: 1940-1945

Lekua: Remy almidoi fabrikaren kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Carmen Etxezarreta Genua, Manoli Olano Garaiar, Xilberio Ezeiza, Inaxi Ruiz (Pastero), Benita eta beste gizonezko langile bat.

Deskribapena: Remy almidoi fabrika kanpoaldean hamaiketakoa egiten, lau emakume eta bi gizonezko.

Interpretazioa: Argazkirako pausaturik ageri dira. Gizonezko bat ardoa edaten ari denaren itxura egiten ari da. Irribarritsu ageri dira. Badiru lantegian lana egin ondorengo hamaiketakoa egiten ari direla, edo deskantsuan, lan egiteko jantziekin egon arren, buruan zapirik ez baitute emakumeek.

Urtea: 1940-1945

Lekua: Remy almidoi fabrikaren kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Carmen Etxezarreta Genua, Manoli Olano Garaiar, Xilberio Ezeiza, Inaxi Ruiz (Pastero) eta Benita.

Deskribapena: Remy almidoi fabrika kanpoaldean.

Interpretazioa: Bostak argazkirako pausaturik daude. Lanerako arroparekin ageri dira.



"Cuando no teníamos trabajo rompíamos sacos y volvíamos a coser. El almidón se vendía en pastillas como si fuera chocolate, en polvo también, y en granos también se vendían" (Ixabel)

*"Ni enintzan oso trebia paketiak
iten, esku arinak izan behar
zenitun, ta nei lagunak laguntzen
ziaten paketiak iten" (Ixabel)*



Urtea: 1940-1945

Lekua: Remy almidoi fabrikaren kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Inaxi Ruiz (Pastero), Manoli Olano Garaiar eta Xilberio Ezeiza.

Deskribapena: Remy almidoi fabrika barnean ageri dira bi emakume eta gizonezko bat, lantokian.

Interpretazioa: Hirurak argazkirako pausaturik daude. Gizonezkoa goiko aldean dago makina batean.

Urtea: 1944

Lekua: Papelera del Norte.

Deskribapena: Papelera del Norte fabrikaren inaugurazioan, autoritateak lantegia ikusten, tartean bi emakume lanean.

Interpretazioa: Papelera del Norteren inaugurazioan, fabrikako nagusiak eliteari fabrikan nola lan egiten den erakusten ari zaie. Lanean ageri diren bi emakumeak papera manipulatzeko ari dira; badirudi paperak kontatzen ari direla. Patroia emakumeek nola lan egiten duten azaltzen ari den bitartean, langileetako emakume batek zeharka begiratzen die.

Egilea: Vicente Martín

Artxiboa: Kutxa Fototeka



"Concretamente la sección nuestra era la de manipular el papel. El papel venía en bobinas grandes, luego pasaban a una máquina que las cortaban... y nosotras lo manipulábamos, contábamos y empaquetábamos" (Maite)

4.1.3. Langile Borroka

Emakumeak fabriketan lan egitearekin bat langile borrokan parte hartzen hasi ziren.

"Yo fui elegida delegada también del sindicato vertical. Pues tendría diecisiete o dieciocho años" (Maite)

"Yo como delegada a la hora del hamaiketako pegaba mis mítines" (Maite)

Hasiera batean, Frankismoaren baitako "Sindicato Vertical"ean parte hartu beste aukerarik ez zegoen. Halere, beren eskubideak aldarrikatzen zituzten emakumeak ez zeuden oso ondo ikusiak beste langileen artean ere:

"(Emakumeak langile mugimenduan parte hartzeaz hitz egiten) se veía mal porque teníamos (las mujeres) bastante dependencia del hombre, la mujer ahora yo creo que no, aunque decís que sí, pero no tiene color" (Maite)

"Los mismos hombres nos consideraban una salseras, la mujer tenía que estar en casa, si, si, si, despectivo. Para qué os metéis en rollos, oye porque estamos en rollos metidos desde el momento que trabajas. Y sí, de forma bastante despectiva!" (Maite)

Garai hartako emakume langileen eskariak oinarritzkoak ziren, soldata igoera kasu. Borrokak eta greba orokorrak batez ere ahalbidetzen zuen langileen eskubideak hobetzea. Emakumeak ordea gutxiagoturik zeuden orduko jendartean, naturalizatuta zegoen diskriminazioa eta beraren aurka borrokatzea askoz ere zailagoa zen.

"Necesitaban mano de obra, entonces claro, la reivindicación un poco social nuestra iba a ser ahí. Cuando nosotras pedíamos que se nos considerase más salario dentro de los convenios, incluso cuando se negociaban los convenios, una reivindicación era esa. Decían que los hombres hacían trabajos más arriesgados o lo que quieras, pero los trabajos específicos que hacíamos las mujeres no podían hacer los hombres, o sea lo mismo que había una limitación para que una mujer pudiera mover una bobina de mil kilos, de la misma manera había una limitación para que el

hombre manipulase el papel. O para que el hombre tuviese la paciencia para meter en un alfiler, unas hojas para cuadrarlas bien porque esas hojas que se cuadrasen bien de celofán luego iban a una guillotina que tenía que ser perfectamente cortada. El hombre no era capaz de estar ahí, había manitas pero bueno, lo mismo que había modistas y modistos, los mínimos, ¿no? Pero sí, el concepto ese estaba ahí. Y yo creo que eso sí nos dio un empuje para ser un poco más consideradas. O sea, o estimular más a la mujer porque sí era verdad, y entonces era impensable que una mujer fuera mecánico, impensable que una mujer fuera electricista. Ni se nos pasaba por la imaginación, a mí no se me pasó y creo que a las de mi quinta tampoco” (Maite)

Halere, emakumeak emakumeen artean antolatzen hasi ziren, lantegien artean, gremio ezberdinen artean, klase gisa antolatu ziren, diskriminazioa talde modura pairatzen zutenez erantzun bateratua ematen hasi ziren. Borroka molde garrantzitsuena greba mugagabea zenez, lantegien artean erresistentzia kutxa antolatu zuten, greban zegoen lantegietako langileek beren borroka bururaino eman zezaten.

“Las mujeres en Hernani han participado mucho... Hicimos bastante relación con las mujeres porque Orbegozo era una fábrica explícitamente de hombres... Las administrativas eran mujeres... hicimos relación con ellas y hicimos cajas de solidaridad para que pudiera resistir la huelga” (Maite)

Eta langileen arteko batasuna oso handia zen, klandestinitatean ibili arren, langileek etsai komuna zuten: Frankismoa.

“Pero también teníamos por otra parte eso que nos daba la clandestinidad, esa unión que nos daba ir contra el Franquismo, porque de verdad que nos unió mucho, porque no nos quedaba otra! Luchábamos contra uno solo. En aquel momento la referencia era aquel, el cabrón era aquel y toda la articulación era de aquel” (Maite)

“Las compañeras nos arreglábamos muy bien, yo no he tenido problemas” (Carolina)



Ageri direnen izenak:

- | | | |
|------------------------|---------------------------|--------------------------|
| 1. Lurdes Aizpurua | 11. Encarna Rueda | 21. Mercedes Rodal |
| 2. Rufi Arana | 12. Amparo Goikoetxea | 22. Begoña Arana |
| 3. Pepi Goikoetxea | 13. Antonia Muñoz | 23. Francisca Rodal |
| 4. Maritxu Albizu | 14. Maria Jesus Quintana | 24. Maribel Muniain |
| 5. Angeli Azurmendi | 15. Ester Aristorena | 25. Mari angeles Azkue |
| 6. Eloisa Herrero | 16. Maria Angeles Rama | 26. Bitxori Azurmendi |
| 7. Mari Carmen Alvarez | 17. Milagros Loran | 27. Maria Pilar Eizmendi |
| 8. Avelina | 18. Maria Jesus Felipe | 28. Mari Asun Elizondo |
| 9. Miren Klemente | 19. Maria Pilar Rodriguez | 29. Juaquina Jimenez |
| 10. Rosarito Aldaregia | 20. Ixiar Urkia | |

Urtea: 1960. hamarkada inguru.

Deskribapena: Zikuñagako langileak Bitxori Azurmendiren "soltera despedida" ospatzen.

Interpretazioa: Zikuñagako emakumeen arloan 32 emakumek lan egiten zuten eta bertan horietako 29 ageri dira. Garai hartan "despedidak" batez ere gizonezkoek egiten zituzten. Aldi berean, ezkonduko zen langileak lanetik alde egin beharko zuen seguruenik garaiko legeria tarteko. Argazki honek emakumeen arteko laguntasuna adierazten du.

Urtea: 1944

Tokia: Papelera del Norte kanpoaldea.

Deskribapena: Papelera del Norte kanpoaldean eliteko pertsonaiak ageri dira fabrikaren inaugurazioan. (la) guztiak gizonetzkoak dira.

Interpretazioa: Badirudi agintari batzuei harrera egin zietela. Tartean armadako buruak ere ageri dira.

Egilea: Vicente Martín

Artxiboa: Kutxa Fototeka



"En Zikuriaga también las batas y los buzos normalmente también eran grises, cuando entramos nosotras, pero luego para distinguir la sección salieron unos colores chillones, unos en verde, otros en rojo... ese concepto lo trajeron de Alemania que era para distinguir si alguien estaba fuera de su sitio. La dinámica principal era controlar" (Maite)

4.1.4. Hezkuntza mugatua

“Yo a la escuela fui hasta los once años. Luego no sé porque pero me tocó cuidar niños, sería para ayudar en casa. O había que meter papeles en las bolsas, y ya te enseñaran tus hermanas” (Maite)

Hezkuntza mugatua zen erabat emakumeentzat. Alde batetik gizonezko eta emakumezkoen segregazioa zegoen, hezkuntza ezberdina jasotzen zuten eskola ezberdinetan (Baserrri auzoetan izan ezik). Fabriketan lanean hasitako askok eta askok eskola oso azkar utzi zuten, batzuk hamaika urte betetzerako.

“Así que a la escuela nada... fui hasta los trece, a los trece ya kitto, a trabajar! Me pusieron un banquito porque no llegaba a la plancha, y allí estuve hasta que me pude defender yo” (Loli)

Neskatxak mojen eskolara eramaten zituzten, rankismoak eta eliza ofizialak hezkuntza bera aldarrikatzen zuen, familia eredu tradizionala bultzatu eta emakumea menpeko izateko hezi. Hezkuntza zen sistemaren oinarri nagusienetarikoa bat.

“Teníamos que ser madres, esposas buenas. Sabíamos que nuestra educación radicaba en eso. Aquí tenía mucho éxito el colegio de monjas, normalmente tenía bastante aceptación porque todos esos conceptos de ser madres y eso nos enseñaban bastante bien. En las escuelas públicas menos, porque allí con aprender las cuatro reglas ya te bastaba. Y luego las labores, pues en casa tu misma aprendías...” (Maite)

Mutilek aldiz nahiz eta langile klaseko familietan zailtasunak izan, erraztasun gehiago zituzten ikasteko. Lan merkaturako prestatu beharra zegoen etxera “ogia” ekartzeko....

“Mi hermana la mayor también en Tolosa pues trabajó con trece años o con catorce, o sea te quiero decir que era la tónica general. Pero mi hermano sí, que quería estudiar electrónica, arreglar radios... Pero sí, si había algo de dinero para que estudiase era el chico. Era el chico por el concepto de que era el hombre el que tenía que mantener a la familia. Como la mujer casada no trabajaba, no podía trabajar o no debía trabajar, porque ya te digo que camuflada sí trabajaba. Yo he conocido a las mujeres viudas, ya también a no viudas metían pupilos en casa para sacar cuatro perras” (Maite)

Urtea: 1961-62 inguru.

Lekua: Escuela Profesional Obrera Carmelo Labaca (egungo Guria taberna dagoen tokian).

Deskribapena: neska gazteen ikasle taldea eskolaren kanpoaldean.

Interpretazioa: la neskak guztiak berdin jantzita ageri dira, alkandora eta gona zuriaz. Irakasleak aldiz, jantzi beltza darama soinean, bere ikasleengandik bereiziz. Argazki hau ikasle taldeari espresuki ateratako irudia dela dirudi, argazkirako posean baitaude denak ere eta baliteke argazkilari profesional batek ateratakoa izatea. Hala ere deigarria da atzeko planoan, ezkerrean ageri den gizonezkoa; momentu horretan bertatik pasatzen ariko zen, argazkia ateratzen ari zirela konturatu gabe; ez bera ezta argazkilaria ere.



Iturria: euskomedia.org

Ageri direnen izenak:

1. Katy Oyarbide
2. Agustina Urruzola
3. Manoli Aguirre
4. M^a Esther Muñoz
5. Belen Zugasti
6. Manoli Carrera
7. M^a Isabel Moreno
8. M^a Jose Zabaleta
9. M^a Angeles Mezquita
10. Rosarito Aramburu
11. Conchi González
12. Arantxa Soto
13. M^a Mertxe Yeregi
14. M^a Antonia Arbelaiz
15. Juanita Setien (Irakaslea)
16. M^a Angeles Leibar
17. M^a José Otxotorena
18. Pili Otaño
19. Anuntxi Olaizola
20. Arantxa Idigoras
21. M^a Luisa Garin
22. M^a Paz Sánchez
23. M^a Angeles Imaz
24. Ana Mari Goya
25. ...
26. M^a Luisa Molina
27. M^a Pilar Esnaola
28. M^a Antonia Larretxea
29. Arantxa Artola
30. Begoña Huici
31. Agustina Aramburu
32. Coro Mugica

4.1.5. Lan bikoitza, bi aldiz gutxietsia

“Gizonak etzun ezer iten etxian, emakumia arduratzen zan umietaz, gaixotaz...” (Ixabel)

Etxeko lanen eta familiako kideen zaintza emakumeen esku zegoen. Berdin zion emakumeak etxetik kanpo lanik egiten zuen edo ez. Bere ardura zen orduko jendartean.

“Trabajábamos en la fábrica, luego en casa ayudábamos. En casa era obligación. De mujeres sobre todo porque me he puesto morada de limpiar zapatos a mí hermano. Teníamos sólo un chico en casa y menos mal. Mi padre era mucho mejor para eso, colaboraba más en casa pero mi hermano era un señorito. La mujer en casa era la obligación, el planchar, el coser, el lavar, claro no había lavadoras tampoco. El concepto de ayuda en casa... ha habido trabajos específicos también aquí de casa.... En nuestra casa limpiábamos, pero yo no, porque como era la más pequeña de eso me libraba bastante, pero limpiábamos la ropa del fútbol, del Club Deportivo Hernani, para ayudar en casa, porque también éramos bastantes y sólo el padre traía salario” (Maite)

Gizonezkoek etxean “lagundu” egiten zuten, beren borondatearen baitan, emakumeena berriz betebeharra zen. Eta noski, gizonezko asko pribilegio horretaz baliatzen ziren.

“Fabrikaz aparte, etxian ere lana iten genun. Ama alargun gelditu zan eta nere anaiak gerran zeuden, (bi Frankonkin ta bat Frankon kontra), ni alaba zaharrena nintzan ta nei tokatu zitzaidan laguntzia. Ordun eskuz soldaduen erropak garbitzen genitun etxian, ikuiluan arraska genun. Ez genien kobratu nahi baño pagatzen ziguten, soldadu nazionalak” (Ixabel)

Zaintza lanetarako ere emakumeak ziren arduradun, jendarte osoan eta horren arabera antolatzen ziren.

“Nik esan nion gizonai... ezkondu behar degu nere etxea, nere ama ez det utziko bakarrik etxian, zuk dakazu arreba etxian” (Ixabel)

Urtea: 1939

Tokia: Perkaizteki kaleko "Segundo Sarasua" jatetxearen atzealdean, gaur egungo Atzieta kaleko Deportibo taberna.

Deskribapena: Santiago Carrero lantegiko emakume langileak. Argazkian ezker aldean, lurrean eserita dauden lau emakumeak, tabernako sukaldari eta zerbitzariak dira. Egun honetan alaba zaharrena, Maria Luisa Carrero, Luis Aizpurua Reynosa comandante-coronel militararekin ezkondu zen.

Interpretazioa: Lantegiko nagusiaren alaba ezkontzen zenez, ohiko arropa zaharrak alde batera utzi eta emakumeek euren jantzi dotore eta txukunenekin ageri dira argazkian: alkandorak, takoizko zapatak, orrazkera dotoreak.... Denak ere pozik daudela dirudi, bazkari eder batez gozatzeko aukeraz kontent. Atzekaldean, eskuinean haur batzuk ageri dira, emakumeei begira; "zer egingo ote dute hainbeste emakumek batera?" euren buruari galdetuko baliote bezala.

Santiago Carrero, lantegiko jabeak, seme-alabaren bat ezkontzen zenean lantegia itxi eta langile guztiak bazkaltzera gonbidatzen zituen. Emakumezkoak alde batetik eta gizonezkoak bestetik, bananduta.

**Ageri direnen izen batzuk:**

1. Angelita Ruiz Goikoetxea
2. Maritxu Arrondo Insausti
3. Pilar Urzelai
4. Iñaxi Goñi Oiarzabal
5. Pilar Arrondo Insausti
6. Vicenta Bengoetxea Urresti
7. Martina Bengoetxea Urresti
8. Juanita Arrieta
9. Maria Cruz Uria Ecenarro
10. Maria Gines Cardoso






FOTO SACADA EN LA PLAZOLETA
DE SANTIAGO CARRERO:
DE PIE: AMATEA MARIA ORTIZ-
AMACHAGA: IVARRA GREGORI ARAN-
BURU.
NIÑA: ZIKUÑAGA RUIZ MINER
PREPARANDOS, PARA LA BODA
DEL NIÑA PATXI MINER Y
REGINA ALONSO.
FECHA 2 DE MAYO DE 1.970

Urtea: 1970

(argazkia koloretan dago eta Seat 850 autoa garai hartan zabaldu zen batik bat).

Ageri direnen izenak: Maria Ortiz Zubeldia, Gregori Aranburu Otegi eta Zikuñaga Ruiz Miner (haurra).

Tokia: Carrero lantoki kanpoaldea.

Deskribapena: Carrero lantegi kanpoaldean bi emakume eta haur bat kotxera sartzekotan.

Interpretazioa: Argazkiaren atzealdean idatzita dagoenari jarraiki, hiru emakumeak ezkontza batera zihoazen momentua irudikatzen du argazki honek. Azken prestaketa lanetan daudela dirudi; beltzez jantzitako emakumea, soineko zuridun haurrari azken ukituak ematen ageri da, haurraren amonaren begiradapean.

Garaiko kotxea prest dute, ateak zabalik, lehenbailehen abiatzeko ezkontza lekura; eguneroko lanetatik at, lantokia atzean utzita.

Aurretik ere aipatu den moduan, fabrikako eta etxeke lanez gain etxeke ekonomiari "laguntzeko" hainbat lan egiten zituzten emakumeek. Lanaren kultura oso zabaldua zegoen, beharra zegoen eta hamabi lanorduko egunek ere ez zuen ematen bizirauteko.

"Las bolsas de celofán se hacían en la fábrica y luego fuera de la fábrica. Yo me acuerdo de mis hermanas, hacían doce horas en la fábrica y pero luego venían a casa y se hacía en casa ese tipo de manipulación. Había aquí un almacén, que entonces también dependía de la papelería de Zikuñaga y daba trabajo a casas. Te pagaban "X" dinero, por trabajo realizado" (Maite)

"Teníamos un local en Astigarraga, y ella y yo hacíamos punto. Hacíamos jerseis y cosas de esas. Pa sacarnos unas xoxas. Claro, es que si no ¿qué haces? No vas a estar siempre pidiendo. Además no era como ahora. Ahora, todo está como más fácil y así. Pero entonces... Se notaban más las diferencias, de clase. Eso también algo ya hemos adelantado. Que no se noten las diferencias" (Paula)

Hernanin zelofan poltsak etxean egitea oso ohikoa zen, emakumeek egiten zituzten, eskulanak emakumeenak kontsideratzen ziren eta. Zelofan poltsak egitea emakumeei atxikitzen zitzairen lana zen, lan eskubiderik gabe, beltzean ordaindua eta produkzioaren arabera ordaindua.

"Después de trabajar en la empresa, mis hermanas mayores normalmente hacían bolsas de celofán, aquellas trabajaban en una sección de celofán, aquellas secciones eran mixtas, hombres y mujeres, y bueno hacían bolsas, hacían también con el papel manipulado para las cajas de los higos, unas cositas de adorno, y bueno... entonces en unas manualidades que entonces se consideraban de mujeres o trabajos que se consideraban de hombre. Entonces, lo mismo que en las escuelas estábamos distinguidos, chicas a un lado, hombres a otro, pues de la misma manera" (Maite)

Lana, lana eta lana. Bizitza gogorra, bizirauteko lana gogor egin behar eta zaintza lanak ere, emakumeen esku.

“(Fabrikan...) Se hacían Bufandas, y mantillas, que hacían en maquinas y luego nosotras, precisamente yo, una de ellas me traían a casa y me pagaban cuatro pesetas la docena (...); en la fabrica ganaba yo 16 pesetas a la semana y eso. A los ocho años empecé a aprender de peluquera, entonces de doce a dos me iba a peinar a la gente que me llamaba, peinar un moño o lo que sea, me daban una peseta, cobraba las tarjetas del club deportivo de Hernani que me pagaban un real cada una, y solía ir pues al puerto, a ... todo lo que es Hernani, y así sacaba unas pelitas. Y luego pedí permiso, porque trabajaba de seis a dos hasta hacer clientela, porque yo me quería establecer pero ni había ni tenía tiempo, y me hacía falta el sueldo para mi madre, entonces yo trabaja de seis a dos, aquello le daba a mi ama, y luego me establecí en una habitación de casa entonces. Con lo que ganaba a las tardes pagué las secadoras de la peluquería, claro no había chau chau... y así estuve treinta y cinco años de peluquera hasta que lo dejé, porque se quedó mi madre en la cama incapacitada” (Loli)

Zaintzarena lan lotua eta neketsua da. Eskubiderik gabekoa. Familia harremanak baliatuz lotu izan dira emakume asko, besteenganako arduraz, norbere buruaz arduratu gabe.

“Senarra zekan gaxo. Zumarrakoa zan ta zeon gaxo. Ta jute zan Esteban lota. Baino ne attan da lengusu horrek etzun nahi, gizona. Emakumea nahi zun, un poco de amparo. Harrapatu zuten nere ahizpa ttikina. Baino geo zer pasatze zan, oi zan gaztena, festeta ta deneta primera fila, baina oik zian.. a la antigua. Ta ez, ez, ez, ez... Beatzi terditan etxea, y tu no sales. Y ella que dijo, vete a la porra. No me pescáis a mí. Y me pescaron a mí. A la mayor. A la más tonta. Ta orduan, ara joaten nitzan lota. Ta igual pasa nittun an hogeita bost urte lotan(...) Ta nik esan nun, ta nik hemen ze puñetas itet? Ta gaurko o biharko nik ze postura dakat? Dana dijua aldatzen, aldatzen, aldatzen ta esan nun.. nik? Hemendikan libratzeko, porque esto es un yugo. Sin ser nada, lo que dice ya para mí, la familia te acaparan y como si fueses de casa. Y tienes que ir a pedir a tu madre dinero para..; para salir, pa comprarte medias.. yo así no voy a vivir” (Paula)

Urtea: 1943


Tokia: Fábrica de productos químicos
Aritzarena kanpoaldea.

Deskribapena: Fabrikaren inaugurazioan
aritutako dantza taldea talde-argazkian
erretratauta. Tartean gizonetako bat ageri
da trajez eta gorbataz. Beste guztiak,
dantzariak, dantzariz jantzita daude.

Interpretazioa: Trajedun gizonetako
seguruenik fabrikako jabea izango zen.
Aipatzekoa da laneko argazkirik ez dela
jaso, inaugurazioko argazki hau, bai
ordea.



baserria



4.2. BASERRIA

Sarritan emakume baserritarra, euskal emakumearen prototipotzat hartu izan da. Familia barruan, jendarteko oinarritzko zutabe gisa hartzen zen eta emakumea boteredun gisa aurkezten zen. Ikusiko denez, ordea, jendarteko beste esparru guztietan bezalaxe, Frankismoaren eragin gehiago eta gutxiagorekin, aurretik eta ondoren, gizon eta emakumeen artean sortutako desorekak nabariak dira, baita baserrian ere. Sexuen arteko lan banaketa, aisialdiaren erabilera desorekatua, maiorazkoa edota harreman sozialak, horren lekuko dira.

Baserriak bere baitan, berezitasun batzuk ditu beste esparruekiko; etxea eta lantokia bat izatea, ekonomia formalarekiko harreman txikiagoa izatea (soldatarik ez eta diru sarrerak produktuen komertzializazioaren baitan), garraiobideak mugatuagoak eta distantzia/denbora handiagoak behar izatea (baserrien artean alde nabarmenak bazeuden ere), lana kanpoan ere egin behar izatea (eguraldiaren eta urtaroen eragina) eta lana "lotua" izatea (animaliekin eta produktu freskoekin lan egitearen ondorioz), esaterako. Era berean, guda ondorengo Frankismo hartan, eguneroko elikadura bermaturik izateko aukera handiagoa zuten, Estatuak baserrietan eta baserri auzoetan eragiteko aukera gutxiago izan baitzuen eta euskarren transmisioa eta erabilera mantendu ziren, besteak beste.

Urtea: 1970 hamarkada.

Lekua: Elutxeta baserri inguruko baratza.

Ageri direnen izenak: Juana Loinaz.

Deskribapena: Juana Loinaz baratzean lanean, aitzurrarekin.

Interpretazioa: Emakume baserritarra ageri da baratzekeo belar txarrak aitzurrarekin ateratzen. Jada urteetan aurrera badoa ere "gerri onak" ditu. Soinekoa, aurreko amantala eta abarkak ditu jantzirik.





Urtea: 1970 hamarkada inguru.

Lekua: Elutxeta baserri inguruko baratza.

Ageri direnen izenak: Juana Loinaz

Deskribapena: Juana Loinaz baratzean lanean, aitzurrarekin.

Interpretazioa: Emakume baserritarrak baratzean lanean ari dela tartetxo bat hartzen du, argazkirako pausatuz.

4.2.1. Baserriko lan banaketa

Aurretik aipatu den moduan, baserrian ere sexuen arteko lan banaketa ematen zen, nahiz eta eginbehar batzuetan lana partekatu. Beste esparruetako emakumeen modura, "etxeko lan" deituak izan diren guztiak emakumezkoiei zegozkien; elikagaiak prestatzea, haur, gaixo eta helduen zaintza lanak, jostungintzako lanak etabar. Baserriko lanak (baratzeko lanak, animalien zaintza) partekatzen ziren, bertan ere, eginbehar jakin batzuk banatzen baziren ere. Gizonezkoiei zegozkien lanak ere baziren (basolanak esaterako). Beraz, "etxeko" esparrua emakumeari zegokion eskusiboki eta gizonezkoa etxeko lanetarako libratuak zegoen. Baserriko lana berriz, oro har, partekatua zen.

"Emakumiak era guztitako lanak iten zituzten, gizasemiak iten ez zituztenak" (Ereñotzuarrak)

"Goizian sua pixtu poxpoluakin ta heltzia jarri, otordua jarri, erropak garbitu, arropa zaharrak konpondu, peta-txuk... denetan haitzen zian, kanpun lan asko!" (Ereñotzuarrak-gizonezkoa)

"Geo igual belarrak biltzea o zeoze, bihar zun emakumiak ta danak!" (Arantxa)

Era berean Ereñotzuarren ondorengo testigantza honek esaera zahar zehatz batekin lotura zuzena du:

"Gizasemiak etortzeako otordua ez bazeon pronto.... Ufa!" (Ereñotzuarrak)

"Gizona lanetik datorreneko, sukaldea garbi eta begiak argi" (Esaera Zaharra, Garate)

Beraz, kasu honetan behinik behin, orduko ahozko ondare kulturalak eta garaiko emakumeen bizipenek bat egiten zuten. Argi azaltzen da, zein zen emakumeen tokia eta eginbeharra. Emakumeek lan guztiak egin zitzaizkien arren, lan horiek ez egiteko bestelako estrategiak egon zitezkeen tartean:

"Baserrin ne amak eta jende askok behiak bildu ta dana, baiño ne amak, esaten zuten ne ahizpak, etzietela beiñe utzi ez segan... Ez ikasteko segan ta ezta behiak biltzen e! Zeaitikan bestela gizonak feria jun ta etziala etortzen." (Arantxa)

Baserriko lana "lan lotua" zenez (animaliekiko menpekotasuna kasu honetan), emakume batzuk lan batzuk ez ikastearen estrategia hartuko zuten. Izan ere, bestela lan horiek ere beraiek egin beharko zituzten. Era berean, gizonezkoen aisialdia nolabait "naturalki mugatzea" ekarriko zuen.



Urtea: 1950-1960. hamarkada.

Lekua: Bezkita baserria.

Ageri direnen izenak: Manuela eta María Agirre Zugasti (ahizpak) eta Luis Antonio Lizeaga Agirre (haurra, bi emakumeen iloba).

Deskribapena: Bi emakumeak eta haurra argazkirako pausatuz daude.

Interpretazioa: Udako egun eguzkitsu bat dela dirudi, arropa arina dute eta emakumeetako batek zapi buruan. Baserriko atarian daudela dirudi atzean arropa zintzilikatzeko soka eta pintzak ageri dira.

4.2.2. "Larre motxian hezitutakoak"

Baserrian lanean edo laguntzen behinik behin, oso azkar hasten ziren. Izan zitekeen, anaia-arreben zaintza, babarrunak edota artoa aletzea, ardiak biltzea... lan guzti horiek dozena bat urte bete aurretik eginak zituzten hainbat elkarriketatuk.

"Ordun jun behar izaten bazun inistorreta (garoa biltzea ikuiluko zolarako) edo, Eguzkitzakoak laguntzen zion Agerrekoari, ta Agerrekoak Eguzkitzakoari. Ta ordun Eguzkitzakoak zan, harreman handia genuen, elkar laguntzen ziran danatan. Puntakoak erantsi behar izaten zaizkion idiei goraino laguntzeko...Santa Barbara berritu zanian idi pare batekin ezin zan materiala igo goraino, ordun bi idi pare behar ziran eta inistar jorna ekartzen zanian.... Ayuntamentuak jartzen zittun lotiak eta egiten ziran sorteatu, sortea egiten zanian bakoitza juten zan sorteora eta guri adibidez tokatzen zitzaigun Akola, ta hurrengo urtean Epelerreka, handikan inistorra jorna ekarri egin behar zan etxea, baino idi parekin oinez jun eta oinez etortzeko kargakin, Altxarmoneko malda ezin zan igo beste idi pareka ekartzen zan Eguzkitzatik, puntakoa ekartzeko. Hoiak hola izaten zian eta beti ni nitzan idi paria jeisten, Altxarmoneaino, Eguzkitzatik. Eta ni nitzan ematen zuna Epelerreka idiak Eguzkitzako osobakin". (Ihintza)

Eskolak baldintzatzen zuen eguneroko lan jarduna. Eskola bukatu arte, baserriko lanak partekatu behar izaten zituzten eskolan ematen zituzten denborarekin. Halere, eta lehenago aipatu denez, askok eta askok ordea bigarren mailako ikasketarik egiteko aukerarik ez zuten izan eta 13-14 urte beteta lanean hasi ziren eskusibitatez.

"Eskolak ni hamalau urte arte junitzan. Ni hamahiru arte. Ni ikaragarri gustoa jutenintzan; Fagollagan genuen guk eskola. Ni berriz Arriatsua jutenintzan; gui dena erderaz itten ziguen, Escuelas Publicas baitzien, mutil ta neskek separatuak" (Ereñotzuarrak)

"Inguru ruralaguan neska ta mutilak batea juten ginan eskola ta euskeraz gainea" (Ereñotzuarrak)

Azken testigantza hauek, Frankismoak eta estatuak oro har, baserri auzoetan eragin gutxiago izan zutela baieztatzen dute. Herrian gertatzen zen moduan, arratsaldeetan, "laboreak" ikasten zituzten neskek.

"Eskolan, atsaldetan, josten erakusten zieten emakumiei, bordatu etab. Arreoa (ezkontzarako) prestatzeko ikasten zuten" (Ereñotzuarrak)

Herritik gertuen zeuden baserrietakoak, herriko eskoletara joaten ziren, herri gunean bizi ziren beste haurrekin batera.

"Colegioko kultura ere hala zan, más bien "Sección Femenina". Ematen ziguten, pues nik ikasi nun dantzatzen, un baile de cada autonomía y una canción de cada autonomía. Yo la sardana bailo muy bien. Dana erakusten ziguten. Dana pero "Sección Femenina", hor sartzen ziran danak, toda España" (Ihintza)

"Nei maistrak bien kastigatu zian, bakizu zeatik? "cara al sol" kantatu berzan ta eskua altxata ta nik eskua altxatu ez! Behin enun altxatu!" (Ereñotzuarrak)

Beraz, baserriak herri gunetik gertu edota urrutiagoko auzo guneeetan egoteak Frankismoa eta estatuarekiko eragin gutxiago edo gehiago izan zuen. Auzoetako eskola batzuetan neska mutilak elkarrekin joaten ziten eta eskolak euskaraz ematen ziren. Herri gunean aldiz, neska mutilak eskola ezberdinetan banaturik zeuden eta Frankismoaren eragina askoz ere handiagoa zen.

Eskolak irauten zuen denboran ezin lanik egin, baina goizean goiz, arratsaldean edo oporretan, ez zegoen etxean lanik egingo ez zuen baserriko seme-alabarik, "larre motxean hezitutakuak" baitziren:

"Ni amakin jutenintzan; ama berdurak saltzen gelditzen zan ta ni esnia partitzea, 6 litroko marmitakin etxez etxe, ta geo bueltan Astiarra eskola" (Ereñotzuarrak)

"Baserrin leheneanago jun behar nun belarreta merienda ematea, belar biltzen ari ziralako edo artoa ereiten ari ziralako... artoa ereitea edo baratzen porruk aldatzeko laguntzea, askoz lehenago zer ya pasatzen nun, goiza, esnea partitu, magisteritza jun, etxea bueltatu eta gero lana zer" (Ihintza)

4.2.3. Baserriko produktuak merkaturatzea

Urtea: 1950 inguru.

Ageri direnen izenak: Manoli Urruzola.

Deskribapena: Emakumea astoarekin bidean barrena doa.

Interpretazioa: Manoli Urruzola egun argiz astoa hartu eta feriara doala dirudi. Esku batekin astoa gidatzen du eta beste eskuan poltsa duela dirudi. Astoak saskiak beterik ditu, beharbada ferian baserriko produktuak salduko zituen eta. Buruan zapia du, betaurrekoak eta soineko eta jertse nahiko dotoreak, baserriko lanetako arropak baino kalera jaisteko modukoak. Atzean, eskuinaldean berriz, hiru haur ageri dira.



"Lagun batzuk banittun lotsa ematen ziotenak ta nik, nahiz kalan... nei etzinan lotsik ematen astuakin!" (Arantxa)

“Hamasei urteako ni plaza jute nitzan Donostia. Juanantonen hartu astua, kargatuba, atzea zijuana gehio ta jeiste giñan Sansonategin barrena behera Martindegia ta Martindegin tarte hortan barrena Txalakan barrena... danak ordun hor sagastiyak zian eta tranbia pasatzen zan goitik, tranbian zubin pasa ta Ergobia. Ergobin eote zian guardabinuak, los guardias municipales ta han pagatu behar izate gendun hoinbeste berdura, ta hoinbeste zama zun gutxi gora behera eta Donostia” (Arantxa)

Baserriko ekonomiaren zutabe nagusietako bat, produktuen merkaturatzeak edota trukeak zekarren. Izan ere, aurretik aipatu modura, baserriaren ekonomia biziraupeneko bazen ere, bestelako produktuak eskuratzeko ohikoa zen baserriko soberakinak saltzea. Gerra ondorenean esaterako, oro har baserrietan ez zuten goserik pasa, etxeko produkzioarekin beharrak asetzen zituzten eta. Eta beharrik bazegoen, premiazko beste produktu batzuentzat trukatzeko zituzten baserritik lortutako produktuak:

“Baserrikok goseik ez genuen pasa (baratza, animalik, arrautzak...). Bestelakok behar ginitunen Donostia jun ta kanbiatu itten ginuzen. Arrautzak saldu ta sardin zaharrak hartu, atuna... Ogia genunian bokadiyuan atuna ta maihonasa jaten ginun! (Ereñotzuarrak)

Beste atal batean esan den moduan, baratzeko produktuak, produktu freskoak, esnea eta animalia txikien merkaturatzea, emakumezkoen esku zegoen. Hauek eguneroko lanak izaten ziren, lan lotua, aste egun edo jai egunetan egin beharrekoa. Aldiz animalia handien merkaturatzea gizonen esku zegoen, truke mota hau urtean 5-6 aldiz gertatzen zelarik:

“Ahizpak ta hartu zutenian Bretxan puestua ama ta aurrian jartze zian ta gu... klaro ordun igandietan ta dana, ta ahal gendun guztin laguntzea jute giñan!” (Arantxa)

“Igandietan esniakin ta aste egunian pues... ni hasi nintzanian ya hamasei urtekin bai, bai, hamabost edo hamasei urtekin baño puestuan beti izaten zan ahizpa” (Arantxa)

“Hamar urtetatik hogeita hamar urtearte ibili nitzan” (Ereñotzuarrak)

Urtea: 1957

Lekua: Santa Barbara auzoan.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik hasita, Juanito Urruzola (haurra), Paki Aranburu eta Ixabel.

Deskribapena: Bi emakume ageri dira bakoitza asto batekin. Astoak kargatuta daude, saskiak, marmidak... azokako produktuen salmentarako garraiobidea. Astoetako baten gainean ume bat dago.

Interpretazioa: Segur aski azokatik bueltan ateratako argazkia izango da, izan ere, kartolak erdi hutsik edo hutsik ageri baitira. Goiz guztia merkatuan egon eta gero haurra topatzen duten unea dela dirudi. Argazkiko protagonistak emakumeak dira eta beren eguneroko laneko une bat geldiarazten du argazkilariak.



"Esnia partitzea joaten bazan, etxean norbaitek gelditu behar zun" (Arantxa)



Urtea: 1962

Lekua: Mallus (Laubidieta inguruan).

Ageri direnen izenak: Inaxi Urkizu
Altuna eta Estebantxo eta Eulalitxo
(Lalitxo) haurrak.

Deskribapena: Emakume bat astoarekin
(azokan saltzeko produktuekin); eta asto
gainean bi haur.

Interpretazioa: Emakumea beltzez
ageri da, lutoz. Eskuan astoa du loturik
eta honen gainean bi haur. Azokara
joan-etorrian dagoela ematen du
emakumeak, astoak kartolak jarrita ditu
eta erdi beteta daudela dirudi, azokatik
bueltan seguru aski (eguzkia goian
ageri da eta azokara goizean goiz joaten
ziren).

Produktuak merkaturatzea, garaiko garraiobideak kontuan harturik, lan astuna zen; denbora asko eskatzen zuen. Lan eguna beraz, goizean goiz hasten zen.

"Tranbiaraino juteko astuan ordubete; goizeko seiak laurden gutxi jaiki eta beti izaten non inbidi bat... zortziak arte lo itekua, ezintzan; baño ayatu zait e!" (Ereñotzuarrak)

"Zortzitako tutua, tutua jotzen zituzten fabrikak, hasi laurden gutxitan eta handikan bi minutua beste bat... tuuu, tuuu! la ordu laurdena tutua joka! Ni ia orduako batxuri zopa inda utzi behar niñan gosaltzeko gizonantzako, eh? (Ihintza)

"Marmidak eta dana tranbian bidaldu, ni bederatzitan magisteritza jun, etxez etxe partitzen nitun, Calle Larramendi, Easo, Andia, Hernani eta La Bretxa. Kliente fijoak genitun. Etxea marmitakin igotzen nun esnia. Bi marmita hartu, ta biakin partitzen non. Aurrena, a la calle Larramendi, gero pasaba a Easo, luego pasaba a Andia" (Ihintza)

Frankismoan gainera, produktuak merkaturatzeko kontrol zorrotzak pasa behar izaten zituzten; bi kontrol aldiko, bat garraiatzen zituzten produktuen baitakoa eta bestea esnearen kalitatearen baitakoa:

"Guk hemen ere bagiñun arbitrios, Francon palazioa bukatzen darian, deklaratu behar zedun zer zamakizun, deklaratu behar zedun zenbat berdura, zenbat esne pasa behar ziñuzen. Eta gero zan beste inspeksioa, Donostian, haber esniai ura botatzen ziozun. Zu marmitakin zoazela harrapatzen bazinun, begiak erne ibili behar zenitun han calle Easo ta bai hantxe zeterrek eta portalian sartu, ta pasatzen zanian atera, osea tranpak, tranpak, holakoxe istorik genitun garai haietan. Urte haietan guztitan bazan arbitrios ta bazan inspeksioa esniana. Sartzen zuten termometro bat bezala ta ura bazakan edo ez ta dana beak ustutzen zizuten bazeraman ura" (Ihintza)

Garaiko egoera kontuan hartuta, legeari "tranpa" egitea ohikoa zen, irauteko. Frankismoak bultzatutako arrazionamendua tarteko eta oinarritzko produktuen eskasia medio, "merkatu beltza" indartu zen. Aurretik aipatu modura, "estreperlo txikia" emakumei zegokien eta merkatuko postuak erabiltzen zituzten estalgarri gisa.



*Hernaniko tranbia Plaza Berrian, 1950.
Iturria: euskomedia.org*

Urtea: 1945

Egilea: Vicente Martin, Estudio Foto Car.

Artxiboa: Kutxa Fototeka.

Lekua: Bretxako Merkaturia.

Ageri direnen izenak: Ezezagunak.

Deskribapena: Mujer baserritarra vendiendo sus productos en el exterior del mercado de "La Bretxa". Venta de leche (Kutxa Fototeka).

Interpretazioa: Argazkilari profesional batek ateratako argazkiak dira honakoak, zehazki, "esnea saltzen" seriekoak.

*"Batzuk Bretxa;
bestiak San Martinea,
bakoitzak bere lekua zun;
esnia, berdurak, fruta..."
(Ereñotzuarrak)*

*"Jarri zuten puesto bat Bretxan
para sobrevivir" (Arantxa)*



Bretxako merkaturia emakume baserritarrak hiritarrei esnea saltzen ageri dira. Erdian ageri den saltzailea marmita handitik txikira pasatzen ari da esnea. Marmita handia baserritarrak zekarren eta txikia berriz erosleak. Hainbat saltzaile ageri dira, marmita ugari azaltzen direlarik. Emakume saltzaileak txukun jantzita ageri dira eta ilea ondo zainduta.

Emakume baserritarra Bretxako azokako postuan ageri da, saltzeko produktuak inguruan dituela, esnea marmitetan, aurreko saskian arrautzak etabar. Bere baitan dago liburu bat irakurtzen argazkilariak argazkia atera diola konturatu gabe. Baserritarra ezjakina denaren usteari aurre egiten diela dirudi.

4.2.4. Lan, lan eta lan, aisialdirako tarterik gabe!

“Lana baseritik kanpo? Nahikua baserria eta etxia ta gañea Donostia jun biharra” (Ereñotzuarrak)

Baserriko lanek denbora eskerga eskatzen bazuten ere, etxeko lanak emakumeek egiten zituzten. Etxeko kideen otorduak prestatzea, arropa garbitzea... eguneroko lanak ziren:

“Ni makina bat aldiz Donostitik etorri eta jun naiz gizonai bazkaia ematea mendia” (Ereñotzuarrak)

“Ni Donostitik etortze nitzan ta pues arropa pixkat beratzen jarri ta geo itturia jute behar izaten gendun garbitzea zeaitikan etxian urik etzan, depositua bertan baño gue etxia nola altugo zeon ta geo etzan aillatzen argiyik e... (Arantxa)

“Atsaldetan negun jostea, goizian esnia partitu eta lan guzik indiakuan, jostea... Beharko gustatu, bestela lanea atxurakin jun biharko ta...” (Ereñotzuarrak)

Herri guneko emakumeen modura, baserrietan ere zelofan poltsak egiten zituzten bertako emakumeek, diru sarrera estra gisara.

“Etxian in lan poltsak (zelofan) geo zikuñagako fabrikako, boltsak karameluentzako. Zinkoneko fabrikak etxian iteko lana ematen zun” (Ereñotzuarrak)

Ez zuten ia denbora librerik izaten, lana, lana eta lana:

“Enun denborik izaten. Beandu jun baserria, ya bazkaltzeko ordun bazkaldu, geo pixkat etzan, siesta pixka,t gutxi; ta geo izaten zenun, arropa dala, bestia dala...” (Arantxa)

Gizonezkoek gogor lan egiten bazuten ere, beren lana ez zen, orokorrean, hain lotua. Emakumeen kasuan gainera, gizonezkoen ordutegien menpe egon behar izaten zuten. Izan ere, otorduak prestatzea emakumezkoen lana zen.

Urtea: 1950-1960. hamarkada inguru.

Lekua: Juan Anton baserri kanpoan.

Ageri direnen izenak: Zerbitzari, Juanita Urruzola, lehen planoan, Erdozia anaiak.

Deskribapena: San Juanetako bazkaria. Mahaian eserita gizon koadrila bat ageri da. Zutik berriz emakumea zerbitzari. Ez dira konturatu argazkia atera dutenik.

Interpretazioa: Hernaniko San Juan jaietako lagunarteko bazkari bat da. Mahaiaren buelta guztian gizonak ageri dira, adin bertsukoak asko. Zerbitzaria, emakumea, amantala jantzita.





Urtea: 1960. hamarkada hasiera.

Lekua: Juan Anton baseri kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Zutik Joxepa Erdozia, eserita Maria Iribarren (bere ama).

Deskribapena: San Juanetako bazkaria. Emakume taldea ageri da mahairen albo batean bazkaltzen. Iribarretsu ageri dira, ospakizunean. Bat zutik zerbitzari lanetan.

Interpretazioa: Hernaniko San Juan jaietako familia arteko bazkari bat da. Emakumeak soilik ageri dira. Biak daude amantarekin, zutik alaba, zerbitzari lanak eginez. Azpimarratzekoa da bi emakumeak aurreko amantarekin ageri direla, bazkaria prestatzea beren esku egongo zen seguruenik.

Urtea: 1963. urtea

Lekua: Juan Anton baserri kanpoaldea.

Ageri direnen izenak: Maria Rosa Yarza Erdozia (zutik), Dolores Erdozia (ezkerretik 1.goa), Teodora Iribarren (ondoan) eta Jose Antonio Erdozia "Patas".

Deskribapena: San Juanetako bazkaria. Familiako kideak ageri dira mahaian eserita. Bi gizona eta bi emakumezko. Zutik, zerbitzari lanetan dabil emakumea.

Interpretazioa: Hernaniko egun handiko (San Juan eguna, herriko patroia) bazkaria. Bertan, familiako kideak ageri dira lehenengo planoan. Kamerari ez diote kasurik egiten, beren arteko elkarrizketan eta jaten ari dira. Zutik dagoen neska, bazkaltiarrei begira dago, hurrengo platera noiz zerbitzatu aztertzen, eskuak gerrian dituela.



Aisialdirako ia ez zuten tarterik baserriko emakumeek, gizonezkoek berriz askatasun gehiago zuten; tabernara jokora, pilota partiduetara, azoketara... tarterik bazuten, probestu ohi zuten.

“Emakumiak lanea juten zian, gizonak alperrik etxian gutxi eoten zian” (Ereñotzuarrak)

Neskatxoek zuten aisialdirako ia aukera bakarra jai egun arratsaldeetako erromeria izaten zen.

“Tilosetan askotan jutenintzan ni, baño piezik dantzatu be etxea; sei ta erditan haste baitzan, kar, kar, kar, etxea junbiar! Amona lehiotik sumatzen non nik “eee” eztarria earki muitzen zun...” (Ereñotzuarrak)

Urrutiko baserrietako neskatxoek ordea, aisialdirako tarte hori ere mugatuago zuten eta etxeko kontrola zurrunagoa. Erromeriako unean jendartearen indarrean zeuden genero rolak erreproduzitzen ziren; gizonezkoa gonbidatzailea, aktiboa, dirua duena, botereduna azken batean. Emakumea berriz, gonbidatua, pasiboa, dirurik ez duena, ezezkoaren botere mugatua duena:

“...Mutilei esperuan limonada hartzeko, guk ez ginun diruik izaten ta...” (Ereñotzuarrak)

Era berean, baserritarrek lotura zuen guztiak, gutxiespen-zentzu bat hartzen zuen, oro har, baita erromeria egiten zen tokiak ere:

“Oialumek fama txarra zun “baserritarrena” Tilosek beste zea bat zun...” (Ereñotzuarrak)

Era berean, euskaldunak eta baserritarrak batez ere, gudaren galtzaile izanagatik, baztertuak eta gutxietsiak izan ziren, hiria (boterea) eta landaren arteko tentsioan:

“Aurrea ateatzeko o lo que sea bi puesto hartu zuten eta geo han puestuan, joe oso gaizki pasatze zuten han nere ahizpak, zeatikan las rojas, de las republicanas, ta ordun... zeak jute omen zian milizianuak hola zeoze eostea, gazta ta” (Arantxa)

“...Para cualquier papel del ayuntamiento y tener que expresarse en castellano. Para cualquiera que bajaba del caserío e igual no le timaban, pero esa gente salía con la sensación de me han timado. Se le ha engañado más a la gente de caserío que a la gente que ha venido (espainiar Estatuko migranteak)” (Maite)

Urtea: 1950-1960. hamarkada inguru.

Lekua: Juan Antonio baserri inguruan.

Ageri direnen izenak: Maria Rosa Yarza Erdozia (eskuina) eta lagun katalan batzuk.

Deskribapena: Lagun talde bat eta hauen semeak ageri dira baserriko belardian eserita. Emakumeak eta hauen haurrak ageri dira eta erdian zakur bat. Emakumeak bigarren planoan agertzen dira.

Interpretazioa: Emakumeak, baserriko belardian patxadan berriketan daudela ematen du. Halere, umeak inguruan dituzte, beren zaintzaren kargu daudelarik.



4.2.5. Ezkondu eta gero; hobeto!

"Ezkondu ta gizon bakar bat, bestela zazpi gizonen zeak garbitzea eta egunero Donostia ta bueno..." (Ereñotzuarrak)

Goiko testigantzan antzematen denez, neska gazte askok "neskame" gisa egiten zuten lan, baserriko gizonen "neskame". Lanen banaketa asimetrikoa zen, "etxeko Jaunen" menpekoa. Jokabide hori naturalizatua zegoen, "emakumeek egin beharrekoa" baitzen. Ezkontzean aldiz, emakumea boteretu egiten zen "etxekoandre" bilakatuz. Gizonen menpeko izaten jarraitzen zuten, lanen banaketa asimetrikoa mantentzen zen, baina emakumeak erabakiak hartzeko "eskumen" gehiago lortu ohi zituen, "etxeko martxaren ardura" hartuz, oro har:

"Gure etxian emakumiak eman bihar du etxeko martxa, bestela alperrik da gizonak lana itia ez bakizu ondo administrazten. Ganadua, o holako zerbait zanian, pues hau ingo deu, hola, hoi ya gizonana zan, hoi gizonena zan" (Arantxa)

Baserria unitate gisa ez banatzeko, baserriaren biziraupena mantentzeko, seme-alaba guztietatik bat geratzen zen "etxeako". Maiorazkoaren baitan, etxeko seme edo alaba zaharrena izan zitekeen:

"Zaharrena gelditzen zan etxiakin ta bestiak fuera. Gizon o emakume? Gizonak. Baño (emakume izena, baserri izenekoak) bea gelditu baserrikin; anai zaharrena hamalau urtekin Argentina juntzan ta... etorri ta jun hala dabil. Makina bat lana indu (emakume izena, baserri izenekoak), ta iteu! Baño normailian gizonezkua izaten zan etxeako, hamahiru senide ta bera nagusi, etxeko karga beak hartu! (Ereñotzuarrak)

Beraz, emakumeak ere izan zitezkeen "etxeako", baina gertaera ez-ohiko moduan aipatzen dute ereñotzuarrek. Maiorazkoa gizonezkoarekin irudikatzen dute.

"Ni nagusi ta etxekoandre!" (Emakumea-Ereñotzuarrak)

Testigantza honek argi adierazten du baserriko bi rol nagusien arteko bereizketa; nagusia eta etxekoandrea. Oro har, nagusia gizonezkoa zen, "etxeko jauna"; azken erabakiak bere baitakoak ziren; jabetzak bere izenean egongo ziren, bere sinadurak izango zuen boterea. Emakumeari aldiz, botere kuota bat aitortzen zitzaion, "etxekoandrearena", etxeko martxa bere baitakoa zen eta etxeko ekonomiaren kontrola ere, berak eman zezakeen. Aurretik aipatu moduan, 1975eko datu ofizialetan hiru emakume baserritar zeudela azaltzen zen; gizonezkoak berriz, ehun eta hogeita hiru.

Urtea: 1950. hamarkada.

Lekua: Juan Anton baserrian.

Ageri direnen izenak: Dolores Erdozia, Ramon Erdozia (Frantzian bizi zen iloba) eta Adeli Erdozia.

Deskribapena: Bi emakume eta hauen iloba ageri dira baserriko gurdian argazkirako pausatu direlarik.

Interpretazioa: Ilobaren familia Frantziatik bisitan etorri eta familiako oroitzapenak gordetzeko argazkia atera zutela dirudi. Seguru aski Frantzian argazki kamarak eskuragarriago egongo ziren.



"Ni de tripa handiyakin kanalea jutenintzan arropa garbitzea"
(Ereñotzuarrak)

Bestalde, aipatzekoa da baserriaren baitan ere bazirela klase sozialak: neskame eta morroiak klase baxuenekoak izanik:

"Gu morroiakin bizi izandu gera, neskamea ere bagendun, baino morroiakin bizi izandu gera, apopiloak ere bagenitun... Goizen egin lana fabrika batean eta arratsaldean genun baserria lana egiteko, hori ezautu det nik etxian, morroiakin atera da ama..." (Ihintza)

"Nola ginan gu aberatsak, garai hartako aberatsak. Guri ez zitzaigun ezer ere falta, ta nola geunden kolejion... morroiakin giñan, baino batek uzten bazun, pues Leitzakoak izan ditugu, Hernanikoak izan ditugu, izandu ditugu morroiak de toda las clases" (Ihintza)

Testigantzok, Teresa del Valle (1985) emakume baserritarren orduko idealizazioen (Euskal Matriarkatua/matrilinialitatea) gainean ateratako ondorioetako batekin bederen, bat egin beharrean gaude; emakumeari egozten zaion boterearen eta honek errealitatean aurkezten duenaren artean ematen den ezberdintasuna nabaria da.

Kalean bezala baserrian ere, emakumeen lana ikusezintasunera egon da kondenatua. Ez da lan gisa aintzat hartua izan, ez behintzat gizonen lanaren modukoa. Emakumeek ere modu naturalizatuan hautematen zuten, eta dute oraindik, beren lana eta egindako esfortzua gutxienesten dute.

"Baserritarrak baserrin ateatzezunakin bizi behar zun, lana zunak hile bukaeran bazun dirua. Halere askok baserrin ere jarraitu lanian, hoi latza da; fabrikari lan in ta gañea etxian kontu in; Fabrikakua in ta mendi ajutzian" (Emakumeak gizonengatik-Ereñotzuarrak)

Urtea: 1947ko maiatzak 27

Lekua: Eguzkitza baserri kanpoaldean.

Ageri direnen izenak: Ezker eskuin,
goitik behera:

1. Lerroa; Jose María Gonzalez Galdeano,
Milagros Aristi, Jose Mari Urkizu
Ormaetxea, Milagros Erdozia, Ageda
Sasiain Larburu, Kontxa.

2. Lerroa: Blanki Gonzalez Galdeano,
Esteban Etxeberria Urreaga, Boni
Etxeberria Urreaga.

3. Lerroa: Paki Aranburu Urkizu, Miren
Etxeberria Urreaga, Txomin Etxeberria
Urreaga, Pedro Larburu Urreaga.

Deskribapena: Familiako kideak ageri
dira, erdian asto batekin.

Interpretazioa: Familiako kideak
ageri dira argazkirako paratu direla
argi azaltzen delarik. Etxeko andrea
da helduena. Denak pozik ageri dira.
Ospakizun bat dela dirudi "igandeetako
arropa" daramate behinik behin.





Urtea: 1970. urte ingurua.

Lekua: Juan Anton baserri atarian.

Ageri direnen izenak: Maria Iribarren 85 urte ingururekin.

Deskribapena: Emakume baserritarra argazkiaren erdian ageri da, lehen planoan. Baserri atarian dago, eguneroko arroparekin, aurreko amantalarekin.

Interpretazioa: Ohiko egun bateko estanpa da, emakume baserritarra, adinean sarturik, baserriko atarian dago. 85 urterekin aurreko amantalarekin egoteak, bizi guztian lan egin duenaren seinale da, baita adin horrekin ere, erretirorik gabe.

Urtea: 1970. urte ingurua.

Lekua: Juan Anton baserri inguruan.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik hasita: Maria Iribarren, Teodora Iribarren (ahizpak) eta Joxepa Erdozia (Mariaren alaba).

Deskribapena: Baserriko belardian baserriko emakumeak ageri dira lehen planoan. Bigarren planoan bi gizonezko eta emakumezko bat ageri dira.

Interpretazioa: Badirudi baserriko kideak paseotxo bat eman dutela. Aipatzekoa da Mariak aurreko mantala daramala, eguneroko jantzi moduan, lanerako prestutasuna eta lanaren lotura adierazten duelarik.





Urtea: 1951

Lekua: Xarobe baserriko atarian,
Osiñaga auzoa.

Ageri direnen izenak: Kaximira
Aranburu Otegi, Juan Migel Miner
Igarategi, Maitere, Patxi eta Manoli Miner
Aranburu. Balkoian Manuela Josefa
Otegi Iribondo, amona.

Deskribapena: familiako kideak euren
baserri kanpoaldean.

Interpretazioa: Egun hartan
Donostiatik etorri zen argazkilaria,
espresuki familiako argazkia ateratzera.
Nabarmena da bereziki senitartekoek
gainean daramatzaten jantziengatik;
dotoreak, zuriak... Ez dirudi egunerokoan
hala jantzita ibiliko zirenik baserrian.
Halaber, aita baratzean aurkitutako
sekulako sasi-arbia du besazpian, harro
erakusten du argazkian leku zentrala
emanez. Atzeko planoan, lehioan beltzez
jantzitako emakume heldu bat ageri da;
amona. Ezindua zegoenez, ezin zituen
eskilerak jeitsi eta beraz, argazkirako
balkoira atera zen, familiako argazkia
osatuz.

etxea



4.3. ETXEA

Etxea emakumeen esparrua kontsideratua izan da urte luzeetan zehar, eta oraindik ere emakumeak etxera itzularazteko saiaketa ugari egiten dira, nahiz eta moduak aldatu garaira egokituz. Erregimen Frankistarentzat, etxea andrazkoen tenplua zen, eta emakumea bertako aingerua. Ideia hau tradizionalismo katolikoan eta biologian oinarritzen zen; emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasun biologikoak oinarrian jarritz, emakumeek ama izatera mugatu behar zutela defendatzen zuen, bestelako alor ekonomiko, juridiko edota sozialetatik kanpo utziaz. Aurretiaz ikusi den moduan, aldiz ere hau ez zen izan hain ideala (emakume ugarik egin baitzuten etxetik kanpo ere lan familia aurrera ateratzeko). Hala ere, emakume guztiek ezaugarri komun bat izan zuten, eta hori etxearen esparrua izan zen. Etxetik kanpo lan egin ala ez, emakumeak ziren etxe barruko kideen zaintzaz eta bertako lanez arduratu zirenak. Eztabaidagai jartzen ez zen gaia zen emakumeari zegozkiola lan horiek egitea, emakume izanagatik soilik, guztiz normalizatuak eta naturalizatuak egonik ardura hauek.

Jarduera anitzak ziren etxean egiten ziren lanak: elikagaiak eskuratu, familia guztiarentzat egun osoko otorduak prestatu eta ondoren guztien harrikoa egin; arropak garbitu, lehortu eta plantxatu; haurrak izan eta hauetaz arduratu, adineko pertsonen, gaixoen edota menpekotasunen bat zuten arduratu; arropak egin eta josi; etxea txukundu; etxe ondoan lurak izanez gero, baratzak zaindu eta berdurak jaso... Hori guztia ikergai den garaiaren zeuden baliabideak kontuan izanik.

Lan hauek aldiz, ez ziren lan bezala kontsideratzen; ez zuten ez balio ez prestigiorik, ez erretirorik, ezta soldatarik ere.

4.3.1. Txiki txikitatik

Urtea: 1965 inguru

Lekua: Hernani.

Ageri direnen izenak: M^a Pilar Lujanbio Olano, Lina Semperena Olano, Maitere Olano, Francisco Lujanbio Olano.

Deskribapena: Neska gaztea haurrarekin besotan

Interpretazioa: Argazkiaren lehen plano batean neskato gaztea eta bere lehengusu haurra ageri dira senitarteko baten jaunartze ospakizunean; argazkilari profesionalak bi senitartekoak erretratatu nahi izan zituen. Alabetatik zaharrena izanda, askotan arduratzen zen argazkiko protagonista bere senitarteko txikiagoez, argazkian islatzen den moduan. Bigarren plano batetan daude, gainontzeko ahaideak, atzean juxtu, jaunartze jantziarekin ikus daitekeelarik neska bat.

Egilea: "Biyok" Hernaniko argazkilari profesional bat zen (argazkian bertan agertzen da zigilua) eta herrian bertan zuen estudioa. Famatua zen Hernanin. Jaunartzeko ospakizunaren argazkiak ateratzeko kontratatatu zutela aurreikus daiteke.



Arrunt zaila izan liteke, emakume batentzat etxeko lanetan hasi zeneko momentuaz oroitzea. Etxeko lanak, normaltasun eta naturaltasun osoz, neskek batez ere, txiki txikitatik egin behar izan zituztenez, ez da erraza une jakin hori noiz izan zen gogoratzea. Arestian aipatu moduan, etxeko lan hauek emakumeen zereginak zirela kontsideratzen zen jendartearen eta beraz, neska gazteak eskolako garaitik hezten ziren lan horietarako: jostungintza, etxeko garbiketa kontuak, haurren zainketa....

Elkarrizketatutako emakume baten kasua hartu daiteke adibide gisa. Bera 6 anai-arrebatatik bigarrena zen, baina alaba bakarra. Halako batean, ama gaixo jarri eta berari egokitu zitzaion etxeko kontu guztiez arduratzea. Ume koxkorra izatetik emakume heldu eta arduratsu bat izatera pasatu behar izan zuen une batetik bestera.

“Con diez años mi madre se puso enferma y yo a hacer los trabajos de casa” (Juani)

“Mi madre iba todos los años un mes a pasar allí (al caserío), y entonces también me quedaba yo aquí sola a cargo de todo” (Juani)

“A mi me dijeron toda la vida que yo era para casa, que era lo normal...” (Juani)

Emakume honek kontatzen duen moduan, eskola utzi behar izan zuen horretarako, bere anaiek ikasten jarraitu zuten bitartean. Bere hitzetan ezin hobeto islatzen da nola bizi izan zuen egoera hura; jolastu ez zuen haurra izan zen; bere adineko umeen aurretik pasatzean lotsa sentitzen zuena.

“Yo me acuerdo como pasaba con los recados, con la txerrijana, pasaba por Biteri (escuelas) y estaban en el recreo, y me daba vergüenza pasar por allí con los recados, los baldes, y todos allí jugando. Yo he sido una niña que no ha jugado, yo no he jugado, entiendes, eso si me daba... y que mis hermanos han ido a estudiar y yo no” (Juani)

“También ya hubiera estudiado... pero aquello también había que pagar y... ¿qué te voy a decir? Antes era normal en las mujeres... antes eran los hombres los que valían” (Juani)

Berea ez zen kasu isolatua baina; antzeko gertaera asko izaten zen garai hartan:

"Ama ospitalian ta klaro lentejak jarri behar nitun. Aber lentejak ta bai nik lentejak... banekin ura bota behar zitzaiola eta ez dakit ze! ta azkenian erre in zian eta ordun korrika jun nintzan a donde la vecina de arriba, negarrez jun nintzan ta ordun esan zian: lasai, nik ingo dizut ta! Klaro bederatzi giñan eta nik in behar nun dena! Ta egun guztia negarrez"(Maritxu)

"Ni alaba zaharrena nintzan ta nei tokatu zitzaidan laguntzia. Ordun eskuz soldaduen erropak garbitzen genitun etxian, ikuiluan arraska genun" (Maritxu)

Sexuen arteko diferentzia argia zen, beraz. Familia askoren ekonomia nahiko prekarioa izan ohi zen, eta beraz ondo pentsatu beharra zegoen hau nola kudeatu. Mutilen heziketak emakumeenak baino garrantzi handiagoa zuen; azken batean, emakumeak etxeko kontuez arduratu behar bazuen, zertarako eskolara bidali? Neska ala mutila jaio, bizitza guztiz ezberdina zen.



Urtea: 1951

Lekua: Hernani

Ageri direnen izenak: Kontxi Apezetxea Agirre, Patxi eta Iñaki Zapiain anai bikiak.

Deskribapena: Neska gaztea bizikletan bi haurrez inguratua .

Interpretazioa: Hiru haurrak argazkilariari begira daude, norbait ezaguna edukiko balute bezala beste aldean. Hiru haurrak izango lirateke, bizikleta gainean ageri den neska ere umea baita, 9 urte inguru izango ditu argazki honetan. Bizikleta gainean jolasean dabilen itxura eman dezake era berean, baliteke, bere auzokide txikiagoei kontu egiten egotea. Neskak jantzita daraman soinekoak bigarren hipotesia indartzen du.

Lan hauek askotan halabeharrez ikasten ziren. Kasu batzuetan gainontzeko ahaideek irakasten edota laguntzen zieten. Beste batzuetan aldiz, senitartekoak inguruko baserrietan bizi zirenez, ezin zieten lagundu, eta ahal zuten moduan, egoerak hala bultzatuta egiten zuten aurrera:

“Yo tenía diez cuando nació el hermano pequeño, a los nueve meses se puso enferma (la ama), y me quedé sola con otro hermano, eso tampoco se me va a olvidar nunca. Vino una tía, y me dijo que me haría cargo de mi hermano, tendría dos años, que vendría la amona a la tarde. Yo no sé lo que le di de comer, cuidar ya sé que le cuide, porque se cago en las escaleras y limpie todo. Y el niño en brazos, y el niño no hacía más que llorar... pasé toda la tarde en Zinkoenea dando vueltas esperando a la amona, y amona no venía, todo el rato llorando... Por fin, llegó a las 6 de la tarde. Venía con un cesto en la cabeza, vendría andando seguramente la pobre, ay... se me abrió el cielo” (Juani)

“Nik bi anai ni baño zaharraguak ditut baño etxian beti izan naiz ni, la mayor de las chicas esaten dan bezela, eta dana nik in bihar nun: batek miña hartzen bazun hanketan indiziyua jartzea a donde la comadrona ni juten nintzan, hamaika hamabi urtekin! Klaro, ne amak lan asko zakan, ta ni negarrez, baño juten nintzan. Ta dena nik inbiar nun, enkarguk ta dena (...) eskolatik etorri eta oyak in ta dena, txikitatik bai” (Maritxu)

“Gero ama operatu zuten, eta bueltan jun nintzan amangana ta zemuz? Ui ama ze gogua dakaten zu etxea etortzeko. “Ezin det etxea jun, hemen gelditzen naiz izaban etxian!” Goatzen naiz nola lurrian botata negar pillat bat inun. Netzako oso gogorra izan zan, ama gabe eta sei pertsona nere kargu” (Maritxu)

Puntu honetan ezin aipatu gabe utzi Seccion Femenina-tik martxan jarritako “Escuelas de Hogar” formazio tailerrak. Saio hauetan hain zuzen ere, etxeko aholkuak, garbiketa eta elikadura gaiak, jostungintza... irakasten zitzaizkien emakumeei. Erakunde honen helburua emakumeak etxearen ardura eramateko prestatzea zen; prestakuntza hau printzipio erlijiosoetan oinarrituta noski. Hona bi adibide Seccion Femenina-k hainbat irakasgairen bidez transmititzen zituen ideiak erakusteko:

"A través de toda la vida, la misión de la mujer es servir. Cuando Dios hizo el primer hombre, pensó: No es bueno que el hombre esté solo. Y formó a la mujer para su ayuda y compañía, y para que sirviera de madre. La primera idea de Dios fue el hombre. Pensó en la mujer después, como un complemento necesario, esto es, como algo útil" (Formación Político-Social del primer curso de Bachillerato, 1963)

"Una mujer que tenga que atender a las faenas domésticas con toda regularidad, tiene ocasión de hacer tanta gimnasia como no lo hará nunca, verdaderamente, si trabajase fuera de su casa. Solamente la limpieza y abrillantado de los pavimentos constituye un ejemplo muy eficaz, y si se piensa en los movimientos que son necesarios para quitar el polvo de los sitios altos, o limpiar los cristales, sacudir los trajes, se darán cuenta que se realizan tantos movimientos de cultura física que, aun cuando no tiene como finalidad la estética del cuerpo, son igualmente eficaces precisamente para este fin" (Economía doméstica para Bachillerato, Comercio y Magisterio, 1968).

Halaber, erregimenaren emakume erakundetik at, herriko eskoletan heziketa ezberdindua zuten mutil eta neskek. Eta azken hauen kasuan, ohikoa izan ohi zen jostun izateko formazioa jasotzea; bai eskola barruan, baita arratsaldean izaten ziren tailerretan ere. Hernanin josten irakasten zuten tailer asko egon ziren:

"Aprendimos a coser y cosíamos todo nosotras, vestidos, jerséis... claro antes estábamos en casa y hacíamos estas cosas" (Juani)

"Todas las vecinas íbamos a la Zelaia a hacer punto a los hermanos, es que todo se hacía a mano entonces" (Juani)

"Si, pero ya en casa, cosía camisas y calzoncillos" (Dolores)

"Bai josten ikasten genun, etxeako gauzak iten genitun" (Maritxu)

Urtea: 1972 inguru

Lekua: Ezkiaga Pasealekua, Hernani.

Ageri direnen izenak: Mari Mertxe Iraola Peña, Lina Semperena Olano eta M^a Victoria Semperena Olano.

Deskribapena: Hiru neska gazte, haur karro bat aurrean dutela.

Interpretazioa: Hiru neska gazte hauetako baten anaia txikia dago karro barruan, eta beraz, berari kontu egiten ari dira neskak. Senitartekoak ez diren arren, auzotarrak edota bizilagunak dira eta garai hartan harreman handia zuten elkarrekin ibiltzeko.

Gazte gaztetatik hezten ziren neskak zaintza kontuetan, euren senitartekoen kargu utziaz, argazki honetan ikusten den moduan.





Urtea: 1965 inguru.

Lekua: Hernani.

Ageri direnen izenak: M^a Pilar Lujanbio Olano, Lina Semperena Olano (karroan), Arantxa Kortaberria, Jesus Mari Olano, Manuel Olano, Jose Semperena eta Felix Olano.

Deskribapena: Neska gaztea haur karroa eramaten ageri da.

Interpretazioa: Ospakizun batetik bueltan doaz senitarteko hauek. Neska gazteak haurraren karroa gidatzen du; badirudi, emakume helduaren begiradapean eta aholku artean egiten duela. Gainontzeko senitarteko gizonak paseoan lasai doazela dirudi. Argazkilari profesionalaren argazkia da honakoa, neska gaztea harrapatu nahi zuela ematen du, baina honek azken momentuan buelta eman duela, ondoan duen emakumearekin hitz egiteko edo entzuteko.

Egilea: "Biyok" argazkilari profesionala (argazkian bertan agertzen da zigilua).

Mutikoen kasuan aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen zen. Ez zitzairen etxearekin lotutako inolako irakaspenik helarazten. Mutilak etorkizuneko gizon moduan hezten zituzten; familiako buru izateko, eta autoritatean oinarrituz. Beraz, familia barruan argi zegoen zein izan behar zen bakoitzaren funtzioa. Hau horrela, etxean ama edo emakumea falta zenean, funtzio horiek familiako beste emakume batengana pasatzen ziren, nahiz eta hau oraindik umea izan (testigantza ezberdinetan ikusi moduan). Inolaz ere, ez zen zalantzan jartzen ardura hauek gizonezko senitartekoek hartzea (aita, osaba, anaiak...). Adinak ez zuen garrantzirik, bai ordea sexuak:

“Batez, ne osabak ta... etzekiten ezta sua piztutzen” (Maritxu)



"Recogíamos vainas, alubias... Teníamos la huerta en alquiler y trabajaba mi madre" (Ixabel)

Urtea: 1940

Lekua: Inbidiya-ko baratza, Karabel.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik eskuinera Manoli Olano Garaiar, Lina Garaiar (Manoliren ama) eta Felicitas Zubiri (Manoliren ezkonarreba).

Deskribapena: 3 emakumeak natur gune batean, eskutan zestoak dituztela.

Interpretazioa: Pozik dirudite hiru emakumeek argazkian. Nork atera duen ez jakin arren, agerikoa da, argazkirako jarriak daudela, lanerako erabiltzen zituzten xestoak bistan kokatuz. Ama alabak eta familiara sartu berri zen emakumea dira. Familiak lur eremu bat zuen, eta bertan baratza bat. Honen zaintza etxeko arduren barruan kokatuta zegoen eta hauek emakumeak egiten zituztenez, baliteke, familian sartu berri zen emakumeak ere hala egitea. Familia berrian ere, emakumeei zegokien lana egingo zuen segur asko.

Urtea: 1967 inguru.

Lekua: Hernani.

Ageri direnen izenak: Felix Olano, Mañel Olano (Felix eta Felicitasen semea), Prontxio Zubiri (Felicitasen anaia), Felicitas Zubiri eta Joxan Olano (Felix eta Felicitasen semea).

Deskribapena: Familia argazki informala

Interpretazioa: Familiako kideak argazkirako jarriak daude, baina hau ez da argazki formal bat. Horren erakusle da gainean daramatzaten jantziak; gehienbat emakumeari dagokionean. Hau sukalderako amantalarekin ageri baita, eta beraz aurreikus daiteke, etxeko lanetan harrapatu zuela argazkilariak, eta argazkirako une batez lanak egiteari utzi ziola. Kokaguneari dagokionez, badirudi etxeko sukaldean daudela senitartekoak, atzeko altzariak garaiko sukaldekoak baitirudite.



"Las mujeres estaban muy en casa, de vez en cuando te sacaban a pasear un poquito..." (Dominique)

4.3.2. "Lana ez zen" lan nekeza

Eremu honetako ezaugarri nagusia emakumeen zeregina izateaz gain, hauxe zen: egindako guzti hori lan moduan ez kontsideratzea, eta batzuetan norberak ere bere lana gutxiestea, garaiko jendarteko pentsaera islatuz:

"Si yo no he trabajado ni nada... Que no he tenido relación para contarte nada" (Juani)

"La gente que trabajaba igual tendrían otra relación con la gente, ¿yo qué relación tenía con la gente? En las tiendas, en la huerta, y nada más" (Juani)

"Pues conmigo mal, porque yo no he hecho nada" (Dominique)

"Yo no hacía nada más que los recados" (Juani)

Jendartean zabaldua zegoen pentsaera hori erreproduzitzen dute testigantza hauek. Azken batean, egindako lanek ordainsaririk ez zutenez, gutxietsiak zeuden eta beraz, ez ziren lan kontsideratzen. Aldiz, etxetik kanpoko lanak ordainsaria zutenez, prestigioa zuten. Lana eta enpleguaren arteko diferentzia agerikoa zen. Eta, ikusi den moduan, hau bereziki lotua zegoen sexuarekin. Izan ere, "ez-lanak" emakumeek egiten zituzten. Lanaren definizio hau merkantzien produkzioarekin dago lotua; sozialki beharrezkoak ziren bestelako lanak alde batera utziaz. Ideologia hau guztiz barneratua zegoen. Egiten zutena kontatzen hastearekin batera aldiz, konturatzen dira egiten zuten lan guztiaz:

"Igual les parecía que no hacíamos nada, como estaba todo hecho, me acuerdo cuando estaban todos en la cama, las sillas, mesas... todo era para fregar, cuando iban a la cama yo me quedaba fregando todo, los muebles blancos..." (Juani)

"Si a la casa, a los hijos... a coser, a planchar, a limpiar... ama de casa que no me han pagado nunca. Pero sueldo hacía! Ahí sí que deberían de pensar... cuidar de tus hijos en casa es un trabajo bonito, y la vida de la casa es muy bonita, porque puedes atender las cosas mucho mejor, sobre todo a los hijos (...) Que va, no, no se valoraba nada ni ahora tampoco. Eso es un trabajo que no se valora. Ahora, no te ayudaba nunca el marido, si estas en casa... Claro y no se daba cuenta que era mucho trabajo". (Dominique)

Urtea: 1974

Lekua: Andre kalea, Hernani.

Ageri direnen izenak: Manoli Olano
Garaia.

Deskribapena: Emakume bat arropak
josten.

Interpretazioa: Emakumea bere etxean
dago arroparen batean konponketak
egiten. Etxeko jantziekin ageri da, etxeko
lanak egiteko erabiltzen zen batarekin.
Atzean irratia ikus daiteke. Argazkira
begira ageri da emakumea, irribarrez.



"Etxeko lana gogorra da, inork ez du apreziatzen (...) nik ez banizuke jarriko, nik ez banuke arropik multuko, nik ez banuke umeik haziko... in dezagun truk!" (Ihintza)

"Baloratuta? Ez, nik negar pilla indet! (...) nik garbitzen nun lurra belarriko porque egurrezkua zan etxe guztiya, ta etortzen zian... me manchaban dena ta ni negarrez! Ta hola, eske hor zeon lokatza ta zikiña, ta ni beti errietan baiño etziateen kasoik iten! Ordun baloratu ezerrez" (Maritxu)

Emakumearen gutxiagotzea nabarmena zen. Batzuetan iruditu arren, erregimen Frankistaren ideologia urruti zegoela eguneroko bizitzatik, askotan ideologia horren aztarnak, egunerokotasuneko zehaztasun txikietan islatu ohi ziren, normaltasun osoz ikusten zirenak:

"A las mujeres antes no se les valoraba, se valoraba a los hombres. Te voy a contar un detalle, estaba un día con mi padre... en la calle y hablaba con uno... era ya yo mayorcita, y le dice "¿enbat seme dituzu?" Bost seme." Baño alaba re badezu zuk?" Bai hemen do, beltxa txar bat! je je je... ¿Qué te parece? Eso también me quedó, mecauen, como los hombres eran más guapos o lo que sea, yo beltxa txar bat! No valoraban e, no valoraban nada... No valoraban a las mujeres. A los hombres, las vitaminas le daban a los hombres, a mí nunca me daban... También me querían e, pero no valoraban nada" (Juani)

Familia batzuetan, gizonak etxera ekartzen zuen dirua emakumeari eman ohi zion etxeko gastuetarako; seme batzuk ere hala egin ohi zuten. Beste batzuen kasuan, gizonak diru bat ematen zioten emakumeari bai, baina irabazten zuten guztia? edozZati bat?

"Si entregaban el dinero, el padre entregaba el dinero toda la vida, dejaba allí. El dinero lo solía guardar mi madre, los hijos entregaban no sé si todo, algunos seguro, otros... no se" (Juani)

Urtea: 1974

Lekua: Andre kalea, Hernani.

Ageri direnen izenak: Manoli Olano
Garaia, Xanti Lujanbio Lasa.

Deskribapena: Senar-emazteak etxeko
giroan.

Interpretazioa: Etxeko jantokia dirudien
eremuan ageri dira senar-emazteak. Biak
ere kamerari begira daude: emakumeak
irribarrez begiratzen du arroparen bat
josten edota konpontzen ari den bitartean.
Gizonak aldiz, serio begiratzen du kamerara,
bere otordua eten gabe. Argazki hau ikusirik
litekeena da, emakumeak bere senarrari
afaria mahai gainean jarri izana hau lanetik
etortzerako (emakumea etxeko batarekin
dagoela dirudi; gizona aldiz kalekoarekin);
eta gizona jaten ari den bitartean etxeko
lanak egiteko aprobetxatzea, arropetako
zuloak josiz adibidez.

Bestalde aipatzekoak dira, egongelaren
ezaugarriak; bai dekorazio aldetik, marrazkiz
beteriko pareta horiei erreparatuz; baita
paretean zintzilik ageri diren kartei
dagokienez ere, amnistiaren aldeko mezuak
eta goian dagoen Gernikako arbolaren
koadroa; garaia aipamena eginez.





Urtea: 1966 inguru.

Lekua: Hernani.

Ageri direnen izenak:

Francisco Lujanbio, Joxe Angel Iraola,
Santiago Lujanbio, Tere, Juan Inaxio,
Txetxo Ormazabal eta Iñaki Casado.

Deskribapena: Haur taldea, arratsaldeko
otorduan.

Interpretazioa: Etxe bateko
sukaldean daudela dirudi, ziurrenik
emakumearenean. Horietako haur
batzuen ama izango da segur aski.
Bera da etxeko arroparekin dagoena
dirudien bakarra: amantala du soinean.
Gainera inguruko haur guztiak eserita
eta jaten ari diren bitartean, emakumea
zutik dago, haurrak zerbitzatzen arituko
balitz bezala. Baliteke haurren baten
urtebetetze festa izatea, jateko pasta
gozoak, ardo kopak eta ardo goxoa ikus
baitaitezke.

"Los hombres (...) te daban un sueldo y arréglate. Eso eran los hombres, dueños y señores de todo. Claro de ahí que la mujer ha empezado a trabajar y de ahí el derecho" (Dominique)

Etxeko lan kategoriaren barruan jarduera anitz sartzen ziren. Ez zen soilik etxeko lanak egitea; etxearekin edo honen inguruarekin lotutako hainbat jarduera ere hemen kokatzen ziren:

"Hubo épocas en que me levantaba y me tenía que hacer cargo de la comida y todo eso, yo me acuerdo que íbamos a la huerta y alrededor a encontrar txotxas para encender el fuego, y en tiempo de verano igual iba a la huerta, recogía vainas y ponía y esas cosas. Luego limpiar y la ropa... ósea, hacerme cargo de todo: la casa y los hermanos" (Juani)

"Yo me acuerdo al mediodía se sentaban todos, mi madre también (enferma), y yo servía el café y todo y mi madre iba a la siesta y me encargaba de todo: de la cocina, de lavar... como había muchos hombres había muchos pantalones, muchas camisas..." (Juani)

"Luego bajábamos al lavadero de Latsunbe. En Latsunbe había un lavadero muy grande y allí lo aclarábamos. Mis hermanos agarraban el balde y mi madre de mientras lo aclaraba, y a quitar el agua y de día tenderla. (...) Si, sobre todo por las noches, muchas mujeres aprovechaban una hora para lavar, hacia las 8-9 de la noche. Mi madre siempre jabonaba en casa y luego a aclarar abajo y nosotras de mientras jugábamos por allí mientras mi madre aclaraba, y mis hermanos le ayudaban a subir el balde" (Dolores)



Urtea: 1964 inguru.

Lekua: Izpizua kalea, Hernani.

Ageri direnen izenak: Maria Agirre eta bere alaba Kontxi Apezetxea Agirre.

Deskribapena: Ama alabak etxeko balkoian.

Interpretazioa: Emakume heldua etxeko jantziekin ageri da eta etxeko zapatilekin. Alaba aldiz, dotoreago dago jantzita, amari bisita egitera joan izan balitz bezala. Anai-arrebetatik emakume bakarra izanda, berari egokitu zitzaion etxeko martxa eramatea, nahiz eta ezkondu eta seme-alabak izan; amaren (gaixo) zaintza lanak berak egiten jarraitu zuen, nola edo hala.

Oro har, senitarteko bat ezkontzean, etxetik joaten zen (ez bazen maiorazkoa behintzat). Hala ere, sexuen arabera ezberdina izan zitekeen. Familiak bizi zuen egoeraren arabera, alabak etxean geratu ohi ziren, etxearen kudeaketaz norbaitek arduratu behar baitzuen:

“Si, nos quedamos en casa, entonces también tuve buena tarea claro, cinco hermanos, el marido seis, y el hijo que nació, ¡siete!. Entonces todavía vivía la ama, pero estaba enferma.(...) Bueno, ya estaba yo acostumbrada, pero a planchar venía una prima... luego ya nos arreglamos, ya estaba acostumbrada a llevar... los hermanos además hacían su marcha, venían a comer y se iban... era la comida y la ropa” (Juani)

“En aquella época era normal que el mayorazgo, que era mi hermano mayor, se quedase en casa; pero a mí me dijeron toda la vida que yo era para casa, que era lo normal. Cuando nos casamos a mí me dijeron allí, pues allí. Pero luego como el mayorazgo era él y no estaba de acuerdo... Entonces era así, era el mayorazgo (...) pena, era mi madre la que se quedo sola (...) Había unos días cuando yo cogía mis tres niños pequeños, montaba en autobús, e iba a recoger la cocina (...) mi madre se quedo mal, porque mi hermano le prometió que le iba a traer una criada... pero la cosa no fue así” (Juani)



Urtea: 1958 inguru.

Lekua: Estudioan.

Ageri direnen izenak: Emili Olano Garaiar, Juan Jose Semperena Olano, eta Inaxio Semperena Olano.

Deskribapena: Emakumea bi hurrekin estudioko argazkian.

Interpretazioa: Agerikoa da argazkia guztiz prestatua dagoela. Estudioan ateratakoa da, eta argazkian ageri diren kideak horretarako prestatuak daude: ondo jantziak, ondo orraztuak... Ezkerretara dagoen haurrak adibidez kate bat darama lepotik zintzilik, baliteke lepokoak sentimentalki garrantzia izatea eta horregatik argazkian ondo atera zedin jartzea.

Urtea: 1966

Lekua: Lasarteko hipodromoa.

Ageri direnen izenak: M^a Dolores Peña Iradi, besotan Jose Angel eta ondoan Jose Luis, Juan Antonio, Mari Mertxe seme-alabak.

Deskribapena: Emakume bat hurrez inguratua.

Interpretazioa: Oso argi ez badago ere, emakume heldua haurdun dago argazki honetan, gainontzeko bere seme-alabez eta ilobez inguratutik. Baliteke argazkia senitartekoren batek atera izana, haurrak barrezka ari baitira berari begira. Hala ere, nahiko inprobisatutako argazkia dirudi, emakumea bera eta neskatoa ez baitaude argazkilariari begira.



4.3.3. Haurtxo txikia negarrez dago, ama emaiizu titia... ¹

Amatasuna guztiz lotua zegoen ezkontzarekin; hau da, ezkondu ondorengo eginbeharra zela baieztatu daiteke ama izatearena. Eredu hori ez jarraitzea, oso gaizki ikusia zegoen eta herriko txutxumutxuen jomuga bihurtu zitekeen. Ezkontza sakratua zen, nolabait mugarri bat markatzen baitzuen: emakumea emazte izatera pasatzeaz gain, etxe berriko etxekoandrea eta ama izatera ere pasatzen zen, honen inguruan erabakitzeke inolako ahalmenik gabe:

“Era casi como una obligación, o que se yo, era para tener hijos, ni te planteabas, venían y ya está! je je je, venían y ya está” (Juani)

“Yo me case en marzo del sesenta y nueve, y en diciembre ya nació, antes era así, este a los dieciseis, diecisiete meses y el siguiente también, muy seguidos” (Juani)

“Me case sin estrenar, que no es igual, ¿entonces que te crees? Ocho de marzo me case, y el niño nació veintitres de diciembre, por aquí, mira lo que esperaban” (Juani)

Ezkontzearen esanahia familia izatearena zen eta beraz, horretara mugatu behar zuen emakumeak. Emakume askok ezkondu ahala, etxetik kanpoko lanak uzten zituzten, seme-alabak eduki baino lehen. Ezkontzaren ekintzak beraz, bere baitan igarobide erritual bat gordetzen zuela esan daiteke: emakume izatetik, emazte eta ama izatera pasatzearena.

“Nere ama etxian, ezkondu zanian bialti zituzten lanetikan. Ordun etzuten hartzen, emakumiak ezkontzen zanian bota iten zian (...) nik uste, pentsatzen det haurdun gelditzen ziala, ta geo bakizu... etzuten hartzen emakumeik. Nere amak intzun lana hamazazpi urtez fabrikari baño ezkondu zanian ya fuera ta nere ama etxian, ta atta zan...” (Maritxu)

¹ Seaska kanta herrikoia;

*“Haurtxo txikia negarrez dago
Ama eman iezadazu titia
Aita gaiztoa tabernan dago
pikaro jokolaria”*

Amatasunaren bertutea eta honen funtzio hezitzailea goraipatzen zuen diskurtsoa nagusitu zen. Diskurtso honek jendartean eragin zabalak izan zuen; nolabait emakumeei “funtzio garrantzitsu” bat esleitu baitzien erregimenak; nahiz eta honek oinarrian emakumeak behe mailako izakiak kontsideratu. Ideologia honen eragina hain izan zen arrakastatsua, guztiek barneratu zituztela printzipio eta jarrera hauek, eta barneratzearekin batera noski, baita naturalizatu eta normalizatu ere; bizitzan izan zuten zeregin hau goraipatuz, eta inola ere zalantzan jarritz. Amak beti hurrekin lotzen ziren, baina aita? Non zeuden aita? Zein funtzio zuten aitek hurrekiko? Zaintza, hezkuntza, harremanak... nolakoak ziren?

“No, la madre y ya está. Los padres no, por lo menos aquí ni se enteraban. Las decisiones, las cosas así de ikastola, luego liceo... si, pero luego los hombres ¿qué hacían? Trabajar y luego ir de txikiteo y para cuando llegaba, estaban los críos dormidos”(Juani)

“Igual hamaiketan etortzen zan, etorri, umiei muxu eman ta hauek ya lo eotezian” (Mertxe)

“El hombre antes se dedicaba mucho al txikiteo, parranda y parranda, y las mujeres que lo han pasado muy mal, que se pasaban las noches en vela porque los maridos no venían a casa, y venían como venían... y de eso también había mucho” (Juani)

Emakumeen funtzioa etxeaz arduratu eta ama izatea zen moduan, gizonena arlo publikoa zen: etxetik kanpoko. Gizona kontsideratzen zen familiaren buru. Honek indarra eta boterea ematen zion familian, autoritate handia lortuz. Erabaki garrantzitsuak berari zegozkion, bere hitza izanik balio gehien zuena. Bestelako kontuetan, aldiz, zaintzak kasu, ez zuen inolako ardurarik: haurrak, helduak, ezinduak, etxea... Ardura hauek gainera, kasu batzuetan bi familiatan izaten zituzten emakumeek; jatorrizkoan eta ezkontzarekin lotutako familietan. Hau da, familia berrian emazte berriak izatearekin batera, ardura berriak hartzen zituzten. Baina maiz, ardura hauek lehengokoekin uztartu behar izaten zituzten; jatorrizko familian alabak (honek suposatzen zuenarekin) izaten jarraitzen baitzuten:

“La ama enferma siempre cuidándole. Cuando yo fui a tener el primer hijo, allí se quedó la ama en casa. Y cuando volví, mi madre estaba en la cama; ella en la cama, yo que había tenido el niño.. uf... que palo, que palo, muy duro” (Juani)



Urtea: 1975

Lekua: Andre kalea, Hernani.

Ageri direnen izenak: Manoli Olano Garaiar, Maria Dolores Peña Iradi, Kristina Iraola Peña; Joaquina Lujanbio Olano, Mari Mertxe Iraola Peña eta Mikel Iraola Peña.

Deskribapena: Pertsona taldea.

Interpretazioa: Adin ezberdinetako pertsonak ageri dira denak ere argazkilariari begira. Atzean dauden bi emakumeak aurrean dauden gaztetxoek amak dira. Gainera biek ere etxeko arropak (amantalak) diruditenekin ageri dira, argazkia atera baino minutu bat lehenago etxeko lanetan arituko balira bezala.

Urtea: 1967ko uda.

Lekua: Aduna.

Ageri direnen izenak: M^a Kristina Ugalde Mendizabal (ama) eta Kristina Korella Ugalde (alaba).

Deskribapena: Ama alabak elkarrekin

Interpretazioa: Ama alabak udako jantziak jantzitza ageri dira, jantzi dotoreekin; batez ere, ama elegantziaz ageri da: orrazkera, pitxiak..., bazkari edo egun bereziren bateko argazkia izan daiteke beraz. Besoetan bere alaba du, badirudi argazkia ateratzeak ez diola grazia handirik egin eta kexa artean dabilela. Ama aldiz, irribarrez ageri da, argazkilariari begira konplizitate osoz, bere alabaz harro, momentua hori betikotu nahiko balu moduan.





Urtea: 1972

Lekua: Kontxako hondartza, Donostia.

Ageri direnen izenak: Kontxi Apezetxea Agirre, Xabier Garmendia Apezetxea eta Josetxo Garmendia Apezetxea.

Deskribapena: Emakume bat bi hurrekin hondartzan.

Interpretazioa: Emakumea bere bi semeekin paseoan ageri da hondartzan barrena. Semeetako bat oraindik nahiko txikia izaki, laguntza behar du ibiltzeko eta amak eskutik helduta laguntzen dio. Beste semea hondartzarako jostailuekin dago. Azkenik atzeman daiteke emakumearen soinekoan erreparatuz gero, haurdun dagoela, hirugarrenaren zain. Baliteke argazkia senarrak edota gertuko lagun edo ahaide batek atera izana, egun pasa baten erretratua baitirudi.

4.3.4. Sarearen garrantzia

Urtea: 1970 inguru.

Lekua: Patronato San Miguel (egungo Miramon).

Ageri direnen izenak: Maria Mendizabal Arizeta (amona) eta Kristina Korella Ugalde (biloba).

Deskribapena: Amona eta biloba elkarrekin.

Interpretazioa: Egun pasa edota arratsalde pasa batean daudela dirudite amona bilobak. Irribarrez ageri dira biak kamerari begira, horren atzean pertsona bereziren bat ezkutatuko balitz bezala. Pozik dirudite elkarrekin, lasai, gertuko harremana balute bezala.



Amatasuna bizitzeko modu asko daude. Amatasuna ez da berdin ulertu izan historiako une ezberdinetan eta kultura ezberdinetan, hots, testuinguruaren arabera, ezaugarri eta eredu ezberdinak izan dira nagusi; baita Euskal Herrian ere. Ikergai den garaian, ama izatea ia derri-gorrezkoa zela aipatu da aurretik. Familia barruan eta hauen inguruan, bizitokietan esaterako, haur ugari elkartu ohi ziren, denbora luzeak pasaz elkarrekin eta hauen zaintza eta kudeaketarako ere eredu ezberdinak izaten ziren. Modu ezberdinak erabiltzen zituzten emakumeek oro har, haurrak zaindu eta hezteko, horretarako sare sozial zabala izan ohi zutelarik.

Ikertutako garaian, komunitatearen kontzeptuak garrantzi handia zuen, bizilagunen arteko harremana oso gertukoa zen eta familiatzat jotzen zen kasu askotan. Zentzu honetan, elkarren arteko laguntza sarea oso garatua zegoen, eta askotan, komunitate berean bizi ziren haurren arteko harremanak anai-arreba edo lehengusuen modukoak izaten ziren. Hau horrela, haurren zaintza eta hazkuntza, ez zen ba-koitzaren gurasoetara (edo amarengana) soilik mugatzen, sistema zabalago batean kokatzen zen. Egunerokotasunean interes komuneko hainbat jarduera egiten ziren elkarrekin, eta maiz, bizilagunak bigarren ama moduan kontsideratzen ziren:

“Si, super buena. No se cerraba la puerta, siempre la llave en la puerta y entraban a casa” (Juani)

“Bai, se hacían tertulias en los portales ta gure ama ta Roxari de balcón a balcón hablando jaitan, uf... vaya vida” (Ixabel)

“Lehen iten zan umia eukitzian atsolorra, cuando se moría también alguien hacer hamaiketako, se invitaba a la gente. Guk itegenun hoi, ke cosa más bonita; los parientes, gente con la que tenías amistad...” (Ixabel)

“También recuerdo en aquellos tiempos los jueves venían las hermanas de mi madre a la feria y tomaban chocolate, charlábamos, cuentos... y yo también estaba allí, en casa y era una gozada, estaba deseando de que vendrían, las cosas de familia...” (Juani)

Urtea: 1942

Lekua: Etxe ingurua, Hernani.

Ageri direnen izenak: Manoli Olano Garaiar, Emili Olano Garaiar, Milagros Iraola, umea Jesus Mari Olano Zubiri.

Deskribapena: Hiru neska gazte zutik, lurrean bi haur.

Interpretazioa: Adin berdintsuko hiru neska gazte ageri dira aurrez aurre zutik. Horietako bi ahizpak dira, eta bestea auzotarra; harreman handia zutena. Lurrean jolasean dabiltzan umeetako bat senitartekoa dute, eta baliteke bestea auzo edo kale inguruko ume bat izatea. Bizi ziren etxe inguruetan denak izan ohi ziren ezagunak eta harremanak sendoak izaten ziren askotan. Oso ohikoa zen batak bestea kontu egiten ibiltzea auzo edo kale inguruan; gehiago senitartekoren bat inguruan bazezilen, kasu honetan bezala.





Urtea: 1950

Lekua: Villa Mercedes, Andrekale, Hernani.

Ageri direnen izenak: Milagros Iraola, Manoli Olano Garaiar, Emili Olano Garaiar, Roxari, Jesus Mari Olano Zubiri, Mañel Olano Zubiri...

Deskribapena: Jende multzoa argazkirako jarriak.

Interpretazioa: Alde batetik haurrak eta bestetik emakume gazte-helduak ageri dira. Adinagatik baliteke emakume horietako batzuk, ondoko haurren amak izatea; baina ez guztiak. Talde honetan ageri direnak komunean dutena da, senitartekoak edota auzokideak direla. Horrez gain ez da kasualitatea heldu guztiak emakumeak izatea, eurak antolatu eta elkar laguntzen baitziren aurrera egiteko.

Urtea: 1967

Lekua: Sarasketako terrenoa, Hernani.

Ageri direnen izenak: Maria Pilar Lujanbio Olano, Manoli Olano Garaiar, Joaqui Lujanbio Olano, Martin (bizilaguna) eta Juan Carlos Lujanbio Olano.

Deskribapena: Emakume heldua, haurrekin.

Interpretazioa: Adin ezberdinetako bost lagun agertzen dira, horietatik nagusiena, etxeko jantziekin dagoen emakumea. Besteek jolasean dabiltzan haurrak dirudite. Sarasketako terrenoan daude; bertan auzoko haurrak jolastera joaten ziren, txakurrak ere han egoten omen ziren eta urtebetetzeetako meriendak ere bertan ospatzen zituzten. Argazki honetan, halaber, bizilagunen arteko harreman hori erakusten duen irudia erdiko mutikoarena da; seguruenik gainontzeko umeekin jolasean zebilela harrapatuko zuen argazkilariak eta auzoko mutikoa izatean, argazkian jartzeko esango ziotela aurreikus daiteke.



Esan moduan, harreman hauek elkarren arteko hartu emanean oinarritzen ziren, elkar laguntzan. Honek guztiak komunitatearen ideia asko indartzen zuen; aurrera ateratzeko taldean antolatzen baitziren: esaterako, bata haurrak zaintzen zituen bitartean, besteak erosketak egin zitzakeen. Laguntza modu hau are garrantzitsuagoa bihurtzen zen, familia bertako etxeakoandrea falta zenean, izan gaixo jarri zelako, umea edukitzera joanak zirelako.... Horrelakoetan, aurretik azaldu den moduan, zuzenean alabari egokitzen zitzaizkion etxeakoandreak funtzioak; baina maiz neskak hauek oso gazteak izaten ziren eta, horrelakoetan, auzokoaren laguntza baliotsua ezinbestekoa izaten zen eta beraz, beraien artean sortzen zen harremana bereziki estua zen.

"La vecina que vivía aquí abajo, era mi segunda madre. Menudo servicio, uf... y todos los días nos hacía una visita, subía... y también lo que te he contado, a las tardes igual íbamos a la zelaia..." (Juani)

"Esta que vivía abajo (vecina) por ejemplo, me ayudaba mucho, si tenía que ir a comprar ropa, a comprar la tela que luego yo cosía, y ella me ayudaba, también tenía yo ahí suerte" (Juani)

"Nire amak baratzan iten zun lana, gu amona Pilarrekin hazi ginan" (Ixabel)

Urtea: 1975

Lekua: Andre kalea

Ageri direnen izenak: Manoli Olano
Garaizar eta Maria Dolores Peña Iradi.

Deskribapena: Bi emakume hitz egiten
etxe barruan.

Interpretazioa: Auzoko bizilagunak
izan ziren bi emakume hauek, bata
bestearen gainean bizi ziren. Baliteke
hauetariko bat beheko etxera jaitsi
izana, zerbaiten falta zuelako eskean,
eta berriketan geratu izana bertako
etxeakoandareekin. Biak ere etxe
arroparekin ageri dira, piztua dagoen
telebistari kasurik egin gabe eta
algaraka daudela dirudi, andre batek
zerbait kontatzen duen bitartean. Esan
moduan, bizilagunen arteko harremana
oso estua zen, eta emakumeen kasuan,
horrelako momentuak aprobetxatzen
zituzten kontu kontari aritzeko. Hori
zen emakumeentzat aisialdira gehien
gerturatzen zen unea.





Urtea: 1960 inguru.

Lekua: Ate txikitas (eliza ondoan).

Ageri direnen izenak: Mirari Mugika (haurra).

Deskribapena: Bi emakume hiru haur eskutik helduta.

Interpretazioa: Kalean zehar dabiltzan bost pertsona eskutik helduta ageri dira. Familia bereko kideak direla dirudien arren, ez da hala, baina bai dira inguruko edo gertuko pertsonak; lagunak, auzokoak... Neskatoak soineko zuriz jantzita daude, mutikoa galtza motzetan; eta bi emakumeak ere soinekoz, baina denak ere nahiko elegante daudela dirudi. Baliteke igandeko mezetarako bidean edo handik bueltan harrapatu izana argazkilariak, norabide berean pertsona ugari ikusten baitira atzealdean eta elizatik gertu baitaude.

Urtea: 1955

Lekua: Nafarroa.

Ageri direnen izenak: Marixabel Arraras,
Mikel Armendariz Arraras.

Deskribapena: Emakume taldea eta
haurrak.

Interpretazioa: Argazkilariari begira
jende multzo bat dago; heldu guztiak
emakumezkoak dira; haur batzuk ere
ageri dira. Egun pasa bateko irudia
dirudi, jantzita doazen moduagatik
(zapia buruan, zapatilak eta alpargatak,
jertseak gerrian...) eta dituzten
osagarriengatik (poltsak, makila...).
Seguruenik emakume hauetako batzuen
seme alabak izango dira ageri diren
haurrak, baina hauen zaintzaren ardura
guztien artean konpartitzen zutenaren
idea ere ez dago urrun. Argazki hau
horren erakusle izan daiteke.





merkataritza



4.4. MERKATARITZA

Hernani merkataritza ugariko herria izan da. Jadanik 1931 urterako era guztietako komertzioa zegoen herrian: abarketa dendak, bizartegiak, ikaztegiak, aroztegiak, harategiak, drogeriak, mertzeriak, oihal dendak... Hala ere, guztien gainera janari dendak ziren gailentzen zirenak. Urte horietan zehar, egoera berdintsua mantendu zen, eta Hernaniko Kaxkoa osatzen zuten kalean komertzio ezberdinak pilatuz joan ziren. Hauetariko asko aurrera ateratzearen ardura emakumeena izan zen. Gainera komertzio hauetara eguneroko beharrak asetzera gerturatzen ziren bezero gehienak emakumeak izan ohi ziren; bereziki emakumeei atxikita egon diren jardueri lotutako komertzioak izanik: mertzeria, oihal dendak, ile-apaindegiak ... Gizonezkoak gailentzen ziren ordea, burdindegia eta aroztegiak bezalako jardunetan. Izan ere, merkataritza alorrean, beste hainbat esparrutan bezala, sexuen arabera lan banaketa argia zen. Beste jardura batzuetan aldiz, bi sexueta pertsonak elkarrekin egiten zuten lan, ezkon bikoteak, oro har, baina baita bestelako bikoteak ere, aita alabez osatutakoak adibidez, biltegi eta jendaurreko lan eremuak aldizkatuz.

Kontuan izan behar da garai honetan ez zegoela egun dauden supermerkatu handiak, zentro komertzialak... eta beraz, denda eta lantegi txiki pilaz osatua zegoela herria, eguneroko beharrianak asetzera bideratuak. Bestalde, aipatu beharra dago, gerra ondorengo urteak askorentzat oso gogorrak izan zirela, bizi izan zutenek dioten moduan:

"Aquella época fue dura, y para los pobres, como siempre, muy cuesta arriba, después con el trabajo y la cosa se evoluciona muchísimo" (Francisca)



Urumea ferreteria 1944an ireki zuten kale nagusian eta 2015ean itxi zen. Garaiko argazkian argi ikusi daiteke ferreteriaren izenaren azpian bertako jabearena jartzen duela, Teodora Izagirre. (Argazkia 1976 urtekoa)

Hernaniko merkataritza bizitza nolakoa zen hobeto ulertzeko, 1944. urte inguruan, kaxkoan zehar zeuden komertzio batzuk aipatuko ditugu jarraian:

Abarka dendak: Jose Joaquin Esnal, Hijos de Jose Recondo eta Antonio Soraluze.

Bizartegiak: Felix Leibar, Tomas Polo, Santiago Ruiz, Valentin Ruiz, Antonio Soraluze, Joaquin Zubeldia.

Oinetakoak edo konponketak: Angeles Ruiz, Miguel Goikoetxea, Joaquin Gonzalez, Miguel Lucas, Esteban Michelena, Julio Ruiz.

Ikaztegiak: Vicenta Bengoechea, Saturnino Eguiguren, Gregorio Garaicoechea, Jose Gorostidi, Pedro Oruezabala, Vda. de Garmendia.

Harategiak: Felix Alberdi, Teodoro Iraola, Juan Usandizaga, Vda. de Gorrochategui.

Aroztegiak: Jose Ramon Ollo, Domingo Orbegoza, Vda. de Ambrosio Iraola, Jose Ramon Altuna, Telesforo Amezuza, Jose Arregui, Bautista Imaz.

Janari dendak (komestibleak): Luis Adarraga, Aguirre Hermanas, Hijo de Juan Aguirre, Agustina Alberdi Lete, Amalia Arana, Marcelino Berasategui, Tomas Echarrai, Saturnino Eguiguren, Vda. de Garmendia, Leonor Gutierrez, Manuela Idarreta, Antonio Inchausti, Regina Iraola, La Proveedora, Jose Larrañaga, Julian Madina, Vicente Munilla, Vda. de Oa, Vicente Olaricegui, Vda. de Ortiz, Nemesio Plaza, Tomas Polo, Ricardo Rezola, Antonio Soraluze, Vda de Ugalde, Miguel Urruzola, Trinidad Usategi.

Drogeriak: Tiburcio Epelde, Sandalio Landaribar, Jose Ordoñez, María Carmen Setien.

Mertzeriak edota oihal dendak: Benita Alonso, Monica Aramburu, Agustina Arriaran, Elvira Carrasquedo, Tiburcio Epelde, Vda de Otaño, Tomas Polo, Manuela Sagarna, Candida Zapiain, Rosa Goicochea, Benita Alonso.

Arrandegiak: M. Beltran, Vicenta Bengoechea, Benigna Lecuona, Isabel Lopez, Aniceta Usarraga, Manuel Yaguas, Manolo Isasa.

Iturria: San Juan Konpartsak Hernaniko merkataritzaren inguruan ateratako liburuxka (2013).



Urtea: 1970 hamarkada hasiera

Lekua: Portalondo estankoa, Plaza Berria.

Ageri direnen izenak: Juanita Olaizola, Kontxa Iruretagoiena, Isidro Arrieta, Sarasua...

Deskribapena: "La cola de los Farias" bezala ezaguna den argazkia. Jendea dendara sartzeko ilaran.

Interpretazioa: Adin eta sexu guztietako pertsonak ageri dira, dendara sartzeko ilaran: emakume eta gizonak, haurrak, langileak, etxekoandreak... Batzuk lan ordutan daudela dirudi (zerbitzari jantzia du emakume batek). Portalondo 1918an zabaldu zen eta herrian fama handia zuen. Garai hartan "Farias"-ak oso artikulua preziatuak ziren, ohitura handia zegoen hauek erretzekoa. Hamabost egunetik behin gutxi gora behera ekartzen zituzten fariasak, eta horrelako ilarak sortzen omen ziren hauek erosteko.

1944ko komertzioen zerrendan ikusi moduan, komertzio ia guztiak gizonen izenean ageri dira eta deigarria da, hainbatetan “viuda de” moduan ageri direla. Azken honi dagokionez, gerra zibila bukatu eta ondorengo testuinguruan kokatuta gaudenez, jakina da egoera ez zela batere samurra izan, eta familia askok euren senitartekoak galdu zituztela. Kasu askotan gerrara joandako ahaideak (senar eta aitak gehienetan, baina ez hauek bakarrik) ez ziren gehiago itzuli eta beraz, gainontzeko senideak egin ziren etxeko negozioetako arduradun nagusi; emakumeak askotan.

Lan honetan behin baino gehiagotan azaldu den moduan, Frankismo garaian legedi zorrotza ezarri zitzaizen emakumeei etxera itzularazteko ahaleginean. Horren adibide izan zen, erregimen Frankistak, errepublika garaiko legeak indargabetu eta 1889ko Kode Zibileko hainbat artikulua eta titulu ezarri izana:

Art 60: “El marido es el representante de su mujer. Ésta no puede sin su licencia, comparecer en juicio por sí o por medio de procurador...”

Art 61: “Tampoco puede la mujer, sin licencia o poder de su marido, adquirir por título oneroso ni lucrativo, enajenar sus bienes, ni obligarse, sino en los casos y con las limitaciones establecidas por la ley”

Mota honetako legedia indarrean, normaltzat jo genezake, tailer, denda... gehienak gizonen izenean egotea; nahiz gizon izen horien atzean emakumeak egon (ezkutatuak). Legeak baina, ez du esan nahi emakume guztiek legea betetzen zutenik, eta esan moduan, “etxeko aingeru” bihurtu zirenik. Txiki txikitatik atxikitzen zitzaizkien etxeko eta zaintza lanak egiteaz gain, emakume askok, etxetik kanpo ere egin zuten lan, nahiz eta datu ofizialetan langile hauetariko askoren izenak ez ageri.

Argi ikusten da halaber, komertzio motaren arabera, sexuen arabera lan banaketa eman zela. Deigarria da aroztegietan, ikaztegietan.... ez dela emakume izenik ageri, bai ordea janari dendetan, mertzerietan etabarretan; azken hauetan gizonak egon arren, emakumeek presentzia handia zutela nabaria da, jasotako datuen arabera eta elkarriketatuek baieztatu bezala.

"Mi padre era peluquero y alpargatero y de ahí, y luego terminé haciendo tienda (...). Mi padre hacía alpargatas y yo cosía" (Felixia)



Urtea: 1957 inguru.

Lekua: Zapateria Ruiz.

Ageri direnen izenak: Inmaculada Perez

Deskribapena: Inmaculada ageri da, Ruiz zapata denda aurrean. Zapata denda hau kale nagusian kokatuta zegoen.

Interpretazioa: Argazkia nork atera zuen ez badakigu ere, badirudi argazkilariak denda kanpoaldea eta bertan lan egiten zuen langilea atera nahi izan zituela bertan; bera bakarrik ageri baita. Argazkirako espresuki kokatua dagoela dirudi, lan egiten zuen dendako bi erakusleihen artean, laneko arropa dirudienarekin.

4.4.1. Eskola utzi eta etxekoei laguntzen hasi

Oro har, nesken heziketari ez zitzaion garrantzi handirik ematen; mutilen heziketari baino gutxiago kasu guztietan, eta beraz oso ohikoa zen, neska oso gazteak, umeak oraindik, lanean hastea. Esparru honetan, normalena ama edo aitari merkatari lanetan laguntzen hastea zen, pixkanaka beren jarduna bihurtzeraino. Hori da elkarrizketatutako emakume batzuen adibidea:

“1945an, aita hasi zan, gero ama ta gero ni. Aurten ingo ditut berrogeita hamar urte hemen lanian. Hamabost urtekin hasi nintzan (...) ni ya hemen eotenintzan lehenagotik, orduako ya banekin dendako martxa” (Mertxe)

“Hamalau urtekin, eskola ez nun bukatu, jun nintzan Loiolara, nere izeba erori eta hautsi zitzaion hezur bat. Eta denda zakaten, denda de comestibles y panaderia. Ordun pues klaro ni, porque bere alabak oso gaztiak zian, eta ni harean jun nintzan hamalau urtekin”. (Maritxu)

“Empecé a aprender de peluquería. (...) después me establecí siguiendo trabajando de seis a doce en la fábrica, porque ese dinero se lo daba a mi madre; y por las tardes, en la peluquería. Y con lo que sacaba allí pagaba las secadoras” (Loli)

“Geo bea (gizona) ezautu nun ta bere amak jarri zun denda, ezkondu giñan ta nik iten non goizeko ordubik arte behar bazan” (M^o Angeles)

Beste batzuen kasuan, ezkondu eta haurrak izan baino lehen etxetik kanpo lan egin arren, familia osatzean etxeko kontuetaz arduratze-
ra igaro ziren. Aldiz, alargun geratu ostean, bizirauteko lana egin behar izan zituzten. Hala egin zuen elkarrizketatua izen den iloba baten amonak; bost seme-alabekin geratu baitzen alargun. Bere ahizpa eta hauen seme alabekin batera bizi izan ziren, hau ere alargun, guztiak batera. Egoeraren aurrean zerbait egin beharra eta alargundu berria, karameluak saltzen hasi zen karro baten laguntzaz. Bere ahizpak, fabrikako lanak bukatu ondoren, karameluen salmentarekin laguntzen zion. Plazan jartzen zuten gozokiz betetako postu moduko bat, kaxkoko kaleetatik ere mugituz.

Baziren baita ere, ezkondu ondoren beren senarrarekin lanean hasi ziren emakumeak; nahiz lanbidearen inguruko noziorik ez izan, praktikaren bidez ikasiz joan zirenak, jubilatutako arte lan eginez. Elkarrizketatutako emakume baten kasua izan zen hauxe, 24-25 urte ingururekin hasi zen bere senarra izango zenarekin batera lanean mertzzeria batetan. Lokala alokatu eta biak elkarrekin egin zuten lan 38 urtez.



Urtea: 1957 inguru.

Lekua: Libreria M^a Elena.

Ageri direnen izenak: M^a Cruz Macazaga eta M^a Elena García.

Deskribapena: Bi emakume denda kanpoaldean.

Interpretazioa: argazkia nork atera duen ez jakin arren, agerian da argazkilariak bi emakumeak dendarekin batera erretratatu nahi izan zituela. Ondo erreparatuz gero, denda barruko erakusleihoan, ospakizunetan jartzen diren "girnalda" modukoak daudela ikusten da, eta badirudi horietako batean, Frankismoaren irudia ageri dela, garaiko diktadurari jarraiki.

Gerrak utzitako ondorioak larriak izan ziren: hildako eta desagertutako asko, kartzelaratuak, goseteak... giro triste eta guztiz ezegonkorra zen nagusi. Baina bizitzak aurrera jarraitzen zuen, eta lan egin beharra zegoen, familiaren biziraupena baitzegoen jokoan. Hurrengo urteetan hobekuntzak egon baziren ere, familien egoera ekonomikoa ez zen nahi beste hobetu, ez behintzat gerora sortu ziren kontsumo eredu berriei aurre egiteko adina.

"Había que sacar, tenías que sacar como sea la pela, y la que se empeñaba sacaba, y la que no, andaba siempre a dos velas" (Loli)

Garai honetan ez zen etxetik kanpo lan egiten ekonomikoki autonomo izateko, edo bestelako ondasunak eskuratzeko. Familia gehienek aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa zuten enplegua izatea; dirua irabaztea. Horren erakusle da, irabazitako dirua amari ematea ia kasu guztietan, hauek administratzen zutelarik, etxeko beharren arabera:

"Amái entregatzen nion dena. Nere amak ematen zian propina bat, nik gordetzen nittun eta gero erropa... hoi bai ilusio batekin..." (Maritxu)

Kasu askotan dirua emakumeek administratzen bazuten ere, gizonen kontrolatu ohi zuten; eta gizonen beti izaten omen zuten emakumeek baino diru gehiago. Izan ere, emakumeek izaten zuten dirua familiako kideentzat izan ohi zen, bai elikagaiak erosteko, edota seme-alabaren batek arroparen bat behar izaten zuelako... Hau da, diru hori ez zen emakumeentzako beraientzako, familiaren beharretarako baizik. Gizonen kasuan aldiz, diru hori beraientzako izaten zuten; askok tabernetan edota bestelako gauzetan xahutzen zutelarik, baina beraientzako soilik erabiltzen zuten diru hori. Aipaturiko diruaren kontrol hau ohikoa zen komertzio esparruan ere:

"Vendíamos cosas en la tienda de comestibles y apuntábamos todo y sumabas y luego te pedían la cuenta por que el marido le pedía (...) La gente de fuera no tenía nuestra cultura, y le pedían las cuentas a la mujer" (Maritxu)

"Había una, era joven, y compraba lo que sea, y a mí me decía, si valía cien pesetas, ¡ponme ciento cincuenta para que mi marido me dé más! Ósea era él el que tenía la caja" (Francisca)

"Los hombres tenían más dinero siempre que las mujeres (...) Manejaban más dinero que las mujeres" (Francisca)



"Mugitzen ta etxera ere juten zian erostea, hor kardaberaz kalia ibili zian, ta tinbria jotzen zuten, goxokiak erosi nahi zituztela! Karrua etxeko atarian zeukan" (Miren)

Urtea: 1959

Lekua: Plaza de España (egungo Gudarien Enparantza).

Ageri direnen izenak: Consuelo Moya Gascón eta bere ahizpa Mari Cruz Moya Gascón. Karro ondoan zutik Madrilen bizi zen koinata, Hernanira bisitan etorria.

Deskribapena: Consuelo eta Mari Cruz ahizpak ageri dira, gozokiz beteriko karroaren atzean (mostradore bat baillitzan) hurrez inguratutik.

Interpretazioa: Argazkiaren erdigunean bi ahizpak eta koinata ageri dira. Azken hau Madrilen bizi zenez, baliteke argazkia atera nahi izatea bere ahaideekin oroitzeko. Argazkilariaren nahia beraz, 3 emakumeak batera erretratatzeko zela esan daiteke, inguruan dauden haurrak bigarren plano batean geratzen direlarik.

Argazki egilea: Pablo, Consueloren seme bat, Belgikan egon zen lanean, eta bertatik ekarri zuen argazki kamera.

Urtea: 1960-70

Lekua: Plaza de España (egungo Gudarrien Enparantza).

Ageri direnen izenak: Consuelo Moya Gascón eta bere alaba Leonor (ez zaio aurpegia ondo ikusten) .

Deskribapena: Consuelo eta Leonor goxoki saltzaile lanetan ageri dira, umeez inguratuak.

Interpretazioa: Argazkiaren erdigunean Consuelo ageri da, ondoan Leonor bere alaba dago (nahiz eta ez den ikusten, umeez tapatzen dute); Consueloren azken urteetan bere alabak laguntzen baitzion lanean. Baliteke argazkilariak ama alabak atera nahi izana, baina bi emakumeak lanean ari zirenez, mugimenduan, baliteke azken momentuan haurrak mugitu eta Leonorri aurpegia tapatu izana.

Egilea: Pablo, Consueloren semeetako bat, Belgikan egon zen lanean, eta bertatik ekarri zuen argazki kamera.



"La abuela salía solo los jueves y los domingos, lo demás vendía en casa, tenían una cuerda, tiraban de la cuerda y entraban... (los jueves) como ponían la feria en atzietas se ponían en plaza berri; y los domingos se ponían en la plaza, y cuando empezaba el baile, subían a los tilos"
(Miren)



"Jun nintzan hamalau urtekin,(...) ta goatzen naiz oso gaizki pasa nula porque klaro mostradorian han aurpegiya eman behar dezu ta klaro ni beñe enintzan eon mostradore baten aurrian, eta etortzen zian soldaduk ta ni gorri gorriya jartzen nintzan" (Maritxu)

Urtea: 1975

Lekua: Comestibles y panaderia
Semperena (Loiola).

Ageri direnen izenak: Pili Lujanbio
Olano eta Emili Olano Garaiar.

Deskribapena: Bi emakumeak dendako
mostradore atzean ageri dira.

Interpretazioa: Badirudi argazkilariak
bi emakumeak beraien lan eremuan
erretratatu nahi izan zituela; lan eremua
argi azaltzen delarik (janari potoak,
pisua makina...) eta erdian bi emakume
protagonistak, laneko bata soinean
dutela.

Urtea: 1966 inguru.

Lekua: Tejidos y confecciones Hernandez.

Ageri direnen izenak: Josefina Cátedra Galdón.

Deskribapena: Josefina denda barruan.

Interpretazioa: Argazkian emakume langilea bera ateratzen bada ere, argazkia egin zuenak garbi zuen, emakumea ateratzeaz gain, honek lan egiten zuen denda eta bertako ezaugarriak atera nahi zituela. Izan ere, protagonismo berezia dute emakumearen atzean dauden kaxaz betetako baldek (mertzerietako ezaugarri nagusia), argazki osoaren espazio handi bat okupatzen dutelarik, emakumea izkina batean kokatuz, eta ez erdian. Horrez gain, emakumea argazkirako espresuki kokatua dagoela argi ikus daiteke.



"Teníamos lencería, y entonces las mujeres no iban a comprarle sujetadores y bragas a un hombre, no... eso era así (...) hacía falta estar una mujer" (Francisca)

4.4.2. Ordutegirik gabe

Komertzioko lanak jendearekin aurrez aurreko lana esan nahi du; aurreko garaietan orain baina gehiago ziurrenik. Dendetako ordutegiak bestelakoak ziren, batzuetan ez zuten ordutegi finkorik, beraien eta bezeroen arabera moldatzen zutelarik, eta bestela ere, ordu asko pasatzen zituzten mostradore atzean. Harremanak ere ezberdinak ziren, eguneroko joan etorriak izaten ziren, oro har. Langile eta bezeroen arteko elkar ezagutza handia zen, harreman sakonak izan ohi zituzten; gehienbat emakumeen artean kasu hauetan.

“...Mucho, uf, ¿en la peluquería? A mí me querían a horrores... cuando dejé la peluquería ¡hasta llore! (...) Pero es que yo tenía una clientela, treinta años venían siempre las mismas, las mismas caras todas las semanas... si, si yo he tenido mucha relación” (Loli)

Konfiantza horren erakusle da, denda askotan bezeroen gastuen zerrendak izaten zituztela, ondoren, posible zutenean pixkanaka diru hori ordaintzen joaten zirelarik. Trukea ere ohikoa izaten zen; esaterako, barruko erroparen truke, baserritarrek esnea, oilaskoa... bezalako elikagaiak ekartzen zituzten:

“Yo si me acuerdo en la tienda, venía y le comprábamos lechugas por ejemplo, había mucha costumbre, nos traía lechugas y acelgas para vender, y entonces en vez de yo pagarle, ella me compraba el aceite, café, lo que se usaba en una casa, azúcar... con el dinero de la verduras” (Maritxu)

“La casera de un caserío siempre nos trajo la leche, y ella se llevaba género. Nos traía leche, pollo, verdura... nunca cogimos una peseta de esa casera, en todos los años, nunca. Allí había una libreta, lo que se llevaba y lo que traía” (Francisca)

Urtea: 1957

Lekua: Autoservicio Urruzola.

Ageri direnen izenak: Maria Pilar Carrera Vera eta Antton Urruzola Lujanbio.

Deskribapena: Janari dendako mostradore atzean, senar-emazteak lanean.

Interpretazioa: Argazkiaren lehen planoan emakume langilea ageri da, bezero baten kontuak egiten ari dela dirudien arren, argazkilariari begira ari zatzaio, berarentzako espresuki jarri dela dirudi. Ondoan bere gizona ere lanean ageri da, baina honek ez dirudi argazkilariari so dagoenik. Irudi honetan ere berebiziko garrantzia dute dendaren ezaugarriek (baldetan pilatuak dauden elikagaiak, goitik zintzilika ageri diren platano eta bestelako frutak, pisurako makinak...). Argazkilariaren nahia beraz, langileak dendan erretratatzeari zela esan daiteke.



"Erosten gendun lenteja, garbantzua ta dena zakutan, ta geo iten gendun kilua jarri beharrian hartu gendun genero hobia baño kilo erdika, azukria ta galletak, geo enpaketatzen genitun denda itxi ta geo"
(M^a Angeles)

Lan baldintzen inguruan, gehitu beharra dago, jendaurreko jarduera izanik, askotan bezeroen menpekoea izan ohi zela: ordutegi zorrotze-kin edota batere gabe, esan bezala. Honez gain, egoera ezberdina zen, norberarentzat edo beste norbaitentzat lan egiten zen kasuetan; baina orokorrean, lan baldintzak ez zeuden batere erregulatuak, eta bakoitzak ahal bezala egiten zion aurre egoerari:

"Yo me levantaba a las ocho, me iba a la tienda, toda la mañana, venía con mi marido, me hacía la comida, veníamos a las una y media o las dos, salíamos a las tres y media y hasta las siete de la tarde (...) Tenía que estar en la tienda, no podía faltar. Entonces se abría toda la semana menos los domingos" (Francisca)

"Yo con la tienda no podía ir algún lado. Hasta los domingos abría, y a la tarde tenía que limpiar" (Félix)

"Ta gero hasi nintzan soziedade batian ontzik garbitzen, etziateen ematen nominak ta ezerrez" (Maritxu)

Familiarentzat lan eginez gero gainera, batzuetan egoera okerragoa izaten zen. Gehienek ez zuten ez segururik, ez oporrik eta ezta beste langileek izan zezaketen eskubiderik. Guztiz baldintzatuak zeuden zentzu horretan, gehienetan ez baitzuten beren egoeraren edo jardunaren inguruan iritzirik emateko edota erabakitze inongo aukerarik. Familiako kontuak izanik, familiako buruen artean adosten zituzten egin beharrekoak eta hauen baldintzak, eta beraz, txintik esan gabe agindutakoari men egin beste erremediorik ez zen izaten:

"Eondu nintzan hamalu urtetatik ogeita zortzi urteta, haserretuta alde inun, zen ni seguru gabe eta ezer gabe nengon han (...) bakaziyuak ere ez nitun iten (...) Ordun minduta atea nintzan, beste pertsona bat baldin bazan... baino nire izeba!" (Maritxu)

Ohikoa zen gainera, komertzio lanez gain, bestelako jarduerak ere burutzea. Komertzio lanak beste jarduera batzuekin bateragarri egiten zituzten: askok fabrikako lanekin, baina baita bestelako lanekin ere, ikasketak, jostun tailerrak... gehienbat gazteek egiten zituzten horrelakoak, baina denetik zegoen:

"Gero atsaldetan dendatik lehenago atea eta kontabilitatea eta frantsesa ikastea juten nintzan. Akademia batea ere jun nintzan jostea. Ta larunbatero sukalde guztia garbitzen nun!" (Maritxu)

Urtea: 1969

Lekua: Peluquería Juli.

Ageri direnen izenak: Juli Ayerra Gomez, Arantza Etxarri (laguntzailea) eta Maite Arrondo (bezeroa eserita).

Deskribapena: Juli ageri da emakume bati ilea apaintzen bere ile-apaindegian.

Interpretazioa: Argazkiaren erdigunean Juli kokatzen da. Argazkia nork atera duen ez jakin arren, nabari da argazkiaren helburua Juli lanean ateratzea zela. Nahiz eta begira ez egon, bera da argazkiko protagonista, bere lan eremuan (ile-apaindegian) erretratatu nahi izan zuelarik argazkilariak (langileak laneko jantziarekin, bezeroak buruan erruloekin, ile-apaindegiak izaten dituzten ispilu eta produktuekin.... Bigarren plano batean daude beste emakumeak, aurpegia apenas ikusten zaielarik (ispiluaren efektuari esker bi emakumeen kasuan).



"Las caseras de Ereñotzu a las seis de la mañana venían, ¡hala arriba! Ahí no había horarios. También peinaba los domingos, en aquel tiempo igual me daban dos pesetas de propina, ¡era mucho!" (Loli)

Aipatu moduan, jende askok egunean egunekoa erosi arren, ez zuen nahikoa izaten guztia ordaintzeko eta ohikoa zen, gastuak zerrenda batean apuntatu eta dirua zutenean itzultzen joatea. Kale nagusian 45 urtez elikagai denda izan zuen emakumeak kontatutakoaren araberak askok egiten zuten hori:

"Dejaban sin pagar, y te daban cuando cobraban, a la semana o al mes (...) mucha gente de fuera me han dejado sin pagar, (las castellanas) los demás... aunque también había alguna del pueblo" (Félix)

"Trukian? Apuntian askotan! Bat baño gehio, baño oso jende ona euki deu (...) ta egunian egunekua, ez genun frigorifikua, freskera gendun" (M^a Angeles)

Garai hartan ere fabrikako langileei zuzendutako ekonomatoka jarri zen herrian (kartila baten bidez funtzionatzen zen bertan, eta prezioak merkeagoak ziren). Horren aurrean, herriko denda asko "haserretu" omen ziren. Gerora aldiz, kanpotik jendea etorri ahala, egoera orekatuz joan zen, lana denontzako egonik. Horren erakusle zen herrian zeuden komertzio guztiak.

"Denda txikiya zan ta oso zaharra (...) ta dendan arriskatu giñan ze etzeon genero asko, hogei tomate, berdura ta fruta gehiegi ez, oso gutxi, ta zian tiendas de portal" (M^a Angeles)

Bitxikeria ugari ere bizi izan zituzten herriko komertziotan lan egindako emakumeek. Esan bezala, emakume asko urte askoan egon ziren lanean leku berean eta hainbat gertaera bitxi ere bizi izan zituzten:

"(Al cerrar la tienda a las ocho) ocho largas y el señor aguacil, nada menos... es que, nos poníamos hablar..., yo no sé que pasaba, que me cogió dos veces con la tienda abierta a partir de las ocho, y me puso una multa de quinientas pesetas. La primera doscientas cincuenta y la segunda quinientas" (Félix)

"Las gitanas, vino una y más simpática..." zeri hau me ha quitau una botella de aceite"; pero seguro no sabía. "Hola guapísima otro día" y claro, y cogió otra vez; pero yo apunte en la cuenta. ¿Y esto de qué es? ¿Esto? Y le digo: sí, has cogido una botella de aceite. ¿Yo? Haber mira en la bolsa. Y estaba ahí, y todas riendo porque hice eso" (Félix)

Urtea: 1960 inguru.

Lekua: Cuevas farmazia.

Ageri direnen izenak: Ixiar Etxeberria Balerdi, Marina Cuevas Dañobeitia eta Maritxu Almorza Jaunarena.

Deskribapena: Hiru emakume jantzi zuriekin ageri dira farmazia dirudien erakusleahoaren aurrean.

Interpretazioa: Farmazietan ohikoa zen bezala hiru emakumeak zuriz jantzita ageri diren arren hiru emakumeak, eta begiratu batean hiruak, farmaziako langileak diruditen arren, ezkerraldean dagoena soilik da bertako langilea. Erdikoa farmaziako jabea zen eta bere alboan dagoena, jabearen neskamea, zein bere jabearen etxeaz arduratzeaz gain, farmazia ere garbitu ohi zuen.



4.4.3. Umeak edukita ere segi!



"Tuve a mi hija a los dos años de casarme, cuando era chiquitita le engañaba sentadita en la peluquería con una mantita mientras yo trabajada" (Loli)

Urtea: 1957 inguru.

Lekua: Peluquería Juli.

Ageri direnen izenak: Juli Ayerra Gomez eta Lourdes Leibar Ayerra.

Deskribapena: Juli ile-apaindegian lanean diharduen bitartean, atzean neskatxo bat ikusten da (Juliren alaba) jolasean.

Interpretazioa: Lehen plano batetan, Juli ageri da, bezero bati ilea orrazten. Bigarren plano batetan bere alaba ageri da, jolasean. Argazki honetan oso ondo ikusten da enplegua eta amatasuna edo etxekoen zainketaren uztarketa, bi lanak aurrera ateratzeko ahalegina. Kasu honetan alabaren zaintzaz arduratzeko, lantokira eramaten zuen hau; eta badirudi argazkilariak ere errealtate hau islatu nahi izan zuela.

Emakumeak eta lan eremuaren beste aztergai bat amatasunarena da. Garai hartan ez zegoen egungo amatasun baimenik. Gehienak erditzeko unea iritsi arte jarduten zuten lanean, eta behin haurra izanda, 8 egunetara berriz ere etxetik kanpoko lanean hasten ziren. Negozioa beren kargura zutenen kasuan, denda itxita ahalik eta denbora gutxien izaten saiatzen ziren, galerak ere ez zitezen handiak izan, lehenbait lehen hasiz berriz ere eguneroko jardunean.

"Nació (la hija), estaba vencida a las cuatro de la tarde, eran las doce y (todavía) estaba trabajando. A los ocho días ya estaba currando" (Loli)

"Uf, konpondu ginan berdin, egun bat itxi gabe, bueno erditu ta geroko zortzi egunak, ta zortzigarren egunian emakume bat hartu behar genun... Petxua ematen nion hor atzian, (denda barruko almazengan) hotza itebazun goien ematen nion petxua umiei, ta ama jaisten zan dendara, ta telefonotik "la lejía cuanto es? Tal" (Mertxe)

"Batzutan he antepuesto a la familia, no anteponer, baina lehen el trabajo era lo primero, oain ikasi deu ezetz, ke no puede ser, baina askotan... Ni beti izan naiz ama; adibidez ume txikinakin eskolatik jasotzen nun, nekin meriendatu eta gero andriakin uzten nunian irikitzen nun denda, bostetan, eta bestiak lautan. Baina batzutan esatet, si pudiera hacer mas por los hijos... baño el deber, esaten dan bezela, del horario, de la tienda... Lehen larunbat atsaldetan irikitzen genun, geo nik esan nun ezetz" (Mertxe)

Ikusten den bezala, emakumeek ez zuten erraza izan enplegua eta amatasuna uztartzerako garaian. Ama izatea, erditze momentuaz gain, haurren kargu egitea ere bazen. Amaren ardura kontsideratzen zen haurren zaintza; beraz, ahal izan zuten moduan antolatzen ziren horretarako.

"Alaba askotan uzten nun lo, ta geo korrika jute nintzan... zeatikan ezitzaidan iristen kanpoko norbait hartzeko (...) batzutan lo aurkitzen nun ta ai ze ondo! Bestetan negarrez topatzen nun ta ne pena... (...) Azkenian esan nion honi (senarrari) umia ondo dakatenian denda nekin eamango det ta ez daonian, ezet irikiko denda! Ordun kinielana etorri zan ta ordun hartu nun neska bat" (M^a Angeles)



*"Jesús, María ta José! ne alaba jaio zanian e
hemen ainintzan gerriko miñakin eon eziñikan"*
(M^a Angeles)

Urtea: 1954

Lekua: Pineda harategia.

Ageri direnen izenak: Inaxi Erdozia.

Deskribapena: Inaxi Erdozia haragia
mozte lanetan.

Interpretazioa: Argi dago Inaxiri
espresuki ateratako argazki bat dela.
Badirudi gainera harategi barruko
"almazenean" edo haragi zati handiak
gorderik edukitzen zituzten lekuan
dagoela. Horrez gain aipatzekoa da,
argazkian argi ikusten ez bada ere, Inaxi
haurdun dagoela argazki honetan.
Horrelakoetan ohikoa omen zen
emakumeek bata edo mantal handi eta
zabalak janztea, (argazki honetan bezala)
sabela disimulatu nahian.

Senitarteko edo bizilagunen laguntzaz baliatzen ziren batzuk; beste batzuk emakume bat hartzen zuten haurra zaintzeko; eta beste batzuen kasuan, ikusi den moduan, lanera eramaten zuten haurra; eta ahal zuten moduan entretenitu, lan egiten zuten bitartean.

"Hombre...ta gañea gizona etzan etortzen beanduarte oain bezela. Nere gizona igual hamaiketan etortzen zan, etorri, umiei muxu eman ta hauek ya lo eoten zian; askotan ordubatian oaindik erropa garbitzen...hemen hemos pringau pero bien" (Mertxe)

4.4.4. Kanpotik eta barrutik, lanak ezin bukatu



"Los trabajos de casa no se han valorado nunca"
(Francisca)

Urtea: 1962-63 inguru.

Lekua: Andre kalea.

Ageri diren izenak: Consuelo Moya Gascón.

Deskribapena: Consuelo bere etxeke sukaldean ageri da, hainbat lapikoz inguratuta.

Interpretazioa: Emakumea sukaldean aritzeko izan daitekeen amantal batekin ageri da. Inguruan hainbat lapiko ditu, bat sutan besteak inguruan (kafea egitekoa...) sukalderako beharrezko bonbona ere ikusten da argazkian. Argazkilariak Consuelo bere etxeke sukaldean erretratatu nahi izan zuela esan daiteke eta horretarako kokatua dagoela dirudi, argazkiaren erdian begira ageri baita.

"Mi difunta cuñada cuando me veía planchar los domingos me decía: como te vea la madre.... Pues que me vea, ¿cuándo voy a planchar pues? ¡Tenía que trabajar! Toda la semana trabajando y... ¿pecado es planchar? (Loli)

Agerian geratu den bezala, emakume ugari egin zuten lan etxetik kanpo, kasu honetan merkataritza esparruari lotuta. Etxetik kanpo lan egiteak aldiz, ez zituen etxeko lanez libratzen emakumeak. Beraz, lan bikoitza egitea tokatu zitzaaien emakumeei: etxetik kanpoko eta barrukoa; nahiz eta azken hau ikusezina izan gehienentzat.

"Pues yo iba a trabajar y trabajaba en casa. Yo vivía arriba (del comercio), y me escapaba, ponía la comida, hacía lo que podía (...) cuantas veces cuando mi marido se iba a trabajar a la mañana, me daba un beso, y yo me hacía la dormida, y cuando bajaba las primeras escaleras, yo me levantaba a limpiar los azulejos de la cocina, es que había que hacer, tenías que ir a trabajar" (Loli)

Garaiko jendartean, baita emakumeen artean ere, oso barneratua zegoen etxearen kudeaketaz eta bertako kideen ongizateaz emakumeak arduratzea; ez zen eztabaidagai zegoen gaia inondik inora.

"No se valoraba el trabajo de la mujer, el hombre tenía la cosa de que "yo soy el macho, y yo trabajo, yo traigo un sueldo ¿de acuerdo?", pero la mujer era la esclava de la casa: la que fregaba, la que lavaba, la que limpiaba, la que cuidaba de los niños, la que hacía la compra y la comida...o sea, que aquello también tenía su valor ¡eh! porque el hombre se va por ahí, y ¿quién hace todo? Una casa tiene mucho trabajo aunque no lo parece y unos niños tienen mucho trabajo y mucho cuidado, pero no se valoraba así, y eso tampoco no lo veía yo bien, jera demasiado discriminado! (...) Algunos hombres sí que agradecían y veían; y mi marido a veces nos ayudaba, en momentos concretos nos echaba mucho la mano, pero por lo demás, era normal, que el marido se iba a tomar un pote mientras tu hacías la cena" (Loli)



"Gañea ni juten nintzan beatzitako lanea eta eoten nintzan ordubik arte, gero izeban etxea jun, han bazkaldu eta nik garbitzen nitun ontziak eta dena! Jasotzen nun sukaldia, eta no te lo pierdas, erropa bazeon plantxatzeko, lixatu ta dena nik iten nun" (Maritxu)

Urtea: 1975

Lekua: Loiolako etxea.

Ageri direnen izenak: Pili Lujanbio Olano.

Deskribapena: Pili izebaren etxean harrikoa egiten.

Interpretazioa: Sorpresazko argazkia dela esan daiteke honako hau, bai bertako protagonistarentzat behintzat. Etxe bateko sukaldean ageri da harrikoa egiten, etxeko bata jantzia duela ematen du, eta bat-batean norbaitek bere izena esaten duela ematen du eta begiratzera koan... klik! Baliteke argazkilariaren nahia emakumeari erretratua ateratzea izatea, non eta zer egiten ari zen kontuan izan gabe, baina irudian oso argi azaltzen da etxeko lanetan murgilduta dagoela (eskuan platera duela).

Ikusi den moduan, emakumeek merkataritza arloan jardutea gauza ohiko zen; baina honek ez du esan nahi etxetik kanpoko lana ondo ikusia zegoenik. Boteretik jendartearen bultzatzen zen ereduaren familia zen zutabe nagusia; emakume eta gizonen arteko funtzio banaketa argia ezarri. Ereduak kanpo ateraz gero, jazarpena argia zen:

"...Una chica que se le censuraba mucho en Hernani, pero esa se levantaba a las seis de la mañana, que en aquella época recogía puntas a las medias y se sacaba buenas pelas, y a las diez o doce de la mañana se iba a la playa y la gente decía ¡joe!... (...) pues no gustaba a mucha gente, no, porque la mujer era en casa, tampoco lo veo bien, porque no puedes sacar algo de casa, siempre que no abandones la casa, porque hombre también que vayas a trabajar fuera por capricho de tener un duro mas o menor o por pasarte a lo que tampoco te corresponde y abandones la casa y lo hijos, pues tampoco no lo veo bien, pues la que se sabe sacrificar y sabe hacer su casa pues..." (Loli)

Oso argi ikusten da testigantza honetan garaiko ideologiaren indarra. Sección Femeninatik bultzatutako hezkuntzak eragin handia izan zuen emakumeengan. Guztiz barneratu zuten euren egitekoa etxea eta haurren zaintza zela, bakoitzaren lekua garbi adieraziaz. Sakrifizioaren kontzeptua ere oso adierazkorra da, emakumearen sakrifizioarako ahalmen moduan, besteengatik sakrifikatzeko gaitasun hori.

"Siempre hemos dejado que el hombre tenga sus amigos, hacían reuniones... ¿qué tenía reunión? Qué bien, pensaba yo, voy a planchar, voy a hacer esto... yo igual he sido un poco tonta, pero he sido muy feliz, muy feliz trabajando, todo el tiempo aprovechaba para trabajar" (Loli)

"Iba al kiosco a las cuatro y media, les dejaba a los dos aquí (su marido y su madre), igual toda la noche me tenía mi madre sin dormir. Me levantaba, me iba a trabajar, volvía, les arreglaba, le afeitaba a mi marido, le vestía a él primero porque solían venir los amigos, les sentaba en frente. Les subía a la residencia, andábamos así, y cuando volvíamos se agarraban a mi porque vivíamos en el 3º piso y ttaka ttaka subíamos...les hacía la comida y todo. Y así estuve yo trabajando horas incontables" (Loli)

Elkarriketatuak izan diren emakumeei garai hartako emakumeak zuen lekua inguruan galdetuta ere, horrela erantzun ohi dute:

“Pues no, la mujer más bien, estaba en casa, bien hecho o mal hecho, la mujer trabajaba más en casa, cuidando niños, la casa (...) la madre, la mujer se dedicaba a las labores de casa” (Loli)

Emakume honek horrela azaltzen duen arren, bere bizitzaren inguruan galdegitean, bizitza osoan etxeaz gain, etxetik kanpo lan egin duela kontatzen du: fabrikari, ile-apaindegian, kioskoan... Beraz, nahiz eta bere iruditegian emakumearen lekua etxea izan (garaiko ideologiari jarraiki), errealitatean argi dago hau ez zela horrela izan; eta emakume gehienak etxeko lan eta etxekoen zaintzaz gain, etxetik kanpo ere lan egin zutela; beharrezkoa baitzen:

“Yo he trabajado desde los trece años sin parar, lo mismo en casa, en la fábrica, en la peluquería, cobrando recibos, haciendo bufandas. Me acuerdo venir de la fábrica y haciendo bufandas hasta las dos de la mañana. Mi abuela la pobre, en una mesita me separaba los flecos... Yo a veces me dormía, claro, era una cría; y pasaba mas sueño... Yo he trabajado hasta con las uñas... ¡pero soy feliz!” (Loli)

Izan ere, baieztatu daiteke emakumeek bizi osoan zehar egin dutela lan, izan modu batean ala bestean; eta inoiz ezin izan dutela “erretiratu” bere zentzu zabalean, adin nagusietara iritsita ere, lanean jarraitu behar izan baitzuten, arrazoi bat edo beste tarteko:

“Dejé la peluquería porque mi madre se puso enferma, y al quedarse en la cama incapacitada... Venía el doctor todos los días a casa y yo solita. Pero ahí estuve yo, los doce años. Me acuerdo cuando pasaron cuatro años pensé: ¡jo cuatro años llevo ya, pues no me quedaba nada! Mira, mi marido se murió con cincuenta y nueve años, y seme quedo mi madre hasta los noventa y cuatro, era mi madre y yo la adoraba, sino no la hubiera cuidado, pero que injusticia ¿verdad? (...) nunca pensé llevarle a mi madre (a la residencia), yo me sacrificaba, yo me sentía responsable de ella” (Loli)

Azpimarratu beharra dago, emakumeei zuzenean Frankismoaren gainean galdetuta, oro har erantzuten dutela, ez zutela erregimenaren ideologiaren presiorik izan etxetik kanpo lan egiteagatik. Baina aldi berean oso barneratuta zuten etxeko kontuak beraiek egin behar zizutela, lan hauen burutzea inongo momentuan zalantzan jarri gabe. Funtzio horien barneratze prozesua, “naturalizazio” horren erantzule hain zuzen, Frankismoa izan zen. Honek erakusten du garaiko pentsamendu eta ideologiaren indarra.

ostalaritza



4.5. OSTALARITZA

Hernaniko historian oso ugariak izan dira taberna eta sagardotegiak. Gerra aurretik sagardotegi ugari zeuden herriko kale nagusietan: Adarraga, Gorrotxategi, Recondo eta Rezola familiarenak ziren handienetakoak. Gerra ondorenean, sagardoaren beherakada handia eman zen, ardoa ekarri baitzuten eta gainera sagardoari zerga handiak jarri zizkioten. Ondorioz sagardotegi batzuek ateak itxi zituzten; hala ere, jarraitu zen sagardoa egiten, baserrietan gehienbat, norberarentzat ekoiztuz.

40 eta 50. hamarkadetan sagardoa berriz indarra hartzen hasi zen, gehienbat Donostiako elkarte gastronomikoek bultzatuta. Horrela, 1944 urtean sagardoa ekoiztu eta salmentan jartzen zuten batzuk, San Juan konpartsak ateratako liburuxkan dioenez: Luís Adarraga, José Aranburu, Eusebio Izaguirre, Felix Elicegui, Roque Elosegui, Vda de Eugenio Gorrotxategi, Leocadio Isasa, Rufino Recalde, José Recondo eta Ricardo Rezola, besteak beste.

Tabernei dagokienez honela datoz jasoak iturri berean: Francisco Alcorta, José Azurmendi, José Antonio Balerdi, Cinco-enea, José María Cigaran, Egaña (Vda de José), Felix Elicegui, Evaristo Fernandino, Ángel Gorostidi, Ignacion Inza, Ignacio Iruin, Jose María Mutiloa, Segundo Sarasua, Ignacio Setien, Vda de Simón Garmendia eta Vda de Ambrosio Iraola, besteak beste.

Taberna eta sagardotegien jabeak gizonak ziren, alargunak salbuespen; nahiz eta bertan lan egiten zuten langile asko emakumeak izan. Taberna batzuk txikiteorako izaten ziren soilik; beste batzuk otorduak ere eman ohi zituzten. Jende gehien eguerdi aldean eta arratsaldean, seietatik aurrera ibiltzen zen, gizonak lanetik ateratzen zirenean. Emakumeak ez ziren hain erraz sartzen tabernetan; agian otorduren bat edo beste egitera bai; baina emakumeak txikiteoan ikustea ia ezinezkoa zen Frankismoak iraun zuen urte luzeetan, nahiz pixkanaka egoera aldatuz joan.

Ezin aipatu gabe utzi gerra eta gerra ondorengo egoera. Elkarriketatutako emakume gehienak gerra aurretik jaiotakoak dira, eta beraz, batzuk haurrak eta beste batzuk ez hain haurrak zirela harrapatu zituen gerrak. Gerra osteko gosea ondo asko gogoratzen dute batzuek:

“Handikan, klaro berrogeita batta hor izan zan gosete handiya. Eta goatze naiz, aítak igual ogiya elkarri, jun ardo bila eta Lekunberritik pasa ta ekartzen zitula baba txikik, ta handikan lengusuak ogin bat, ta zeon tabernan armario bat egurrezkua, ta ogiya jan biharra zanian, burua sartu ta eman koxka ta jan. Ezin zenun hua jan denan aurrian, zeatikan etzeon” (Rosi)

4.5.1. Etxeko alabak barraren beste aldean

Urtea: 1950 hamarkadada.

Lekua: Azurmendi taberna.

Ageri direnen izenak: Maitere
Azurmendi eta Juan José Sagarna
"Kixkillu".

Deskribapena: Tabernaren barra
barruan daude bi langileak, garaiko
tresneria ikusi daitekeelarik. Barra
kanpoan gizonak daude; batek edaria
eskuarekin heltzen du.

Interpretazioa: Maitere barra barruan,
bezero batekin batera. Argazki hau ere
espresuki ateratakoa da, horren adierazle
da segur aski bezeroa barra barrura sartu
zela argazkia atera behar zutela jakin
zutenean. Eta argazkilariak bi pertsona
horiek ateratzea lehenetsi zuen, barraren
beste aldean zeuden bezeroak erdizka
ateratzen direlarik, horietako batek ardo
pitxarra eskuan duela.



*"Nik zazpi urte nitula nere amak ta aitak hartu zuten taberna hoi,
ta hor izan degu gure bizimodua"*(Rosi)



*"Ba hasi nintzanian hamalau nitun (...)
ta geo hogeita bat urte arte, ezkondu arte" (Maixus)*

Urtea: 1953

Lekua: Egaña taberna.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik eskuinera Juani Aranburu, Juana Aranburu, Miren, Balbina eta Malen (azken hiruak langileak).

Deskribapena: Tabernako sukaldean bost emakume ageri dira.

Interpretazioa: Egaña tabernako sukaldea eta bost emakume protagonistak ageri dira argazki honetan, nahiz eta esan daiteke Juana nabarmentzen dela (ezkerretik bigarrena), bertako nagusia. Denak ere argazkirako espresuki jarriak daudela nabaria da, sukaldeari dagozkion ekintzak antzesten ari baitira: ogia moztu, kafea zerbitzatu, janari platera eskuan, botilak.... Ez da bapateko argazkia beraz.

Ostalaritzaren esparruak merkataritza alorrekin antzekotasun ugari ditu; biak ere jendaurreko jardunean oinarritzeaz gain, bezeroekin oso harreman berezia izaten baitzuten. Kasu honetan baina, ezberdintasun handi bat zegoen: generoa. Hain zuzen ere, ostalaritzan zebilen bezeroa gizona zen. Esanda dago, garai hartan ez zegoen batere ondo ikusia emakumeak tabernetan ibiltzea, eta egitekotan bere senarrarekin edo gizon batekin batera egin behar zuten. Tabernak eta sagardotegiak gizonen egunerokotasunean oso presente zeuden, ohitura handia baitzegoen horretarako. Aldiz, barraren beste aldean ez ziren gizonak bakarrik egoten, Hernaniko taberna askotan emakumeek egiten zuten lan; zerbitzatzen, sukaldean, barra atzean...

Neska gazte asko gurasoei edota bestelako familiakoei laguntzen hasi ziren tabernan lanean, txikitatik ikasiz gerora jardungo zuten lanbidea. Garai hartan hainbat ostalarien jabek ezin izaten zituzten kanpoko langileak kontratatu (ez baitzen nahiko diru ateratzen guztientzat) eta beraz, etxeko edo inguruko neskak "hartzen" zituzten lanerako. Beste batzuk, etxean diru falta egonik, tabernetan bilatzen zuten bizi-rauteko modua:

"Etxian biharra diruana beti" (Maixus)

"Nik zazpi urte nitula nere amak ta aitag hartu zuten taberna hoi, ta hor izan degu gure bizimodua" (Rosi)

"Gure aita eta amak erosi intzuen etxe hau, ta behian jarri zuten taberna" (Joxepa)

"Laguntzen beti mucho o poco, baino ama gaixo jarri zanen, ordun hartu non la batuta! Teniamos cocinera y yo la que menos se creían que mandaba pero... etxekoandria" (Joxepa)



Urtea: 1950 harmarkada.

Lekua: Azurmendi taberna.

Ageri direnen izenak: Maitere Azurmendi, Joxe Azurmendi eta "Petakas" (bezeroa).

Deskribapena: Hiru pertsona ageri dira barra barruan.

Interpretazioa: Maitere eta bere anaia barra barruan ageri dira, euren familiako negozioan. Taberna askorik ikusten ez bada ere, botilak nonahi ikusten dira, barra azpian, goiko baldetan... Argazkirako kokatuak daude lehen planoko hiru pertsonak, irribarre eginez kamerari. Ondoan eserita ageri den gizona bezero bat zen, argazkian ateratzeko barra barrura sartuko zen segur aski.

Bigarren plano batean aldiz, barraren beste aldean gizon bat ageri da, argazkian sartu nahirik eta eskuarekin agurtuz.

Urtea: 1973

Lekua: El tunel taberna.

Ageri direnen izenak: Juana María del Carmen Cortés Gómez eta Higinio Rodríguez Cortés semea (barra atzean). Argazkiko lehen planoan Ramón Paredes Ezeiza, Jose Luis Vélez eta Andoni Unanue.

Deskribapena: Mus txapelketa bateko sari banaketa.

Interpretazioa: Argazkiko lehen planoan musean jokoan aritu diren gizonak daude. Argazkilaria, ospakizun momentu hori harrapatu nahi zuela argi dago, irudiko protagonista nagusiak jokalaria izanik. Hala ere, argazkiko eskuin iskinean, barra ertzean tabernako zerbitzari Carmen ageri da, tabernako sukaldari eta zerbitzari zena, ia-ia ezkutuan.



"Yo en todo, yo trabajaba en la cocina, en la barra..." (Antonia)

Emakume batek kontatzen du, gerra ostean etxera itzuli eta bertan aurkitutako panorama krudela. Hala ere ez zuen etsi eta egoerari aurre egitea lortu zuen:

"Gerratik etorri eta etxian etzan inor; no teníamos nada, mi madre también se había ido, ta hasteko re diruik ez, baño panaderikuak esan zian, zeatik ez dezute irikitzen? Ta era jueves, había feria ta panaderikuak eman zian el pan, me dieron la carne, otro una barriquita de vino, la cocinera de la casa me dijo, iriki inbiardeu! Abrimos ta dena saldu, hicimos las cuentas, habíamos hecho para pagar, baño no teníamos para el día siguiente (...) cuando vino mi madre ya estaba en marcha todo. Imagínate tendría diecisiete años o así, que xalxa tendría yo entonces!" (Joxepa)

Beste batzuen kasua ezberdina izan zen. Elkarriketatutako emakume bat Caceresetik Hernanira etorri zen bere familiarekin batera. Lehenago ere tabernan bat izan zuten jaioterrian, baina lanik ez, eta hona etortzea erabaki zuten. Senar-emazteak eta 5 seme-alabek osatzen zuten familia, zaharrenak 14 urte zituen eta gazteenak urte bete eskas zuen. Frankismoaren azken urteetan etorri ziren Hernanira, 1971ean. Ordurako beraien herritik jende asko etorria zen hona, jaioterrian lanik ez baitzegoen:

"Uf, nosotros fuimos los últimos que salimos del pueblo. Muchísima, no había trabajo ninguno (en el pueblo). Y nosotros aguantamos pero ya estaba todo..." (Antonia)

Izan ere, 70. hamarkadan Hernanira jende asko etorri zen bertako industria zela eta. Etorritako gehienak Espainiar estatutik egin zuten, Castilla zaharretik, Andaluziatik, Extremaduratik eta Leonetik gehienak. Urte horietan Hernaniko demografiak gorakada nabarmena izan zuen, etorritako gehienak gazteak baitziren, ondoren familiak osatuko zituztenak. Hala, hainbat testiguk alpatzen dute, ia herri osoak etorri zirela "al norte" lan bila, bertako herri asko ia hutsik geratuz. Etorri zirenetatik asko hemen geratu ziren bizitzen betirako. Horren adierazle da 2013. urtean Espainian jaiotako 2.740 pertsona bizi zirela Hernanin, bertako biztanleriaren % 14a hain zuzen ere. Eta esan bezala, gehienak Caceres eta Salamanca ingurutik etorriak.

Urtea: 1940 inguru

Lekua: Epeleko Etxeberri Jatetxea.

Ageri direnen izenak: Concepción
Aranburu, María

Deskribapena: Hiru emakume eta
atzean bi gizon

Interpretazioa: Lehen planoan dauden
hiru emakumeak jatetxeko langileak
izan zitezkeela aurreikus daiteke, hiruak
ere mantala gerrian eta zapi zuri bana
baitute gainean. Atzean aldiz bi gizon
ageri dira, argazkirako umorezko
aurpegiak jarriaz. Azken hauek aldiz
dotore jantziak daudela ematen du,
ospakizun bat izango balute moduan.



4.5.2. Aita gaiztoa tabernan dago, pikaro jokalaria²



*"En aquellos años hacíamos mucho trabajo.
Lan asko in da diru gutxi irabazi" (Joxepa)*

² Seaska kanta herrikoia;

*"Haurtxo txikia negarrez dago
Ama eman iezadazu titia
Aita gaiztoa tabernan dago
pikaro jokolaria"*

Urtea: 1960 inguru.

Lekua: Azurmendi taberna.

Ageri direnen izenak: Adeli Erdozia eta Joxe Azurmendi (barra barruan) eta Joxe Zapirain.

Deskribapena: Azurmendi taberna barruko irudia.

Interpretazioa: Honako hau argazkilari profesional batek aterea da (argazkian bertan agertzen da "Biyok"-en logoa). Ikusten den moduan, argazkilariak tabernako irudi bat erretratatu nahi izan zuen, barra barruko langileak zein kanpoan poteoan zegoen jendearekin. Horretarako kokatuak ageri dira bertako protagonistak. Atzean neskata txiki bat eta beste gizon bat ere ikus daitezke, argazkian kasualitate hutsez ateratzen direlarik, segur aski. Baliteke tabernako jabeek argazkilariari deitu izana, tabernaren oroitzapen bat izateko.

Egilea: "Biyok" Hernaniko argazkilari profesional bat zen, eta Hernanin zuen estudioa. Famatua zen herrian.

Tabernak pertsonen arteko sozializazio gune dira. Garai batean ere hala ziren. Hori bai, generoak zorrotz markatzen zuen bakoitzaren lekua zein zen; gehienbat emakumeen kasuan, zeinak barra barruan egon zitezkeen, baina ez kanpoaldean. Hori gizonen espazioa zen. Oso ohikoa izaten zen, eguerdi aldean eta iluntzean, fabrikatik atera ondoren, lagunekin kale buelta egitea, tragoxka batzuk hartuz. Hots, eremu publikoa gizonak bereganatzen zuten. Bitartean, emakumeak etxean, arlo pribatuan, egoten ziren, eginbeharrik ez baitzitzaien falta (otorduak prestatu, umeez arduratu, etxeko eginbeharrak egin...).

"Poteuan? Gizonak bai, emakumezkuak gizonakin juten bazan igandetan e kanpuan, atian onduan geatuko zan emakumia, gizona sartu eta baxo erdi bat hartuko zun" (Rosi)

"Denak gizonak, entonces ¿qué te crees que las mujeres iban a la taberna como ahora? (...) bazkaltzea eta afaltzea bai baino por lo demas, al txikiteo o así....ui..." (Joxepa)

"Porque se me marchaba (senarragatik), él era de sociedad, ha sido siempre más liberal" (Maixus)

"Bai, gehienian eguerdiya ta illunarrian izate zan txikiteua, baiño jendia erruz ibiltzen zan ordun txikiteuan, asko" (Rosi)

Elkarrizketatutako emakume guztiek lotzen dute taberna gizonekin; taberna baino, poteoa gehiago. Izan ere, otortuak, bazkariak... egiten baziren bertan, emakume gehiago ikusten ziren. Baina poteoan gizonak ziren nagusi. Bertan denbora asko pasatzen zutela behin eta berriaz errepikatzen dute. Bertan lan egiten zuen emakume batek, ondorengo gertaera hauek kontatu dizkigu bitxikeri moduan:

"Behin emakume bat etorri zan ta: honako aulki honek asko balio al du? Ta zeba, balio al dun? Ez baldin bado oso gaizki etxea emangoet, aber hola ne gizonak hemen aulki hontan aiña denboa etxian pasatzen dun!" (Arantxa)

"Ta gizon handi bat e bazan, jokun ibiltze zan ta, Romero apellidua zun ta andria handi bat, ez dakit non bizian, ta behin mi Romero ¿qué haces ahí? Ta hartu despertadora, ¡mira la hora que es! Se ve que ordua jartzen zion... ta beste asko, asko ta asko" (Arantxa)



"Denak gizonak, entonces que te crees ¿que las mujeres iban a la taberna como ahora? (...) bazkaltzea eta afaltzea bai baino por lo demas, al txikiteo o así....ui...!" (Joxepa)

Urtea: 1975 inguru

Lekua: Olazar Jatetxea.

Ageri direnen izenak: Juan Antonio Etxarri, Juan Kruz Beasain, Felipa Huizi, Juani Otxotorena, José Inazio Otxotorena eta Bittor Otxotorena.

Deskribapena: Jatetxe barruko irudi bat

Interpretazioa: Barra barrualdean, jatetxean lan egiten zuten familiako kideak dira: ama eta seme-alabak, atzealdean botila ugari dituztelarik. Kanpoaldean familia bereko aita eta beste aldean auzoko bezeroak tragoak hartzen. Guztiak argazkilariari begira ez egon arren, nabaria da, horretarako espresuki kokatuak daudela. Bezeroen kasuan, euren poztasuna azaldu nahian agertzen dira irribarre zabal batekin, eta badirudi argazkia atera baino segundo batzuk lehenago zerbait esan duela eserita dagoen bezeroak, besteak berari begira azaltzen baitira; aita semeen begiradan atzeman daitekeen moduan.


Urtea: 1957

Lekua: e/d

Ageri direnen izenak: Manuel Mugika eta Dioni Mugika, Axala aita semeak, eta Margarita del Puerto.

Deskribapena: Hiru pertsona taberna batean agertzen dira, horietako bat emakumea da.

Interpretazioa: Ez da ohiko argazkia honako hau. Argazkiaren erdialdean daude hiru pertsonak, mahaiaren bueltan. Aurrez aurre emakume bat, tabernako bakarra izan zitekeena, inguruan gizonezkoak besterik ez baitira ikusten. Kafea hartzen ari da, eta beste bi gizonekin batera dago, ez bakarrik edota ardoa edaten. Ezkerretara geratzen diren gizonak ere protagonistei begira daude, argazkiagatik ote? Edo emakumeagatik?



*"Las mujeres a tomar el café
ya iban, pero con los maridos"
(Dominique)*

Azken batean poteoa edo txikiteoa horixe da, lagun artean elkartu eta tabernaz taberna ibiltzea, garai bateko sozializatzeko modu bat, oraindik ere irauten duena. Testigantzek kontatzen duten bezala, poteorako ohitura handia zegoen; eta koadrila asko etortzen ziren herriko tabernetara txikiteoan ibiltzera eta otorduak egitera. Ostegunetan azoka izaten zen, eta inguruko herrietako jende ugari hurbiltzen zen bertara, eta giro oso polita sortzen omen zen:

"Igual etortze zan kuadrilla bat, jarriko al dezu kazuela bat?... Ta gosia zan denbora hartan, katuak bueno, nahi al dek konejua... katua jarri izandu deu behin baiño gehiyo" (Rosi)

"Ondo, menudo katxondeo. Bai, beti esatet nik taberna enuke sekula jarriko baiño ze ondo pasatzen nun! Lanian pentsa, igandian etortze zian kuadrillak Donostitik eta kuadrillak gaiñea ondo kantatzen zutenak ta etortze zian ta yo ¡más feliz que veinte! ¡Que poco necesitábamos para ser felices!" (Rosi)

"Baño lanbata ta osteguna lan asko zeon (...) dale que te pego (...) Goizeko ordu batian askotan... ez beti" (Maixus)

Garaiko tabernak ez ziren egungoak bezalakoak. Oro har, lauzpabost produktu jakin zituzten, eta horrekin moldatzen ziren. Ontziratu gabe, soltean izaten zituzten edariak, a granel deritzana. Botiletan ere saltzen omen zuten edaria, gehienbat herriko eta inguruko elkarte gastronomikoek erosten zuten horrela:

"Klaro ordun ez gendun oain bezelako taberna, ardua txuriya ta beltza, mosto, besteik... Gero ba errefreskuak o eote zian baiño, bestela etzeon... anixa koñaka ta ron, ta bestela ba normal. Gero kafetera jarri zan ta kafetera horrekin... Baiño beti izandu deu a granel, beti izate zan. Enboteillatuak ebai, hantxe eote zian apaletan ta nahizunak markatua ba markatua" (Rosi)

"Bihi hontan, Atxurren, beste aldeaiñoko almazena gendun arduana, zinsterna, hilian botatze genittun hogeita bost mila litro. Baiño enboteilatua emate zan nola soziedade Loiolatarra, ta hemengo soziedade guztita. Bai lagun askok laguntze zigun" (Rosi)

Urtea: 1969

Lekua: Bar Cinco-Enea.

Ageri direnen izenak: Juli Alberdi eta Mertxe Peña lanean. Beste guztiak bezeroak dira, afari legea egin eta gero.

Deskribapena: Gizon koadrila baten afaria.

Interpretazioa: Guztiz prestatutako argazkia da honakoa. Gizon koadrila bat tabernan afaltzen eta txanpainarekin zerbait ospatzen ari direla dirudi. Botila asko daude mahai gainean. Ia gizon guztiek purua dute ahoan, eta hor eskubitan zutik daude tabernako bi emakume langileak, beren zerbitzari jantziekin. Deigarria da bestalde, lurrean erratz batekin ageri den gizona, baliteke argazkirako langileei kendu izana xelebrearen papera egiteko.



*"Asko, vendíamos muchísimo vino,
hemos trabajado muchísimo"
(Joxepa)*

Publikoari eta sozializazioari hain lotutako eremuak izanik, bertako lan baldintzak gogorrak izaten ziren. Ordu askoko jarduna zen, ordutegi zehatzik gabe askotan, eta egun bat bera ere itxi gabe. Aurrez aurreko lanaz gain, barrukoa ere bazegoen, almazenean botilak garbitzen eta betetzen. Emakumeak gainera, barrako lanaz gain, sukaldekoa ere egiten zuten, denean aritzen ziren oro har:

“Danian! Eta boteillak garbitzen! Danian ta enbotillatzen taberna onduan!” (Arantxa)

“Porroiak betetze genittun, porroi ttikikin, botila ardo ttikikin, ta geo enkargatzen ziguten asko, jarriko al diazu ta...” (Arantxa)

“Bai, ezta iganditan e etzan ixten e, ta asteguneko jaiyik etzeon, ordun ez (...) Gabian desde luego leno, oain ordu-batak bazian, leno ez, ya itxi in behar zan. Baiña bestela goizian seitan ya iriki nahi bazenun iriki, etzeon problemik” (Rosi)

“Hasi ginan ixten, igande atsaldetan. Gañeakuan beti San Jose egunian ta San inazio egunian itxi. 6.30tan ez bazenun irikitzen aldaba jotze zuten. Eske kale hontan daude... Hoixe goizian 6.30tan irikitze gendun ta aldaba jotze ziguen irikitzeko! Hala iriki behar izate zan! Bai ta astian e goiz baiño igandetan oso goiz” (Arantxa)

“Diferentia zan igandia, ostirala desde luego zan duro, lan asko, lanbata re bai, porque zan egurra. Tenías que fregar, den ez, dena iten genun pa Semana Santa y pa Navidad. Baño lanbata ta osteguna lan asko zeon (...) dale que te pego (...) Goizeko ordu batian, askotan ez beti (...) ordun bukatu lana ta geo plantxa, holako piloak plantxan. Izan zan hola ittotzeko, fuertia izango nintzan” (Maixus)

Urtea: 1949

Lekua: Epeleko Etxeberri jatetxea.

Ageri direnen izenak: e/d

Deskribapena: Bi emakume zerbitzari

Interpretazioa: Ezkontza bateko ospakizuneko argazkia dela jakinik, bi emakume hauek bazkaria zerbitzatzen aritu ziren zerbitzarietako bi dira. Garbi adierazten dute jantzita daramatzaten jantzi eleganteek, eta horietako batek gerritik zintzilik daraman trapuak. Baliteke, ezkontzako erreportajea egin zuen argazkilariak erretratatu izana bi langileak.

Egilea: Kutxa Fototeka, *Celebración boda Pilarte-Iturrarte* albuma.





"A los bares no entrabamos solas, con los chicos, estaba mal visto. Pero de allá también ya salía alguna que otra con bombo j,e je, je" (Teresa)

Urtea: 1949

Lekua: Epeleko Etxeberri jatetxea.

Ageri direnen izenak: e/d

Deskribapena: Gizon taldea mahai baten bueltan, emakumea zerbitzatzen

Interpretazioa: Ezkontza, ospakizun bereko argazkia da hau ere. Oraingo honetan aldiz, jatetxearen kanpoaldean dagoela dirudi gizon koadrilak. Zutik emakume bat ageri da, zerbitzari lanak egiten, agertzen duen posturagatik eta baita soinean daraman jantziagatik ere.

Egilea: Kutxa Fototeka, *Celebración boda Pilarte-Iturrarte* albuma.

Urtea: 1974

Lekua: Bar El Tunel.

Ageri direnen izenak: Barra barruan, atzetik hasita: Juana María del Carmen Cortés Gómez, Ramoni Rodríguez Cortés (alaba), José Rodríguez (senarra), Teófilo (ezkon anaia) eta Higinio Rodríguez Cortés (semea).

Deskribapena: Taberna barruko irudia.

Interpretazioa: Argazkia oso esanguratsua da. Argi dago, argazkilariak taberna eta bertako giroa erretratatu nahi zituela. Horretarako, pertsona guztiak "itxurak egiten" ageri dira, barra barrukoak ardoa zerbitzatzen, eta kanpoaldekoak edaten. Hau da, ez da bapateko argazki bat, prestatua dagoen irudi bat baizik. Barra atzealdean, bigarren plano batean ageri da Carmen Cortes, antzerkirik egiten ez duen bakarrenetakoa izanik. Kuriosoa da, bera baitzen tabernako martxa eramaten zuena, bai sukaldean, bai barran... baina argazkian aldiz erdi ezkutatua geratzen da. Honek adierazten du argazkilariaren nahia ez zela tabernaren eguneroko jarduna islatzea, une berezi eta tipiko bat erretratatzeko baizik, horretarako denak bakoitzari zegokion papera antzetzuz.

Horrez gain, barraren beste aldean emakume bat eta umetxo bat ere ageri dira. Kontuan hartu behar da argazki hau Frankismoaren azken urteetan ateratakoa dela, eta beraz, emakumeak tabernetan ikustea ez zela hain arraroa, nahiz eta ez izan gizonen kopuru berdinean.

ILUNPETIK ARGITARA. Emakume langileak iruditan. Hernani 1939-1975



"A las mujeres les gustaban mucho las orejas; y las tortillas, les gustaba mucho, yo hacía todas las tardes tres o cuatro tortillas" (Antonia)



Urtea: 1955

Lekua: Bar Cinco-Enea.

Ageri direnen izenak: Ma Dolores Peña Iradi eta Joxepa Arrozpide.

Deskribapena: San Juan jaietako koadrilen eguneko ospakizuna.

Interpretazioa: Gizonez osatutako "Beti jaten koadrilak" Cinco-Enea tabernan bazkaldu eta ondorengo argazkia da hau. Ondo begiratuz gero, ezker aldean bi emakume zerbitzariak ageri dira, ia-ia ikusten ez direlarik, beren lanerako amantalak jantzita.

4.5.3. Amantalaren atzean gordetzen dena

Urtea: 1951

Lekua: Egaña taberna.

Ageri direnen izenak: Juana Aranburu Oyarzabal eta Anttoni Egaña Aranburu (ama alabak).

Deskribapena: Ama alabak tabernako sukaldean.

Interpretazioa: Argazkia espresuki ateratakoa bada ere, Anttoni lanean ari dela ematen du, ez dela antzerkia egiten ari; hain zuzen ere arkumea prestatzen ari da. Ondoan ama du, nahiko heldua egon arren, sukaldean ibiltzen zen laguntzen ahal zuen neurrian.

Horrez gain, irudian argi ikusten ez bada ere, Anttoni haurdun dago. Berak kontatu bezala, bata eta amantal zabalak janzten zituen, sabela ez nabaritzeko.



"Haurdun ta gelditzen nintzanen, poner unos vestiditos flojitos para que no te notaran, porque siempre estaba en estado, con esos delantalitos y así..." (Joxepa)

Aurreko testigantzan azaltzen duen moduan, oso ohikoa zen emakumeak askotan haurdun egotea. Erregimen Frankistak bultzatu moduan, emakumearen egitekoa bizitzan, ezkondu eta seme-alabak ekartzea zen. Emakume askok hau erregimenarekin lotzen ez bazuten ere, honen ideologia guztiz barneratua zuten, hori zen egin beharreko normalena, ezkondu eta haurrak izan. Gainera, sexua tabua zenez, eta antisorgailurik ez zegoenez, emakume batzuk behin eta berriz geratzen ziren haurdun, haur batetik bestera denbora asko igaro gabe. Hori horrela, batek baino gehiagok kontatu du, soineko zabalak jartzen zituztela lanean aritzen ziren bitartean, haurdun zeudela ez nabaritzeko. Izan ere, haurra jaio arte aritzen ziren lanean. Eta hortik egun gutxitara berriz ere buelta lanera batzuk; beste batzuk etxetik kanpoko lana utzi egiten zuten, etxea eta hurrez arduratzera pasatzeko; eta ahal zutenek, emakume bat hartzen zuten hurrez arduratzeko:

"Bai, jencima de cesarea! Ta bueno segitun lanea. Nik ne umia, o ne semia enun hazi. Nola eongo zan amagiñarreba mostradoreian da lanian ta ni pasiatzen! Pues lo imprescindible ta gero ya bea geatzezan (...) nik ez det ne haurrik hazi, oso ttikiya zala bularra eman behar zeniolako ta, ta geo paseatzea amonakin, juxtu hoi in ta paseatzen amonakin. Nola eukiko zenun ba amona lanian? Gañea fuerte lan in bihar zan, ezin zan!" (Arantxa)

"Laguntzen bai izandu naiz, baiño (...) Bai, ordun normala zan (etxetik kanpoko lana uztea). Gaiñea nik lau urtian hiru ume izan nittun!" (Rosi)

"Yo tenía una señora para los niños" (Joxepa)

Hain barneratua zegoen familia izatearen beharra, ez zela zalantzan jartzen umeak izan edo ez izatearen nahia. Geroz eta gehiago izan hobe, eta ez bazenituen, inguruko "txutxumutxua" bilakatzen zinen. Garai hartan ere, abortu ugari izaten ziren.

"Hortik hiru urtea izan nun hau (semea). Baina bi urtian bi aborto izan nitun, bi aborto ta..., bat sei hilabetekua. Bai, ta bueno, bat gutxi da, iñork eluke bat eduki bihar baño bueno, bate ez dezunian (...) oain ezto problemaik, baño ordun problemak zian! Bai ba, oain bide asko daude, ordun nada" bai gaizki pasa nun..." (Arantxa)

Zer esanik ez, ama ezkongabeen kasuan, oso gaizki ikusiak zeuden. Amatasun ereduaren aurka zihoan eta beraz, denen ahotan izaten ziren horrelako kasuak, baina egon bazeuden.

"Bai izate zian, baño oso gaizki ikusia zeon" (Arantxa)

"Las que eran solteras mal vistas, sí sí. Eso tenlo seguro" (Maixus)

Urtea: 1951

Lekua: Cinco-Enea Taberna.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik hasita;
Juli Alberdi, M^a Dolores Peña Iradi,
Mercedes Iradi (izeba).

Deskribapena: Hiru emakume ageri dira
zerbitzari jantziekin.

Interpretazioa: Hiru emakume langileak
lan egiten zuten taberna aurrean eskutik
helduta, beren lanerako jantziekin.
Erdian dagoenak helduagoa dirudien
arren, 16 urte besterik ez ditu, eta
ezkerrean dagoena haurdun dago.
Beraien atzean tabernaren atea eta
leihoak ikus daitezke, koadrodun
gortinekin.



Garaiko ideologia edo pentsamoldeak, behin eta berriz, azpimarratzen zuen ama onaren eredua, eta bere funtzioak. Honek kontraesan eta egonezin asko sortzen zituen emakumeen artean; familia aurrera ateratzeko etxetik kanpo ere lan egin behar baitzuten, baina aldi berean, lanera joateko haurrak beste norbaitekin uztea ez zen egokia:

"Bai klaro, umiak ya koxkortuta zudela. Cuando yo me iba pallá (...) a mi aquello de dejar la familia y marcharme... Batzutan autobusian marruakin. Bai, oso gaizki pasatzen nun. Hara lanbatetan familia utzi ta jun biharra (...) ta geo, klaro autobusa hartu ta etxea etorri, igual senarra estaba en la sociedad... Oain que hagan mis hijos lo mismo que aquello me dolería" (Maixus)

Amatasunaren eredu hau oso barneratua zegoen, ez aldiz aitatasunarena. Haurren zaintza amaren egitekoa zen eta gizonak bitartean, sozializatzeko eremuetan ibiltzen ziren: tabernak, elkarte gastronomikoak....

"Mi marido también hijo tras hijo, adiós cariño, él era de Sociedad" (Maixus)

Amatasunaren gaia hain idealizatua eta arautua egonik, edozein gertaera bekatu bihurtzen zen eta berehala epaitzen ziren emakumeak. Ondorengo kasuan agertzen den moduan:

"Te casas y...pero luego ¿qué pasa? Te casas virgen y (...) a la primera pum! Oye que aquí no aparece nada, ¡no puede ser! Después de tres días de viaje de novios, oye que me quedo embarazada (...) ni, como siempre bruta, corriendo ta eskailirak, klaro etzeon aszensoreik, iba a la pescadería y me caigo de las escaleras, digamos de esta casa y nace sin cumplir los nueve meses. Dos me echaron en cara, mi madre también, ez da allatu! Ama y yo ¡qué voy a hacer! Quedarte en estado y nacer antes de los nueve meses (...) el comentario de la gente, marmarreo, (...) la verdad que lo pasas mal (...) Y mi madre también disgustada porque había nacido antes, entonces era muy sagrado eso (...) realidad y disgusto" (Maixus)

Frankismoak bultzatutako pentsamoldean sexualitateak toki berezia eduki zuen. Garai hartaz, sexua erreproduktzioarako zen, eta hau ez kontzaren barruan zen soilik posible. Horren arabera, ezkontzak porrot ez egiteko modu bakarra, ezkontzara harreman sexualak mantendu gabe iristea zela azpimarratzen zen behin eta berriz. Testigantzan argi azaltzen da hori, nolabait traizioa egitea atxikitzen zioten ama izan berri zen andreari, arauak ez betetzea leporatuta.

Urtea: 1951

Lekua: Egaña Taberna.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik eskubitara Juani Aranburu, Anttoniren haurren zaintzailea, Anttoni Egaña Aranburu, Balbina eta Juana Aranburu Oyarzabal.

Deskribapena: Bost emakumeak tabernako sukaldean.

Interpretazioa: Sukaldean 5 emakume ageri diren arren, argi ikus daiteke, eskubian dauden bi emakumeak laneko jantziekin daudela, sukaldeko jardunean geldialdi bat egin balute bezala argazkian ateratzeko. Behean ama, etxeko nagusia eserita dago. Eskuinaldean aldiz, Anttoniren seme-alabak zaintzen zituen neska gaztetxoa ageri da, txukun-txukun jantzita. Bera arduratzen zen Anttoniren haurrez, honek lanean jarrai zezan. Ezkerrean dagoena ere txukun jantzita ageri da, suposa daiteke zerbitzari lanak egingo zituela.



*"Mi madre era la trabajadora,
era muy trabajadora" (Joxepa)*



Urtea: 1961

Lekua: Egaña Taberna.

Ageri direnen izenak: Ezkerretik hasita; Pilar Arbiza, Juana Aranburu, María Arbiza (Pilar-en ahizpa) , Anttoni Egaña Aranburu eta Mari José Mendiola Egaña (haurra).

Deskribapena: Lau emakumeak tabernan kafea hartzen.

Interpretazioa: Esan daiteke, lan egin ondorengo otordua dela honako argazki hau. Bezerorik gabeko momentu hori aprobetxatuz, baliteke, Anttoniren seme-alabak zaintzen zituen emakumeak bisita bat egin izana ama haurrarekin egon zedin une batez, edota haurra amari eramatera gerturatu izana tabernara. Jantziei begiratzuz, garbi ikusten da zeintzuk ibili ziren lanean eta nor zen umearen zaintza lanak egiten zituena.

Urtea: 1964

Lekua: Fagollaga jatetxea.

Ageri direnen izenak: M^a Jesús, Joakini eta Marixa Bengoetxea Azpeitia ahizpak, Joxepa eta Maddi Azpeitia ahizpak, Juanita Bengoetxea, Guadalupe eta Nati Iribarri, Jexuxa Zugasti, Ixabel Apalategi.

Deskribapena: Emakume taldea sukaldean.

Interpretazioa: Sukalde bat dirudien eremuan hainbat emakume ageri dira argazkirako pausatuta. Erdian ezkontzeke edota ezkondu berri den emakume bat ageri da zuriz jantzita. Beste hainbat emakume ere jantzi dotoreekin ageri dira, ezkontzako gonbidatuak seguruenik. Azkenik hiru emakume inguru zerbitzari jantziekin ageri dira, jantzi zuri beltzekin. Pentsatzekoa da gonbidatuak zein zerbitzariak izan arren, harremana bazutela euren artean, argazkirako pausatzen badaude ere, ez baita ezkontza argazkietako ohiko irudia, egoera naturalago batean daudela esan daiteke eta.



4.5.4. Aldaba jo eta batetik bestera



Urtea: 1961 inguru.

Lekua: Etxeko balkoian.

Ageri direnen izenak: Adeli Erdozia Iribarren eta bere semea Juan Ignacio Azurmendi Erdozia.

Deskribapena: Ama semeak balkoian.

Interpretazioa: Ama poztasunez ageri da, haurra besotan duela, harro egongo balitz bezala. Espresuki ateratako argazkia da, biak ere begira daude. Badirudi, eguneroko irudi bat dela, etxeko zereginak egiten zituen bitartean, haurra kontu egiteko momentuak aurkituz; honako hau bezalaxe.

Lan honetan zehar azaltzen joan den moduan, lana kontzeptua modu zabalean ulertu izan da. Halere, historikoki zatiketa nabarmena egin izan da, enplegua eta enplegu ezaaren artean (ordaindua eta ez ordaindua). Ikertua izan den garaian zatiketa hau oso nabarmena zen, enplegatua gizonarekin lotzen zelarik, eta emakumea enplegurik gabekoarekin. Edonola ere, ikusi da emakumeak enpleguan aritu izan direla, baina horretaz gain, etxeari lotutako lanak ez zituztela alde batera utzi. Lan hauek, hain beharrezkoak, emakumeek egiten zituzten, baina ez zuten ez errekonozimendu, ez inolako ordainsaririk. Beraz, emakume guzti hauek lan bikoitza egin behar izaten zuten, etxetik kanpoko eta barrukoa:

"Aurreneko lana oyak iriki ta behera jeitsi. Jeitsi ta amai lagundu, ya martxan jartzen zenunian iyo gora ta joe, hasi etxeko lanak iten ta aldaba. Etortze ziñan haste ziñan gauzak iten, danak utzi ta gero gabian etortze ziñanian in ta oyea" (Rosi)

"Behin baño gehiagotan etxea etorri (tabernatik) ta hasi ohiak iten, ez oaingo ohiak lehengo ohiak zea lanazko koltxoi haik ta jira batea, egunero buelta eman behar izate zitzaion bestela etzun itxurik hartzen (...) hasi ohia iten ta aldaba, pim pam pum! hiru aldaba. Ta jetsi honi gosaya prepatzea (...) ta ni korrika behera. Ta geo etortzian eskobak bere tokia eaman, ohia in, behin baño gehitan bai" (Rosi)

"Y luego por la tarde, cuando terminaba de comer y arreglar un poquito la cocina y eso, me iba a casa, que vivíamos ahí cerca, me iba a casa y hacer cosas de casa, tenía que poner la lavadora, hacer las camas, tenía que limpiar... cuando daban las siete de la tarde, me bajaba otra vez (al bar), tenía que hacer las tortillas. Y cuando sacaba las tortillas, a la barra" (Antonia)

"Para la casa tenía una interina, ya verás cuanta gente trabajaba en mi casa. Claro, en aquellos años hacíamos mucho trabajo" (Joxepa)

"Ordun etzian ni interinas, bueno bazian baño guk ez genun beñe izan. Beti juxtu juxtu, hortxe bizimodua ateatzen" (Rosi)

"¡A mano! Cuando me casé, en el cincuenta y seis una media ducha, media bañera ta han, sacabas el esto...¿Tu sabes para mí lo que aquello supuso? Umian erropak ta... klaro han jaboiaekin jartzen zendun y luego arrascabas así, o limpiabas con esas tablas que había ta gero a aclarar allá" (Maixus)

"Ni orduako lurra garbitzen izaten nintzan, zeatik etxeko lanak, etxekuak ez dituzu beñe uzten, ezin dezu utzi pentsatzen zu, nei e, jornal bat kentzezu. Ez bazaude oso brillante ezin da utzi. Ta ordun itte zan gutxio irabazi ta lan asko ta gehio, zeatikan etzan marjenik geatzen" (Arantxa)

Batzuek, ahalmen ekonomiko handia zutenek etxean laguntzeko interina edota neskame bat hartu ohi zuten, beti ere neska; horrelako jarduerak femeninoak kontsideratzen baitziren guztiz. Etxea zen emakumearen tokia eta hau horrela, andrazkoak ziren askotan etxeko gora beherez arduratzen zirenak, bai eguneroko kontuez baita diruaren erabileraz ere:

"Nik, biharko. Zenbat aldiz esate niyon: Ai Joxe, Joxe, zuk eman bazenu etxeko gora beherak ezta gartzandak hola iñe ez gendun izango! Segitun kartera atea ta aiba ze hartukozu, ze eango zu?(...) ne gizonak ez du jakin beñe... honbre zorra etorri balitzaio enteatu beharko zun baiño sekulan e... beak entregatuko zun hartzen zun bezela, eta punto. Be orduakin ta bea manejatzen zan, eta jornala dana entregatzen zun" (Rosi)

"Gue etxian emakumiak eman bihar du etxeko martxa, bestela alperrik da gizonak lana ittia ez bakizu ondo administratzen" (Arantxa)

"Nik bai bai (...) yo le daba el diez por cien (...) siempre de lo que ganaba el diez por cien a él, eso siempre y siempre hemos respetado" (Maixus)

Urtea: 1970 inguru.

Lekua: Egaña taberna.

Ageri direnen izenak: Anttoni Egaña Aranburu eta Joxe Mendiola (senarra) hauen bilobekin.

Deskribapena: Taberna kanpoaldean familia.

Interpretazioa: Familia zoriontsuaren irudia erretratatu nahi izan zutela dirudi. Gizon eta emakumea eta azken honek besoetan haur txiki bat duela eta bestetik mutil koxkorra ageri da batasun itxura emanez. Anttonik poztasun aurpegia dauka, bere bilobez harro balego bezala.



5. ONDORIOAK: LAN EREMUA EDOZEIN IZANDA ERE, EMAKUMEEN EGOERA BERDINTSU

Aztertutako alor guztietan, lotura zuzena dago emakumea eta etxeko lanen artean. Etxe barruan nahiz etxetik kanpo lan egin, etxeko lanak emakumeei atxikitzen zitzaizkien. Berau sozializazio prozesuarekin bat zetorren, txiki txikitatik etxeko alabak horretara heziak izaten baitziren. Etxearekin eta familiarekin lotutako lan hauek “ez lan” gisa kontsideratuak izan dira, prestigio eta ordainsaririk gabekoak izanik. Lan alorren artean ez dago ezberdintasunik: etxeko kontuak, haurrak, helduak zaintzea... emakumeen eginbeharrak ziren.

Frankismoak bultzaturiko ideologia faxista, barru barruraino sartu zen eta bizi guztia etxeko lanetan aritu diren emakumeek ere, lanik egin ez dutela azaltzen dute, oraindik orain. Halere, lan hauek oinarrizkoak ziren bizitzaren sostengurako. Hau da, biziraupenerako sozialki beharrezkoak ziren lan mota hauek, nahiz merkatuan ez izan baliorik. Horrela, gizonezkoek izan duten garapen laborala eta soziala, neurri handi batean lan hauek emakumeen bizkar gelditu direlako izan da. Etxeko lan horiek anitzak ziren; astunak, lotuak eta gogorrak. Ordu-tegirik gabekoak, amaiezinak, atsedetik gabeak eta erretirorik gabeak. Hasi haur, heldu eta ezinduen zaintzatik, etxearen ohiko martxa eramatera, eta familiaren oinarrizko beharrak asetzera.

Frankismoak etxeko lanen feminizazioa hauspotu zuen, etxea emakumeen tenplu bilakatuz. Emakumeak “etxeko aingeru” izan zitezten bultzatzen zuen bere ideologiak, horretarako hainbat mekanismo hertsatzaile erabiliz: legeak, propaganda, eliza eta erlijioa, errepresioa etab. Bere nahia hori bazen ere, familietan zegoen premia egoera larriei erantzunez (kontuan hartuz gerraoste garaia zela), emakumeek etxetik kanpo ere hainbat lan egin behar izan zituzten. Hauek baldintza kaskarreko lanak izaten ziren askotan, gainera. Hortaz, Frankismoak bultzatutako ideologia eta errealitatean gertatzen zenaren artean kontraesana nabarmena zen, errealitatearekin tupust egiten zuelarik. Beraz, emakumeek lan bikoitza egin behar izaten zuten: etxe barrukoa eta kanpokoa; honek suposatzen zuen guztiarekin. Batzuek gurasoei laguntzen zieten hauek zituzten negozioetan, komertzio edota ostalaritza bezalakoetan. Beste batzuek lantegietara jo zuten, hauetan lankidetasuna behar baitzen.

Etxetik kanpo lan egiteak aldiz, emakumeei ez zien askatasun ekonomikorik eman. Familia egitura tradizionalan barneratua zegoen guztiz familiaren mantenua bertako buruaren esku zegoela, hots, gizonen esku. Oro har, emazteek etxera ekarritako dirua familiako beharri-zanetara bideratzen zen: elikagaiak erosteko, haurren arropetarako.... Aldiz, gehienetan gizonezkoek emakumeei diru kantitate jakin bat ematen zieten beharrian horietarako, eta soldataren beste zatia berentzat gordetzen zuten; beren aisialdirako.

Emakumeen zeregina ezkondu, familia izan eta etxeko andre izatera iristea zen. Behin ezkonduz gero, ez zegoen atzera bueltarik. Igarobide erritual horrekin, pertsona autonomo izatetik, besteen zerbitzura egotera pasatzen zen. Hori zen ereduak. Emakumearekin gertatzen zenaren kontrara, gizonezkoen mundua prestigioarekin eta esparru publikoarekin lotua zegoen. Familietan semeak izatea alabak izatea baino baloratuagoa zegoen; semeentzat ziren oro har aukera guztiak, pribilegio moduan.

Ikerlanean zehar jasotako testigantzetan ikusten den moduan, generoak berebiziko garrantzia zuen familia barruan ere; gizonezkoek pribilegioak zituzten gizonezko izateagatik soilik, emakumeek pairatuz egoera txarrenak. Generoen araberrako ezberdintasun hauek familia guztietan eman ohi ziren, klase sozial zein eremu ezberdinetan; nahiz eta eremu bakoitzean ezaugarri zehatzak egon.

Etxea eta baserriko lan esparruen berezitasunetako bat, lantokia eta bizitokia eremu berean kokatzen zirela zen. Honek, bi ondorio nagusi zituen. Batetik, lan esparrua eta bizitokiaren arteko muga lausoa; ez zegoen argi noiz bukatu eta hasten zen bata eta bestea. Azken batean, emakumeak denbora osoz baitzeuden lan egiteko prestutasunez. Bestetik, eremu pribatuan jardutean, besteekiko harreman sozialak mugatzea eragin zezakeen, nahiz eta auzoa eta bizilagunen arteko harremanak estuak izan.

Aldiz industria, ostalaritza eta merkataritza alorretan aurrez aurreko hartu-eman zuzenak izan ohi zituzten beste herritarrekin bertan jarduten zuten emakumeek. Industrian, langile mugimenduaren zabalpenarekin eta klase kontzientzia handitzearekin batera, emakumeek ere bertan aktiboki parte hartu zuten, klandestinoki batuz eta langileen arteko harremanak areagotu ziren. Ezagunak dira Hernaniko emakumeek egindako greba eta mobilizazioak.

Baserrietako emakumeek aldiz gainontzeko herritarrekin harremantzeko aukera gutxiago izan ohi zuten. Euren produktuak merkatuan saltzerakoan izaten zuten horretarako aukera, baserrietatik herri eta hirietara jaisten zirenean. Baserrietatik ere ohitura zegoen ostegunetan herriko “perira” jaisteko; baina gainontzean nahiko lan izaten zuten baserrietan eta garaiko garraiobide eskasiak kontuan izanik, askok sekulako kilometroak egin behar izaten zituzten oinez helmugara iristeko.

Etxean lan egiten zuten emakumeek herriko komertzioetan egin ohi zuten topo: fruta dendetan, arraindegian, harategian... Bereziki aipatu beharra dago, bizilagunen artean zegoen harreman estua; familia izango balira moduan bizi baitzuten elkarren arteko harremana. Elkar laguntzan oinarritzen zen harreman hau, eta haurrak esaterako, anai-arreba moduan hezten ziren elkarrekin. Familia bateko etxeakoandrea eri zen kasuetan adibidez, ondoko etxeakoandrea laguntza handia izaten zen familiarentzat; funtzio sozial garrantzitsua betetzen zuelarik harreman honek.

Merkataritza eta ostalaritza, biak ere jendaurreko jarduerak ziren, baina ezberdintasun handi bat zuten, genero rolena. Merkataritzan, merkataria eta bezeroak batik bat emakumeak baziren (batik bat elikagai denda eta mertzerietan), ostalaritzan bezeroa gizonezkoa zen erabat (emakumezkoa izatekotan gizonezkoaren laguntzaile gisa). Era berean, merkataritza eguneroko beharrianak asetzeko jarduera bat zen, non bezeroa lanean zegoen, etxeko lanen baitan edo beste. Ostalaritza berriz, gizonezkoen aisialdiaren eremuaren baitan kokatzen zen, gizonezkoen sozializazio gune nagusia izanik.

Lan esparru guztietako bizipenetan argi azaldu denez, emakumeek ez zuten aisialdirako eskubiderik, gizonezkoen pribilegioa zen. Emakumeak aisialdira gerturatu zitezkeen jarduerak, beti lanarekin lotuak zeuden, seme alaben zaintza eta arropak labaderoan garbitzearekin, esaterako. Jostungintzari dagokionez, emakume askok taldean josteko ohitura zuten, bakarren baten etxean elkartu eta josten zuten bi-

tartean kontu kontari ibiltzen ziren; hori zen aisialdira gehien gerturatu zitekeen unea. Jostungintza emakumeek jakin beharreko egitekoa zen, "Sección Femenina"ko formakuntza saioetan irakasteaz gain, herrian hainbat tailer eta akademia zeuden jostugintzaren inguruan. Arreorako eta etxeko martxa eramateko beharrezkoa zen emakumeek josten jakitea, sukaldean jakitea bezalakoxea zen.

Sexuen araberako lan banaketa aztertutako lan esparru guztietan ematen zen; nahiz eta batzuetan besteetan baino agerikoagoa izan. Banaketa hau zen, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen oinarrian zegoena; emakumeak menpeko egiten zituen.

Industriari dagokionez, baziren emakume langilez soilik osaturiko lantegiak, oihalgintza alorrekoak gehienbat. Era berean, baziren gizonezkoek soilik osaturiko lantegiak eta baita lantegi mistoak ere. Azken hauetan, hala ere, lanaren ezaugarrien arabera, sexuen arteko banaketa ematen zen. Gainera, emakumeak eta gizonezkoak elkarrekin lanik ez egitea bultzatzen zen. Bestalde, emakumeek lanpostu kualifikatuetan jarduteko aukerarik ez zuten, goi formaziorako sarrera debekatua izan baitzuten ia Frankismo bukaera arte (eta orduan ere, sarrera mugatua izan zen). Beraz, emakumeek praktikan, goi postuetako lanak debekatuak zituzten. Lan banaketa hau mantentzeko erabiltzen zen argudioetako batek biologian zuen oinarria; zeinak indar berezia jartzen baitzuen emakume eta gizonen ezberdintasun fisiko, zein psikologikoan; horren arabera eginkizun batzuk atxikitzen zitzaizkielarik batzuei zein besteei.

Honek langileen artean hierarkia bat ezartzea ekarri zuen, normalean emakumeen kalterako. Honela, gizonezkoek indarra eta adimena eskatzen zuten jardueretan lan egin ohi zuten eta emakumeek berriz eskuekin trebezia eskatzen zuten lanak egiten zituzten. Edonola ere, hainbatetan, errealitateak ikuspegi biologista hori hankaz gora jartzen zuen.

Banaketa hau ematen zen beste alor bat baserriarena zen. Hemen emakumeen esku zegoen barazkien, esnearen eta animalia txikien merkaturatzea. Lan hau eguneroko lana zen, goiz goizetik egin beharrekoa. Gizonen esku zegoen aldiz, animalia handien merkaturatzea, urtean bospasei aldiz egiten zena.

Ostalaritzan bestelako banaketa ematen zen; tabernako barra atzean emakume zein gizonek egiten zuten lan; baina sukaldeko lanak emakumeek soilik egiten zituzten, baita garbiketa lanak ere. Arestian aipatu moduan, tabernak gizonezkoen sozializazio gune nagusia ziren, eta herrian taberna ugari zeuden. Gizon askok lanetik ateratzean, *bueltaxka* emateko ohitura zuten, etxeratu baino lehen. Taberna hauetan, ardoaz gain, askotan *kaxuelitak* ere prestatzen zituzten eta hau, emakumeen eginkizuna zen.

Ostalaritza eremua sozializazio gune izatean, beste esparruetatik bereizi beharra dago. Ez da kasualitatea bilatu diren argazki gehienak eremu honetan kokatzea. Izan ere, ikergai izan den garaian argazki makina edukitzea ez zen batere ohikoa, eta okasio berezietan ateratzen ziren gehienbat horrelako argazkiak: bazkari bereziren bat, ospakizunak.... Hau da, aisialdiarekin lotua gehiago. Aldiz, nor joango zen

goizeko seietan lantegira argazki makina batekin? Nork eduki ditzake lantegiko argazkiak? Hernaniko emakume askok egin dute hainbat fabriketan lan, testigantza asko daude; baina argazkiak aldiz, ia batere ez.

Bestalde, bazeuden erregimen Frankistak emakumeentzat ontzat ematen zituen “lan femeninoak”; hots, tradizionalak emakumeekin lotu-tako lanak: irakaskuntza, erizaintza (hauetako askok mojak), jostunak, neskame lanak.... Azken hau oso ugaria izan da euskal testuingu-ruan, baita estatu espainolean ere. Gerra ondorengo egoerak eraginda, emakume asko maletak egin eta beste herrialdeetara joan ziren lan bila.

Jostundegiak ere ugari ziren Hernanin. Emakume guztiek ikasten zuten josten, eta horretarako akademia bereziak ere izaten ziren. Gainera etxeko pribatutasunean egiten ziren lan hauek, beraz Frankismoaren begietara, primeran. Berdin gertatzen zen fabriketatik etxerako bi-daltzen zituzten “zelofan” poltsekin. Hernanin oso ohikoa izan zen emakumeek etxean zelofan poltsak egitea, baldintza gogorretan noski. Denbora asko eskatzen zuen lana zen; aldiz, ez zen behar adina konpentsatzen diru kopuruan.

Frankismoak eragin ezberdina izan zuen hala ere, batzuen eta besteen artean. Guda ondorengo garaia izanik, herriko familia asko egoera prekario eta oso baldintza txarretan geratu ziren: desagertuak, hildakoak... Egoera tristea zen.

Baserri inguruko familiek aldiz, landarako lurak izatean, ez zuten kaletarrek bezainbesteko goseterik pairatu. Euren beharrak asetzeko nahiko elikagai eskuratzen zuten, eta askotan produktu hauek beste batzuekin trukatzeko erabiltzen zituzten.

Erregimen Frankistaren ideologiaren hedapena ere ez zen berdin gauzatu leku guztietan. Herri eta hirietan dena antolatuagoa zegoen. Eskoletan neska eta mutilak hezkuntza berezitua ezarri zitzairen, eta euskara hitz egitea debekatu zitzairen. Haur askok ez zekiten gaztelaniaz hitz egiten, familia askotan gurasoek ere ez baitzekiten. Beraz, askok etxean euskaraz hitz egiten zuten, baina eskolan gaztelera. Honek guztiak tala handia eragiten zuen familietan.

Landa eremuko gunek batzuetan ere, neska mutilak bereizten ziren, eta euskara debekatuta zuten. Beste batzuetan aldiz, agian herri gu- neetatik urrun geratzen ziren auzo eta mendialdeetan, klase mistoak ziren eta euskaraz ikasten zuten.

Eskolaz gain, euskararen aurkako aldarria jendarteko arlo guztietan hedatu zuen erregimenak. Euskara guztiz debekatu zuen, eta soilik euskal etxeetan mantentzen zen, isilean. Familia askotan mantendu zen euskara, baina beste batzuetan urteen poderioz, ume eta gazteak gehien- bat, galduz joan ziren. Hiriko emakumeen artean gainera, nabaria da hizkuntzaren aferra hau. Askok euskara guztiz galdu ez arren, gaztelaniara asko jotzen dute, gaztelera prestigio gehiago izango balu bezala; edota zer edo zer gauza azaltzeko, beharrezkoa izango balute bezala.

Lan esparru ezberdinetan lan egindako emakume guztiengan ere atzeman da sexualitatearekiko zegoen ikuskera atzerakoia. Ideologia faxistari jarraiki, sexua seme-alabak izateko soilik zegoen onartua, eta arau zorrotzak ezarri ziren bikote harremanei dagokienez, antisorgailuak... Sexua bekatua zen ezkontza bikotetik kanpo. Halere, erregimenetik emakumeen sexualitatean arreta eta arau zorrotzagoak jarri ziren, gizonezkoen baino. Edozein kasuan, lan honetan ikusi den moduan, erregimenaren saiakera guztien gainetik, hala ere baziren ama ezkontabeak, abortuak...

Lan esparru ezberdinetan ateratako beste gai bat immigrazioarena izan da. Garai batean asko ugaritu ziren lantegiak herrian, eta Extremadura eta Castilla ingurutik jende ugari hasi zen etortzen; iritzi ezberdinak izan dituzte emakumeek prozesu honen inguruan, baina argi geratu da lan esparru ezberdinetan izan zuela honek eragina.

6. AMAIERA ETA ESKERRAK

Gaur egungo errealitatea Franskismo garaian jasandako atzerapauso eta borroken ondorio da. Emakumeen egoeran aurrera pauso garrantzitsuak eman direla ezin uka. Baina orduko egoera latza, neurri batean edo bestean, generazioz generazio transmititu da. Beraz, Frankismoaren eragina, gaur egun ere indarrean dagoela esan daiteke. Frankismoaren borrokatu zuten emakumeenganako miresmena eta esker ona adierazi nahi da era berean. Beraiek ereindakoa egungo belaunaldi berriak jasotzen ari dira. Baina, emakumeen zapalkuntza gaur gaurkoz ere nabaria da. Bidea egin da, baina oraindik orain helmugarako (parekidetasunerako) bide luzea dago aurretik. Emakumezkoak eta gizonezkoak ez daude maila berean. Izan ere, gaur egun;

- Ez al da nagusi lana eta enpleguaren banaketa?
- Zer dago erdian, bizitza ala kapitala?
Bizitza eta elkarren arteko zaintza ez al daude bigarren mailan?
- Prekaritateak, ez al du emakumezkoon aurpegia gaur egun?
- Nortzuk egiten dituzte zaintza lanak nagusiki? Baloratuak al daude?
- Emakumezkoek ez al dute zailtasun gehiago lan merkatuan txertatzeko?
- Lan baldintza berberak al dituzte?
- Zein lanek dute balio gehien?
Gizonezkoek egiten dituztenak ala emakumezkoek eginikoak?
- Etxeko lanak modu parekidean egiten al dira?
- Aisialdiaz berdin (gizonezkoen aldean) gozatzen al dute?
- Familia eta maitasun eredu alternatiboak eraikitzen ari al dira?

eskerrak

Bukatzeko, ezin ahaztu ikerketa hau egiteko parte hartu duten pertsona guztiak. Eskerrik asko, zuen etxeko atea eta bizitzetako atea ireki diguzuen Hernaniko emakume langileak. Eskerrik asko, Manoli Olano Garaiar, Eulali Olano Garaiar, Miren Clemente Lozares, María Dolores Peña Iradi, Adeli Erdozia Iribarren, Maitere Azurmendi Arrizabalaga, Anttoni Egaña Aranburu, Juli Ayerra Gomez, Kontxi Apezetxea Agirre, Inaxi Altolagirre Camarero, Mari Carmen Garmendia Izaguirre, Maite Iradi Gorrotxategi, Eulali Aranburu Urkizu, Juana María del Carmen Cortés Gomez, Josefina Cátedra Galdón, Jannete Juan Dominguez, Mertxe Soraluze Imaz, Pepita Sanchiz Soto (abueli), María Pilar Carrera Vera eta Antton Urruzola Lujanbio. Ereñotzuko "Berriketa" lagunei ere mila esker: Maria Jesús Huici Legarreta, Julene Miner Aldabale, Kontxi Urdanpilleta Otegi, Maria Jesús Oskoz Iturria, Joxe Mari Oiarbide Marco, Maria Pilar Irazusta Irazusta, Dolox Miner Oiartzabal, Imanol Miner Oiartzabal, Pakita Loperena Urrutia, Kandí Susperregi Santa Cruz, Carmen Susperregi Santa Cruz, Antselmo Aranburu Agirre, Inaxi Oiarbide Aranburu, Mañoli Ormaetxea Mitxelena. Ikerketa honetako protagonista, Hernaniko historiako protagonista zarete. Bejondeizuela!

Eskerrak baita ere pertsona hauenganako bidea erraztu diguzueni, edota argazkiak helarazi dizkiguzueni ere: Elena Bilbao Diéguez, Mari Carmen Bilbao Calvo, Raquel Rodríguez Das Neves, Edurne Fuertes Etxarri, Juan Manuel Pineda Erdozia, Kristina Korella Ugalde, Miren Peñagarikano Urruzola, Amaia Otxotorena Gamio, Ane Iturbe Mugika, Araitx Aira Urruzola, Mari Karmen Olazaguirre Amilibia, Karlos Santxiz Sarriegi, Joxan, Martxel eta Mikel Ruiz Ortiz, Maitere Miner Aranburu eta Arantzazu Ruiz Miner.

Esker bereziak: Pili Lujanbio Olano, belaunaldi arteko katebegi ezinbestekoa izan zara. Kaxkoko emakumeen eta gure arteko transmisio lanak ezin hobeto egin dituzu eta argazkiak lortze prozesuan ere ezinbesteko laguntza eskaini diguzu. Eskerrik asko, Jone Miren Hernández García, ikerlari berrioi hain gogotsu laguntzeagatik eta ikuspegi antropologikotik ikerketa zuzentzeagatik. Eskerrak ere, Jone Tolosa Zabala, euskara eta idazketa zuzenketak zure oporretako tartean hain zehatz egiteagatik. Baita, Joxemari Iraola Aranzadiri ere lan honi “bixtobuenoa” emateagatik.

Eskerrik asko, Garazi Jauregi Carrera, elkarrizketen transkripzio lanak txukun-txukun egiteagatik. Eskerrak ere, gure deiari erantzun eta aholku eman diguten, Iñigo Royo Etxezarreta argazkilariari, Iban Ayesta Aldanondo antropologo bisualari eta Ainhoa Zabala Arretxe argazki ikerlariari. Eskerrak ere, modu desinteresatuan argazkiak utzi dizkiguten herritar desinteresatuak. Era berean, eskerrak Hernaniko Udal Artxiboari eta Kutxa Fototekari.

Eskerrik asko, gure alboan izan ditugun, Irantzu Jauregi Artola, Hernaniko berdintasun teknikaria eta Hernaniko Berdintasun Kontseiluko kideei. Eskerrak ere, Hernaniko Udalari, beka deialdi hau zabaltzegatik.

Nola ez, eskerrik asko zuri, ikerketa hau irakurtzeko interesa eta beta hartu duzun horri. Guk egindako bideak segida izan dezala. Dabilen harriari goroldiorik ez!

*ilunpetik
argitara*

7. ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

erreferentziazko bibliografia

- ALCALDE, Carmen (1996): *Mujeres en el franquismo. Exiliadas, nacionalistas y opositoras*. Flor del Viento Ediciones. Barcelona.
- ANAUT, Dabid (2013): *Euskararen kate hautsiak*. Euskal Memoria Fundazioa. Donostia.
- APAOLAZA AVILA, Urko (2003): *Aldaba joka: Hernani: ahozko historia txikia, 1931-81*. Dobera Euskara Elkarte. Hernani.
- ARANBURU URKIZU, Eulali (2003): *Jostunak eta jostundegiak Hernanin*, Hernaniko Urtekaria, Hernaniko Udala.
- ARBAIZA VILLABONGA, Mercedes (2002): *Empleo femenino y política social en el siglo XIX*. EHU Euskonews & Media 190 zbk (2002/11-29, 2002/12-6) www.euskonews.com
- ARDEVÓL, Eliselda (1998): *Por una antropología de la mirada: etnografía, representaciones y construcción de datos audiovisuales*, Revista de Dialectología y Tradiciones Populares de CSIC. Perspectivas de la antropología Visual-ean. Madrid.
- ARDEVÓL, Eliselda (2007): *La imagen práctica de la imagen*, Antropología Bisuala-ean. Ankulegi. Donostia.
- ASTORGA, Emilia(2004): *Fragmentos atacameños*. Revista Chilena de Antropología Visual, 4-ean.
- BALLARIN DOMINGO, Pilar (2001): *La educación de las mujeres en la España contemporánea (siglos XIX-XX)*. Síntesis. Madrid.
- BARCENILLA, Miguel Angel (2002): *Industrializazioa Euskal Herrian*. Gaiak. Bilbo.
- BARRUTIABENGOA U., ELIAS N., GONZALEZ G., RODRIGUEZ A. (2004): *Ahotsak, Emakumeak Historian, Hernani (1936-1970)*. Hernaniko Udala.
- BELTING, Has (2007): *Antropología de la imagen*. Katz Editores, Buenos Aires.
- BORDIEU, Pierre (2003): *Un arte medio*. Gustavo Gili. Barcelona.
- BUTLER, Judith (1990/2001): *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Paidós, México.
- CABRERA PEREZ, Luis Alberto (2005): *Mujer, trabajo y sociedad (1839-1983)*. Instituto de la mujer, Fundacioon BBVA, Fundacion F. Largo Caballero. Madrid.

- CÁRDENAS, Carlos (2006): *Imágenes de Trabajo. Reflexiones hacia una Antropología Visual Aplicada. El caso del Proyecto Juvenil Barrios del Mundo y su enfoque comunicativo*. Universidad Nacional de Colombia. Bogotá.
- CONNEL, Raewyn (1987): *Género y Poder: La sociedad, la persona y la política sexual*. Sydney, Allen & Unwin; Barcelona, Paidós; Stanford, Stanford University Press.
- DE BEAUVOUR, Simone (1949/1998): *El segundo sexo*. Cátedra, Madrid.
- DE LA GRANJA, Jose Luis; DE PABLO, Santiago; RUBIO POBES, Coro (2011): *Breve historia de Euskadi. De los fueros a la Autonomía*. Debate. Barcelona.
- DUEÑAS CEPEDA, M^a Jesus (2003): *La educación de las mujeres en la Segunda Republica: marco legal (1931-1939)* en CUESTA BUSTILLO, Josefina *Historia de las mujeres en España en el siglo XX*. Tomo II. Instituto de la mujer. Madrid.
- DEL VALLE, Teresa (1985): *Mujer Vasca. Imagen y realidad*. Anthopos, Barcelona.
- EGAÑA, Iñaki (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria 1936-1940*. Txalaparta. Tafalla.
- EGAÑA, Iñaki (2011): *El franquismo en Euskal Herria. La solución final*. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain.
- ESTEBAN, Mari Luz (1998): *Antropología eta feminismoa*, Uztaro: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ETXEBERRIA, Gema. (1983): *Hernani* (tesina argitaratugabea, Hernaniko Artxiboan).
- ETXEZARRETA, Miren (1977): *El caserío vasco*. Fundación C. de Iturriaga y M. Dañobeitia. Bilbo.
- FALCON, Lidia (1981): *La razón feminista 1: La mujer como clase social y económica. El modo de producción doméstico*. Editorial Fontanella. Barcelona.
- FEDERICI, Silvia (2013): *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Traficante de sueños. Madrid.
- GARATE, Gotzon (1998): *Atsotitzak*, BBK. (www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm)
- GARRIDO GONZALEZ, Elisa (ed) (1997): *Historia de las mujeres en España*. Síntesis. Madrid.
- GONZALEZ, Garoa (2004): *Industrializazioa Hernanin*, (www.kondaira.com)

- GOROSPE PASCUAL, Begoña (2006): *Crónica de las mujeres de Hernani. II Estudios sobre las mujeres inmigrantes llegadas a Hernani entre los años 1945-1980*. Vasconia. Donostia.
- HAINBAT AUTORE (1993): *Euskadi Ta Askatasuna, 1970-1973. Entre Burgos y Carrero*. Txalaparta. Tafalla.
- HELLER, Walter Wolfgang (1969): *Diccionario de Economía Política*. Editorial Labor. Barcelona.
- IDARRETA GOÑI, Antonio: *La crisis industrial en Hernani*. Hernaniko Urtekaria, Hernaniko Udala.
- JUBETO, Yolanda (2003): *Euskal Herriko emakumeak eta lana. Azken mendeen izandako bilakaera eta gaur egungo egoera en/in Emakumea Euskal Herriko historian*; Urtxintxa Eskola, GITE-IPES.
- JULIANO, Dolores (2013): *El silencio de la cuidadora. Construcción social del silencio*. Ponentzia: Cuidados globales. Donostia.
- LEON, Ander (2011): *Zigorra zigorraren gainetik. Emakumeak eta frankismoaren errepresioa*. Argia, 2264.alea. Lasarte-Oria.
- LUXAN, Marta (2005): *La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi*, en ARREGI, Begoña (ed). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Una reflexión sobre la fecundidad y la familia desde Euskadi*. Editorial de la Universidad del País Vasco. Leioa.
- MEAD, Margaret (1928/1972): *Adolescencia, sexo y cultura en Samoa*. Planeta Agostini, Barcelona.
- MÉNDEZ, Lourdes, (2007): *Antropología feminista*, Ed. Síntesis, Madrid.
- MOORE, Henrietta, (1991): *Antropología y feminismo*, Ed. Cátedra (Colección Feminismos), Madrid.
- MILLET, Kate (1969/2010): *Política Sexual*. Ediciones Cátedra (Colección Feminismos). Madrid.
- NIELFA CRISTOBAL, Gloria (ed) (2003): *Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política y cultura*. Instituto de Investigaciones Feministas. Universidad Complutense de Madrid. Madrid.
- OAKLEY, Ann (1972): *Sex, Gender and Society*. Temple Smith. London.
- ORTEGA, Margarita; MANTILLA, M^a Jesus (1996): *El trabajo de las mujeres: siglos XVI-XX" en VI Jornadas de investigación interdisciplinaria sobre la mujer. Seminario de Estudios de la Mujer*. Ediciones Uam. Madrid.

- PLATERO MENDEZ, Raquel (Lucas): *Hablando del "cuerpo del delito": la represión franquista y la masculinidad femenina* (www.feministas.org)
- PEREZ DE OROZCO, A eta RIO, S. (2002): *La economía desde el feminismo: trabajos y cuidados*. Rescaldos, revista de diálogo social, 7. zbkia.
- PEREZ DE OROZCO, Amaia (2009): Ponencia: *Feminismo anticapitalista*. Jornadas Feministas Estatales. Granada. (feministas.org)
- PRADO CONDE, Santiago eta LLANA, Cesar (2007): *Rivadavia y los rivadavienses, imágenes desde la Antropología Visual*, Antropología Visual. Ankulegi. Donostia.
- RUBIALES TORREJO, Amparo: *Evolución de la situación jurídica de la mujer en España* (www.ciudadanas.org)
- RUBY, Jay (1975): *Is an Ethnographic Film a Filmic Ethnography?* Studies in the Anthropology of Visual Communication, vol. 2 núm. 2
- RUBIN, Gayle (1975/1986): *El tráfico de mujeres: Notas sobre la economía política del sexo*. Nueva Antropología, vol. VIII (30). México.
- RUBIN, Gayle (1984/1989): *Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad*. Vance, C. *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina*. Revolución. Madrid.
- RUIZ FRANCO, Rosario (2007): *¿Eternas menores? Las mujeres en el franquismo*. Biblioteca nueva. Madrid.
- RUIZ TORRADO, Maria (2005): *Emakumea frankismoan*. (www.kondaira.com)
- SAINZ, M. Jose (1995): *Baserria eta industrializazioa*, I. Zaldúa eta M. Zurbano (arg.), *Industrializaziotik desindustrializaziora?* UEU, Bilbo.
- SHERER, Joanna C. (1995): *Ethnographic photography in anthropological research* in Hopkings, P. (ed) *Principles of visual anthropology*, Berlin.
- STOLCKE, Verena (2003): *La mujer es puro cuento: la cultura del género* en Quaderns de l'Institut Català d'Antropologia, 19. Barcelona.
- TUCHUELO GARCIA, Susana; TUCHUELO GARCIA, Marta (2003): *Euskal Herriko Historia*. Euskal Gaiak. Ibaizabal.
- VV.AA. (1987): *La mujer y la palabra*. Primitiva Casa Baroja. Donostia.
- ZABALA ARRETXE, Ainhoa (2010): *Argazkiak bidelagun, memoriaren adierazpenak*. Gizarte eta Kultur Antropologia. Doktorego programa 2008-2010. EHU. Donostia. Argitaratu gabe.
- ZABALA, Begoña (2008): *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*. Txalaparta. Lizarra.

Webguneak

<http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es>

<http://lau-haizetara-gogoan.blogspot.com.es>

<http://euskalmemoria.com>

<https://www.kutxateka.com>

<http://www.euskomedia.org>



ee
berdintasun kontssilua